# Goienkaria

2009ko urtarrilaren 16a > Egubakoitza > IX. urtea > 360. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gure gobernu eta enpresek zor ekologiko handia dute herrialde txiroekin"



**Inaki Barcena** Ekologistak Martxan > 08

**ARRASATE** **Caixako alokairuzko etxeetan izena emateko epea luzatu egin dute** > 14

**BERGARA** **Bolu auzorako igogailuak egingo dituzte, Madrilgo diruarekin** > 16

**OÑATI** **Autobus geltokia lekuz aldatuko dute, Zapateroren laguntzekin** > 27

**KIROLA** **Euskal Mendi Federazioaren hauteskundeak bihar, Elgetan** > 34



**'TOP-MODEL'** Izendapen hori eman diote Ainhoa Artetari aldizkariek. Irudian Marije Ibañezekin. GOIENKARIA

**G2a**

## Marije Ibañez bergararra Ainhoa Artetaren estilista da

Soprano handia izateagatik da ospetsua mundu osoan Ainhoa Arteta tolosarra, baina azkenaldian, janzkeragatik, elegante izateagatik eta duen estiloarengatik ere bada. Marije Ibañez bergararra da haren estilista azken bi urteotan. > 37

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRI SAREA

# Bidegorri sarea gertu izan nahi dute 2015erako

**SAREA** Ardatz nagusia eta lau bide-adar izango ditu; guztira 80 bat km. Gaur egun 13,4 daude erabilgarri

**LANEN EGOERA** Egun Eskoriatzan bakarrik dabiltza lanean; baina maiatzean beste hiru bidegorri zati egiten hasiko dira > 02-03

**AZPIEGITURAK** > OSPITALEA

## 2010erako erabilgarri egongo da ospitalea

Debagoieneko ospitale berriko lanak aurrera doaz, eta martxa onean, gainera. 2010eko bigarren seihilekorako lehen faseko lanak amaituta egongo dira; hain justu, eraikitzen diharduten eraikin berria bukatuta egongo da. Bigarren eta hirugarren faseak ere izango dituzte lanek. Lan guztiak bukatu eta gero, ospitalea pasako da 74 ohe izatetik 120 izatera, eta horrekin batera hainbat espezializazio berri ere bai. > 06

## Gaur, barikua, final handia

Hiru finalistak buru-belarri dabiltza finala prestatzen, eta duten onena emango dute gaur, barikua, 22:30ean, Espaloia antzokian.

- > Adi Holden
- > The Wet Band
- > Norman
- > Petti (gonbidatua)




**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Berri-zakua** > 45
**Non-zer** > 46-47


**KULTURA** > MUNDUMIRA

## Mundumira jaialdia Eskoriatzan

Munduko kulturen jaialdia maiatzaren 22an, 23an eta 24an izango da aurten > 04

**OSASUNA** > USHER SINDROMEA

## Rakel Nieto, eritasunari aurre egiten

Rakel Nietok (Arrasate, 1979) %91ko minusbaliotasuna du. Bereziki ikusmenean ditu gabeziak, baina baita entzumenean ere. Biak ala biak usher sindromearen ezaugarriak dira; 17 urterekin diagnostikatu zioten. > 04


GOKI ERREFORMAK S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK
- Teilatuak
- Fatxadak
- Barruko obrak



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel. 943 76 53 42 - Faxa 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es / www.gokierreformak.net

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIAK

# Leintz Gatzagaraino iritsiko da bidegorri sarea 2015. urtean

**13 KILOMETRO GUREAN**
Gaur egun 13,4 kilometro daude erabilgarri Debagoienean, oinezkoendako eta txirrindulariendako; zatika daude banatuta kilometro horiek

**72,7 KILOMETRO**
Arabako muga eta Osintxu lotuko dituen sareak 69,1 kilometro izango ditu, Oñatiko bide-adarra kontuan izanda; Bergara-Antzuola tarteak, berriz, 3,6 izango ditu

**LAU BIDE-ADAR**
Diputazioak aurreikusi du lau bide-adar eraikitzea: Oñati-Elorregi, Bergara-Antzuola, Arrasate-Gesalibar eta ardatz nagusia eta Leintz Gatzagako lotuko dituena



Bidegorriak, normalean, gorriz margotuta daude; irudian, Urkulu inguruneko bidegorria azaltzen da. IMANOL SORIANO

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek bidegorrien sarea eraikitzen dihardute apurka. Azken hilabeteotan aurrerapausoak eman dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidegorrien zatitako planak bederatzi ibilbide eta 378 kilometro aurreikusten ditu. Horietatik, 303 herriz kanpokoak dira, eta Diputazioak horietan dihardu lanean. Urbanoez, bestalde, udalak arduratzen dira. Egun, herriz kanpoko ehun kilometro inguru erabilgarri badaude ere, 2015erako sare osoa amaituta egotea espero dute.

Bailaratik bi ibilbide pasatuko dira: batetik, Debako Harana izenekoa dago. Debabarrena eta Debagoiena lotuko ditu. Bergarako Osintxutik Arabako mugaraino, Oñatiko bide-adarra kontuan hartuta, 69,10 kilometro izango ditu. Horietatik, 13,41 kilometro daude gaur egun erabiltzeko moduan.

**BI BIDE-ADAR BERRI**

Esan bezala, ardatz nagusiak hainbat bide-adar aurreikusi du. Diputazioak orain arte bi ditu zehaztuta: Elorregi-Oñati artekoa, 6,7 kilometrokoa; eta Bergara eta Antzuola lotuko dituena 3,6 kilometroren bidez. Azken hilabeteotan, baina, beste bi bide-adar egitea erabaki du: ardatz nagusitik Leintz Gatzagako herriraino joango dena, bata, eta Arrasatetik Gesalibar auzoraino iritsiko dena, bestea.

Horretaz aparte, Bergara-Beasain arteko ibilbidea ere badago aurreikusita bidegorrien zatikako planean.

Diputazioko bidegorrien arduradun Beatriz Martikorenak egun egiten dihardutenen, esleitu berri diren tarteen eta oraindik begiratu barik dauden zatien errepasoa egin digu.

**ANTZUOLA-BERGARA, MAIATZEAN**

Bergara eta Antzuola lotzeko bi bidegorri egingo dira datozen urteotan: bata, bidegorri zaharretik, Bergaratik Urretxura artekoa; eta bestea, Bergara eta Antzuola artekoa, lehengo bide zaharretik. Azaroan azken horren proiektua onartu zen. Zati hori hiru fasetan egingo da, eta lehenengo biak lizitazioan daude: lehena herritik Antzuola errekarekiko bidegurutzeraino eta bigarrena, errekaren eskumatik, bide zaharretik doana. Horien lanek maiatzean hasi eta bost hilabete iraungo dute; 794.568 euroko kostua izango dute.

Hirugarren zatia kolektoreko lanak aprobetxatuz egingo da; aurten aterako ei da enkantera. Hori eraikitzeko 683.357 euro aurreikusi dira. Guztira, 3,6 kilometro izango ditu. 2010eko udaberrirako bidegorria erabiltzeko moduan egotea espero dute.

**OSINTXU-MEKOLALDE**

Osintxu eta Mekolalde arteko bidegorriaren egokitzapen lanak ere maiatz aldean hasiko direla dio Martikorenak. Atzo, tramu hori egokitzeko proiektuko lanak kontratatzeko deialdia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofi-

zialean. Obrak bi tartetan banatzen dira: batetik, Osintxu eta Mekolalde artean zoladura egokituko dute, egoera oso kaskarrean dago-eta. Horrekin batera, beharrezkoa den argiteria ere jarriko dute. Osintxu eta Mekolalde arteko tarte horren 1,75 kilometroko luzera du.

Bestetik, Soraluzetik Osintxurainoko tartea –2,25 kilometrokoa– bidegorri gisa egokituta dago. Baina beharrezkoa den argiteria jartzea falta da. Zati hori egiteko 1.080.816 euro bideratuko dira.

**ESKORIATZAKO HILERRIA**

Bestalde, Eskoriatza-hilerria bide zatia egiteko proiektuko lanak kontratatzeko deialdia ere atzo argitaratu zen; lanak maiatzean hastekoak dira. Obrek bost hilabete iraungo dute eta 949.714 euroko aurrekontua izango dute.

Eskoriatzako iparra eta hegoa lotuko ditu. Lana nahiko konplexua da, trazatu barruan dagoen tunelaren iparraldeko ahoa estalgabetu barik dagoelako eta tunelaren zati bat GI-627 errepidearen lubeta baten azpian dagoelako. Hortaz, tunela "nahiko ondo" badago ere, hori egonkortu eta egokitu eta argiteria jarri behar dutela azaldu du Martikorenak.

**AINGERU GUARDA-SORAUTZ**

Eskoriatzan dago, gainera, orain eraikitzen diharduten zatia: Herriko hegoaldean dagoen Aingeru Guarda ermita eta Sorautz etxea lotzen dituena da. Obrak maiatzean hasi ziren, eta hilabeteko atzerapena daramate; martxoaren amaierarako amaituta egotea espero dute.

Hegoaldeko tartea GI-627 errepide ondotik doa Dorleta auzoraino. Hango aparkalekua igaro eta beherantz doa San Juan kalerantz; hori tunel baten bidez igaro eta handik Sorautz etxeraino doa. 950 metroko luzera duen zatia egiteak 1.742.510 euroko kostua du.

Bi zati horiek amaitzean, Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate ingurunea lotuko dituen bidegorria bizikletendako eta oinezkoendako erabilgarri egongo da. Sei kilometroko luzera izango du. Horretaz aparte, zona horretan, Urkulu inguruneko bidegorriaz ere gozatu ahal dute aspalditik debagoiendarrek. Ibilbide hori, baina, Diputazioaren planetik kanpo dago.

**ARABAKO MUGARAINO**

Bestalde, bailara eta Araba lotzeko proiektua "osatzen" dabiltzala adierazi du Martikorenak. Horretarako, udalerrietako alkate eta auzo alkateekin ari dira lanean.

Lanen hasiera datarik oraingoz ez dute jarri: "19 kilometroko luzera du, eta, beraz, ahal den neurrian trenbide zaharretik joango bada ere, bide hori egitea oso garestia da; sei milioi pasatxo balioko du eta oraindik ez dakigu diru hori ze sailetik aterako den. Hori aztertzeke dago". Tramu horretan sartu den berrikuntza nabarmena dagoela ere aurreratu du: lehen aipatutako Leintz Gatzagako herrirainoko bide-adarra, hain zuzen.

**OÑATI-ELORREGI-EPELE**

Lehenago hasiko ei den zatia Oñati-Elorregi-Epele artekoa da. Lehiaketa uda partean ateratzeko asmoa dute. Oñatitik Elorregiraino trenbide zaharra erabili nahi dute; hala ere, eskualdeko tranbiaren ibilbideak baldintzatuko du zati horren trazatua.

Martikorenaren esanetan: "Tramu horrek, aldi berean, Epele eta Arrasateko iparra lotzea eskatzen du, eta, beraz, hemendik bi hilabetera lizitaziora aterako dugu. Horrekin batera, hori Arrasateko hegoarekin lotzea falta da. Proiektua idazten gabiltza orain, eta oraindik ez daukagu horretarako aurrekontu zehatzik. Udala, berriz, herri barruko ibilbideaz arduratuko da".

Bidegorri sarearen planaren barruan Arrasate eta Gesalibar arteko bide-adarra sartu da: "Oraindik proiektua eginda ez badago ere, planean sartuko dugu. Saiatu gara, era berean, Arabarekin harremanetan jartzen ibilbide hori aktiba dezaten".

**ELORREGI-BERGARA**

Elorregi eta Bergara artekoa atzeratuagoa dago: "Zona horretan ez gara sartu, eta hemendik gutxira hori lantzen hasi beharko dugu. Oraindik ez dugu inolako aurreikuspenik".

Esan bezala, bidegorrien sarea egitea ez dago bakarrik Diputazioaren esku; bestelako administrazioek eta elkarteek zeresan handia dute horretan. Horretarako, joan den urteko irailean Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua eratu zen. Bizikletari buruzko gaien eta bizikletako mugikortasun kontuen inguruko aholkularitza organo gorena da. Urtarrilaren 28an bilera egingo dute, joan den urtean egindakoa eta aurtengo aurreikuspenen gainean jarduteko.

HERRI BARRUKO SAREA

## Oñatiko Bizikleta Plana labean dago

Udaletan ere gogor dihardute bidegorriak apurka eraikitzeko. Oñatiko Udala, esaterako, herri barruko bidegorri sarea eratzeko proiektuan bete-betean dago sartuta. Txirrinka taldeak hala eskatuta, Oñatiko Bizikleta Planaren zirriborroa egitea eskatu zion Udalak mugikortasun gaietan aditua den Ander Irazusta geografoari. Hark dagoeneko lana egin du eta Txirrinkak dokumentua aztertzen eta hari ekarpenak egiten dihardu.

Zirriborro horretan ia zazpi kilometroko bide-sarea proposatzen du eta hori eraiki ahal izateko aukera teknikoak azaltzen ditu. Horretaz aparte, bizikletaren erabilera sustatzeko estrategia egin du, helburuak eta ekintza plana zehaztuz. Udal Gobernuaren asmoa da aurten tramu bat egiten hastea. Bailarako beste hainbat herritan lanean dabiltza, hala nola Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan.


Eskoriatzako hegoaldeko obrak. M.B.


Urkulu inguruko bidegorria. GOIENKARIA


Osintxu-Mekolalde tartea. M.B.


Gure Ametsa jatetxetik pasako da. M.B.


Gesalibar auzora iritsiko da. M.B.


Oñatiko unibertsitatea. MIREIA BIKUÑA

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.

ZIRA
EKFB Euskal Selekzioko zira bat.


KAMISETA
DANBAKA
Danbakako kamiseta bat.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua
Zozketan sartuko dira: 09-01-12tik 09-04-22ra jasotakoak

**OSASUNA** > USHER SINDROMEA

# Oztopoak gainditu, usher sindromeari aurre eginez

Rakel Nieto arrasatearrari 20 urterekin diagnostikatu zioten usher sindromea

Entzumenean arazoak ditu, eta ikusmenean ere: erretinosi pigmentarioa du bi begietan

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Rakel Nietok (Arrasate, 1979) %91ko minusbaliotasuna du egun. Bereziki ikusmenean ditu gabeziak, baina baita entzumenean ere. Biak ala biak usher sindromearen ezaugarriak dira. 20 urterekin diagnostikatu zioten gaixotasuna. "Egia esan, Internet bidez egindako ikerketekin konturatu nintzen nuen gaisotasuna Usher sindromea izan zitekeela", esan digu.

Lau urterekin entzumenean arazoak zituela konturatu ziren etxekoak, baina medikuak gaizki sendatutako katarroa zela esan zion. Urte batzuk pasa ondoren, ikusmeneko arazoekin hasi zen. "Lagunak konturatu ziren gauetan ez nuela ongi ikusten, eta amari esan zioten. Uste nuen gainerako guztiek nire moduan ikusten zutela", esan digu. Oftalmologoarengana joan zen, eta 16 urterekin bi begietan erretinosi pigmentarioa zuela esan zioten. "Erretinosi pigmentarioaren sintomak dira: ikusmena pixkanaka galtzea; gauetan ikusmen arazoak izatea eta area perferikoa geroz eta txikiagoa izatea. Errazago ulertzeko adibide bat jarriko dut: norbaiti aurpegira begiratzen badiot, pare-parean dudana bakarrik ikusten dut. Lepotik behera eta inguruan dagoena, ez dut ikusten", dio Rakel Nietok.

Erretinosi pigmentarioaren diagnostikoarekin, Interneten ikertzen hasi, eta orduan lotu zuen entzumenean zuen gabezia ikusmenean zuenarekin: usher sindromearen ondorioak ziren. "Orduan pentsatu genuen lau urterekin izan nituen entzumen arazoak sindromearen ondorio zirela, eta ez gaizki sendatutako katarro batena".

**EGUNEAN EGUNEKOA**

Bigarren mailako usher sindrome zuela esan zion medikuak. "Hiru mota daude eta nik dudana ez da larriena; baina, endekapenezko gaixotasuna denez, itsu geratzeko aukera asko ditut. Hortaz, diagnostikoa jasotzeko unea oso gogorra izan zen", kontatu digu.

Une gogorrak bizi izan zituen, batez ere udazkenean eta neguan, baina etorkizunari begiratu barik egunean egunekoa bizi behar zuela erabaki zuen: "Egunekoaz gozatzen dut. Ez dakit nolako etorkizuna izango dudan. Dena den, ikusmena erabat ez galtzeko esperantza daukat; alegia, argi izpi arin bat izan gurako nuke". Erretinosi pigmentarioa diagnostikatu ziotenean, maletak hartu eta 18 urterekin Irlandara joan zen hilabetez umeak zaintzera. 24 urterekin sei hilabetez egon zen Dublinen 3 eta 5 urteko umeak zaintzen. "Badakit gaixotasunarekin bizi behar dudala, eta ikasi dut. Baina nire adineko gazte batek egiten dituen gauzak egiten ditut: bidaiak, irteerak, lagunekin parrandak... Aste bukaeretan lagunekin gauez irteten naiz, eta, egia esan, asko laguntzen didate".



Argazkian, Rakel Nieto eta *Hegan* txakurra. TXOMIN MADINA

ESANAK

**"Ez dut etorkizunean pentsatu gura, egunean egunekoa bizi behar dudala esaten diot nire buruari"**

**Rakel Nieto** > Usher sindromea du

### ONCEko txakurrak ez direnak homologatu ahal izateko ekimena

ONCE erakundeak hezten dituen txakurrak homologatuta daude, eta gidari lanak egiteagatik edozein tokitan sar daitezke: autobusetan, dendetan edo trenbideetan. Baina ONCEko txakurrak ez direnak *maskotak* direla diote. "Andaluzian ONCEko txakurrak ez direnak edozein lekutara eroan ditzakete, baina Euskal Herrian ez dago halako baimenik; eta, gidaria behar dugunok larri ibiltzen gara, adibidez, autobusetan sartzeko".

Legea aldatzeko beharra dagoela esan digu, eta ahalegina egingo duela hori lortzeko. Rafael Kortabarria oñatiarraren laguntza du proiektu horretan.

Ushe sindromeak ez dauka, oraingoz, sendabiderik, baina Rakel Nieto baikor dago: "Erretinosi pigmentarioa zuten 50 txakurri ebakuntza egin diete, eta ikusmena berrekuratu dute %100ean. Horrek esperantza ematen digu. Noski, ezohikoak diren gaitzak ikertzeko diru asko behar da, eta hori da falta zaiguna".

**'HEGAN' TXAKURRAREN LAGUNTZA**

Geroz eta zailtasun gehiago ditu Nietok kalean bakarrik ibiltzeko, batez ere udazkeneko eta neguko ilunabarretan eta gauetan. Zaragozatik bi hilabeteko txakurra ekarri du gidari lanak egiteko. "Lagun dudan txakur hezitzaile baten laguntzarekin nabil *Hegan* txakurra hezten. *Labrador retraiver* arrazakoa da, eta, oso zaila den arren, lortuko dugula uste dut", dio.

Txakurrak hezten dituen eskola bakarra dago Estatuan; hain zuzen ere, Boadilla del Monte herrian (Burgos); baina han hezten dituzten txakurrak eskuratzeko itxaron-zerrenda oso luzea da. "ONCEko bazkidea naiz, baina itxaron zerrenda amaigabea da. Txakur gutxi daude beharra dugun guztiondako".

---

**KULTURA** > MUNDUMIRA JAIA

# Munduko kulturen topagune bihurtuko da Eskoriatza Mundumira jaiarekin

Maiatzaren 22, 23 eta 24ko aste bukaeran egingo dute Mankomunitateak eta 'Euskal Herria' aldizkariak antolatuta, kulturen jaia Eskoriatzan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Martxan da Mundumira, munduko kulturen festa handia. Debagoieneko hainbat herritan egin ostean, Eskoriatzan egingo dute aurten. Hain zuzen, maiatzeren 22an, 23an eta 24an izango da.

Lurralde askotatik etorritakoen topagune bihurtu gura dute Debagoiena; eta, aldi berean, ondare historikoa, artistikoa eta naturala erakutsi eta ezagutzera eman.

**BIZIRIK DAGOEN LURRALDEA**

Jaialdia etorkizuneko gizartearen isla izan daiteke, bizirik dagoen lurralde baten sor daitekeenaren adierazle; betiere, norberaren kulturaren ezaugarriak mantenduz eta beste kulturen ezaugarriak ezagutuz. Orain arte egin den moduan, eskaintza integrala egin gura dute, ibarreko irudia Euskal Herrian zehar zabalduz eta, aldi berean, turismo eta aisialdiko eskaintza kulturala zabalduz.

**MUSIKA ETA TAILERRAK**

Aste bukaera osoan munduko kultura, jaki eta musikaz gozatzeko aukera egongo da. Musikari dagokionez, kontzertuak, tailerrak eta beste hainbat erakustaldi egongo dira. Gainera, gaur egungo gizarteak bizi duen egoera larriaren isla izan gura du jaialdiak, eta horretarako, hainbat mahai-inguru antolatu dituzte; bertan, informazioa emango da eta hausnarketa bultzatu.

Mendia eta naturak ere bere lekua izango du jaialdian: mendi irteerak eta azokak egingo dituzte, eta baita ibilaldi gidatuak ere. Horrez gain, haurrentzako jolasak eta artisau azokak egongo dira. Gainera, Eskoriatza Euskal Herriko GKEen topagune bihurtu gura dute.

DATUA

**5**

**EDIZIO**

Mankomunitateak eta *Euskal Herria* aldizkariak antolatzen duten bosgarren edizioa izango da aurtengoa Eskoriatzan. Lehenengo edizioa Arrasaten egin zuten; gero, Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran egin zuten jaialdia.




Eskolara joateko adina duten umeek gosari osasungarrien garrantziaz jabetu behar dute. MIRARI ALTUBE

**OSASUNA** > 'GOSARI BIHOTZ OSASUNGARRIAK' KANPAINA

# Gosari osasungarriak hartuko dituzte Oñatiko eta Eskoriatzako umeek

Bihotz Bizi elkarteak Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Oñatiko Errekalde eta Elkar Heziko umeei gosari on batek duen garrantzia azalduko die

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Bihotz Bizi izeneko bihotz arazoen prebentziorako elkarteak gosari osasungarriak eskainiko die datozen hilabeteotan Debagoieneko ikasleei. Zehazki, *Gosari bihotz osasungarriak* izeneko kanpainaren aurtengo edizioan Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Oñatiko Elkar Hezi eta Errekalde ikastetxeetako haurrek parte hartuko dute. Otsailaren 19an Eskoriatzako ikasleek jasoko dute ikastaroa; martxoaren 5ean, berriz, Oñatikoek.

Esandako kanpainak gosaltzerakoan 10 eta 12 urte bitarteko ikasleei ohitura osasuntsuak helaraztea bilatzen du. Hortaz, lehenik eta behin, gosari on batek duen garrantziaren gaineko hitzaldia eskainiko zaie, otordu horretan sartu beharreko oinarrizko osagaiak zeintzuk diren azalduz. Jarraian, ikastetxeen jangelan gosalduko dute. Hona hemen hartuko dituzten osagaiak: fruta, esnea, kakaoa, ogia, olioa eta indioilar-hestebetea.

DATUA

**10**
**MINUTU**

Bihotz Bizik eskola-umeen artean egindako inkestaren emaitzek diote %67k hamar minutu baino gutxiago ematen dituztela gosaltzen. Otordu hori egiteko denbora nahiko hartzea gomendatu du.

**FRUTARIK EZ**
Ikastaroez gainera, Bihotz Bizik 10 eta 11 urteko euskal eskolaumeen artean gosarien gaineko inkesta egin du. Emaitzek ondorioztatu dute %40k ez dutela frutarik jaten gosarian. Datuek gaineratu dute gipuzkoarrak direla fruta gehien jaten dutenak, Bizkaiko eta Arabako umeen aurretik. Gipuzkoarren %68k goizetan fruta jateko ohitura dute.

Horrekin batera, eguneko lehenengo otorduari oso denbora laburra ematen diotela ondorioztatu dute. Inkesta egin duten umeen %67k hamar minutu baino gutxiago ematen dituzte zeregin horretan. Horrek esan nahi du modu egokian gosaltzen ez dutela, beharrezkoak diren osagai guztiak jateko gutxienez hamar minutu behar direlako.

Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 4.000 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute aurtengo kanpainan.

**Izpiñe Aranburu** > Auzolagun kooperatibako kalitate arduraduna

## "Egunean behar dugun energiaren %25 hornitu behar du"

**M.B.** > ARRASATE
**Auzolagunek Bihotz Biziren kanpainan parte hartu du. Kooperatibako kalitate arduradun Izpiñe Aranbururekin gosarien gainean hitz egin dugu.**

**Nolatan kanpaina horretan?**
Helburuetariko bat da elikadura arloan ohitura egokiak bultzatzea eta senideei laguntzea haurrendako dieta orekatua lortzen; beraz, gai hauek kezkatzen gaituzte.

**Zergatik da garrantzitsua gosaria?**
Esnatzerakoan gorputzak 12 bat ordu darama elikagairik jaso gabe; beraz, kapazitate fisiko eta intelektuala bultzatzeko behar dugun errekina da.

**Datuek diote eskola-ume askok frutarik ez dutela hartzen gosaltzeko. Zer egin dezakegu har dezaten?**
Askotan fruta zukuak eskaintzen dira. Baina fruta osoa gomendagarriagoa da, zukuak zuntz asko galtzen baitu. Erakargarriago egiteko, platerean aurkezpen eta mozketa bitxiak erabili eta barietatearekin joka daiteke.

**Ze hartzen duzue kontuan gosarien menuak egiterakoan?**
Gosariak osatuak eta orekatuak izatea; hau da, elikagai ezberdinekin osotuta izatea (karbohidratoak, proteinak, bitaminak, mineralak eta zuntza). Haurrek egunean behar duten energiaren 25% hartu behar dute.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009

# Hautesleek errolda eskura izango dute urtarrilaren 19ra arte

Erroldan sartzeko edo kentzeko erreklamazioak aurkez daitezke

**M.B.**> BERGARA
Hautesleek datorren astelehenera arte, urtarrilak 19, izango dute eskura errolda udaletxe eta kontsulatuetan. Epe berean, hautesleek erroldan sartzeko edo bertatik kentzeko erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzan.

**ZUZENKETAK HILAREN 23AN**
Hark, berriz, hiru egun izango ditu erreklamazioa ebazteko eta bat gehiago eskaera aurkeztu duen pertsonari, udalei eta kontsulatuei horren berri emateko. Zuzenketak urtarrilaren 23an jarriko dituzte jendaurrean.

# D3M herri plataforma sinadurak biltzen hasi da

**M.B.** > BERGARA
Joan den zapatuan Demokrazia Hiru Milioi (D3M) herri plataforma aurkeztu zuten Bilbon, martxoaren 1ean egingo diren Legebiltzarrerako hauteskundeetan aurkezteko helburuarekin.

Baina, horretarako, 17.900 sinadura bildu behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan. Horiek biltzeari ekin diote dagoeneko. Debagoieneko herrietan sinadurak non eta noiz jasotzen diren bildu dugu beheko taulan.

## Sinadura bilketa herriz herri

**ARRASATE***
Urtarrilak 14-23
BAZ:
> Astelehenetik egubakoitzera, 12:00-14:00 eta 16:30-19:00.
> Zapatuak, 10:00-12:00
NOTARITZA:
> Astelehenetik eguenera, 11:00-13:00 eta 16:00-18:00.
> Egubakoitza, 11:00-13:00.

**BERGARA**
Urtarrilak 14-24
UDALETXEA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 12:00-14:30 eta 18:00-20:00.
> Zapatuak, 11:00-14:00
NOTARITZA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00.
> Eguaztenak, 16:00-17:30

**OÑATI**
Urtarrilak 13-23
UDALETXEA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 13:00-14:30.
> Martitzenak, 18:00-20:00
NOTARITZA:
> Urtarrilaren 13tik 22ra arte, 10:00-13:00.

**ARETXABALETA**
Urtarrilak 14-23
UDALETXEA:
> Astelehenetik eguenera, 09:00-13:00 eta 14:00-17:00.
> Egubakoitzetan, 09:00-13:00.

**ESKORIATZA**
Urtarrilak 15-23
UDALETXEA:
> Urtarrilaren 15etik 20ra, aste bukaera izan ezik, 11:00-13:00.
> Urtarrilaren 21etik 23ra, 11:00-13:00 eta 17:00-19:00

**ANTZUOLA**
Urtarrilak 15-23
UDALETXEA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 08:00-10:00 eta 12:00-14:00.
> Urtarrilaren 16an, 20an eta 23an, 08:00-10:00, 12:00-14:00 eta 15:30-17:30.

**ELGETA**
Urtarrilak 13-23
UDALETXEA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 09:30-13:00 eta 15:00-17:30.
> Zapatuak, 09:30-12:30.

**ARAMAIO**
Urtarrilak 13-23
UDALETXEA:
> Astelehenetik egubakoitzera, 08:30-15:00.
> Eguaztenak, 08:30-17:30

**LEINTZ GATZAGA**
Ez dabiltza sinadurak biltzen.

* Arrasateko BAZen ez dute sinadurarik jasoko urtarrilaren 20an. Notaritzan urtarrilaren 22ra arte jasoko dituzte.



Aurrera doaz Debagoieneko ospitale berriko lanak. ARANTZAZU EZKIBEL

**AZPIEGITURAK** > OSPITALE BERRIA

# Lehenengo fasea 2010ean amaituko dute

Lanak amaitzen direnean 74 ohe izatetik 120 ohe izatera pasako da Debagoieneko ospitalea

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Debagoieneko ospitale berriko lanak aurrera doaz, martxa onean. Hori da Jose Luis Angulo ospitaleko gerenteak esan diguna: "Lanak egoera onean daude eta oraingoz epeak betetzen ari dira".

Angulok esan digu 2010eko bigarren seihilekorako lanak amaituta egongo direla eta orduan inauguratu dutela ospitalearen zati berria. Lehenengo fasean eraikinaren zati bat egin dute, anbulatorioaren atzealdekoa, hain zuzen ere. Behin eraikin hori eginda, gaur egungoaren atzeko zatia, zati zaharra, bota egingo dute eta hantxe jarraituko dute eraikitzen. Hirugarren fasean, gaur egungo eraikinaren zati berria egokituko dute.

Bigarren fasea noiz hasiko den galdetuta, angulok dio "berehala" hasiko direla lanekin; eta ez dela etenik egongo fase baten eta hurrengoaren artean.

Lehenengo fase horretako lanak Amenabar enpresa dabil egiten. Orain, ekipamenduaren aurrekontua aztertzen dihardute.

**ESPEZIALIZAZIO BERRIAK**

Lan horiekin, Debagoieneko ospitalea 74 ohe izatetik 120 ohe izatera pasako da. Baina hori ez da lanek ekarriko duten hobekuntza bakarra.

Lanak amaitzen direnean hainbat espezializazio berri izango ditugu Debagoieneko ospitalean: zaintza bereziko gunea, haur eta amentzako gunea, egonaldi motzak, medikuntza prebentiboa, urologia, emergentzietarako unitate berria eta operazio-gela adimentsua, esaterako.

DATUA

**124**

**APARKALEKU**

**Ospitale berriaren lanekin batera, aparkaleku berria egingo dute Debagoieneko ospitalean. 124 autorentzat egongo da tokia egin behar duten aparkalekuan.**

**POLITIKA** > ATXILOKETAK

## Lore Zeziaga arrasatearra atxilotuta dago oraindik Baionako polizia-etxean

Mikel Illarramendi oñatiarrak isolatuta jarraitzeko erabaki hartu du, prebentibo izaera kentzen ez dioten artean

**M.B.** > ARRASATE

Amnistiaren Aldeko Mugimenduek diotenaren arabera, Lorea Zeziaga arrasatearrak atxilotuta jarraitzen du Baionako polizia-etxean. Martitzenean atxilotu zuten, 06:00etan. Gainera, haren etxea miatu zuten. Hain justu ere, polizia-operazioa Laurence Le Vert Parisko epaileak agindu zuen.

Zeziagak urteak zeramatzan Lapurdiko hiriburuan bizi izaten, eta egun, hantxe egiten du lan, Oihana ikastolan. Aurretik Mexikon bizi izan zen, iheslari politiko. Lorea Zeziagaren atxiloketaren gaineko informazioa emateko batzarra egin zuten martitzenean Arrasateko Seber Altube plazan.

**ILLARRAMENDI, ISOLATUTA**

Bestalde, Mikel Illarramendi oñatiarra isolatuta dago. Hamar urteko kartzela zigorra jaso berri du, baina epaia jaso ondoren prebentibo izaten jarraitzen duenez, isolatuta jarraitzeko erabakia hartu du.

Kartzelako zuzendariari esan dio epaia jaso duenez gainerako presoekin ziegan egon gura duela, baina kartzelako zuzendariak esan dio ezin diola laguntzarik eskaini.

**POLITIKA** > ERABAKIA

## Intxortako Ateko pintadak garbitzeko, laguntza barik

Aralar alderdiak kritikatu egin du Jaurlaritzak hartutako erabakia

**M.B.** > ELGETA

Eusko Jaurlaritzaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak Elgetan dagoen Intxortako Atea eskulturan egindako pintadak kentzeko dirulaguntza ukatu du. Erabakia kritikatzeko agerraldia egin zuten Aralarko legebiltzarkide Aintzane Ezenarrok eta Elgetako alkate Oxel Erostarbek. Besteak beste, ausardia eta irmotasuna eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari, biktimen alorrean defendatzen duen eta hartzen dituen konpromisoak ekintza konkretuetara eroateko.

Erostarbek esan zuen, gaur egun Elgetan eta Euskal Herrian dauden pintadak biktimendako iraingarriak direla. Era berean, Intxortako Atea garbitzeko laguntza ukatu ondoren, helegitea aurkezteko asmoa dutela Barne Sailaren aurrean.

**AZPIEGITURAK** > PROTESTA EKITALDIA

## AHTren aurkako manifestazio nazionalera autobusa irtengo da Debagoienetik, bihar

Autobusa Antzuolatik irtengo da eta herririk herri pasako da; gaur da autobusean joateko izena emateko azken eguna

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta bihar Urbinan 12:00etan egingo duten manifestazio nazionalera joateko autobusa irtengo da Debagoienetik. Hain zuzen ere, 10:00etan irtengo da Antzuolatik; eta Bergaratik, Arrasatetik, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik pasa ondoren, Gasteizerako bidea hartuko du. Autobusean joan gura dutenek oraindik ere aukera dute izena emateko: manifestazioa bukatu ondoren itzuli gura dutenek hiru euro ordaindu beharko dute eta egun osoan Gasteizen geratu gura dutenek, hamar euro.

**FESTA ALDE ZAHARREAN**

Manifestazioaren helburua da Eusko Jaurlaritzari eta Sustapen Ministerioari AHTren lanak gelditzeko exijitzea. Bestalde, zalantza bizian jarri den proiektu erraldoiaren inposizioa arbuiatu gura dute.

Manifestazioa eguerdiko hamabietan hasiko dute Urbinako plazatik, eta lan-eremuraino joango dira. Ondoren, Musikherria musika-kolektiboarekin batera Gasteizko alde zaharrean festa egingo dute. 15:30ean, herri bazkaria egingo dute Auzolan frontoian, eta 18:00etatik aurrera Landatxo kiroldegian eta gaztetxean *Musika askeaz, AHT Gelditu*! lelopean kontzertuak egingo dituzte.

**HEZKUNTZA** > UNIBERTSITATE BERRIA

## Sukaldaritzari buruzko fakultatea, MUren eskutik

Zientzia Gastronomikoen Fakultatea Donostian kokatuko dute eta 2011. urterako bukatuko dute

**M.B.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak bultzatuta Zientzia Gastronomikoen Unibertsitatea sortuko dute 2011. urterako. Proiektu horretan erakundeen eta sukaldarien babesa izango du MUk. Unibertsitate berria Donostian kokatuko dute. Estatu mailan halako ikasketak ematen dituen lehen fakultatea izango da, eta Europa mailan bigarrena. Bi eraikin egingo dituzte: alde batetik, Zientzia Gastronomikoen fakultatea; eta beste alde batetik, ikerkuntza eta berrikuntza zentroa.

**SUKALDARIEN BABESA**

Karlos Argiñanok, Andoni Luis Adurizek eta Juan Mari Artzakek babesa eman diote proiektuari. Goi mailako sukaldaritza titulua eskuratu ahalko da. Gainera, graduondoko eskaintza zabala jarri gura dute.

**INGURUMENA** > 'RENOVE' PLANA

# Leihoak berritzeko aukera plan berriarekin

Eskakizunak egin ahal izango dituzte, 2008ko irailaren 1etik 2009ko uztailaren 31ra etxeetan gastuak egin dituztenek

JASONE ZABALA > BERGARA

Energiaren Aurrezpen eta Dibertsifikazioaren Institutuak (IDAE), Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) lortutako hitzarmenaren ondorioz, etxebizitzetan leihoen *renove plana* hasi da martxan. EEEk lortutako dirulaguntza horren helburua da eraginkortasun energetikoa lortzea eta errendimendua hobetzea etxeetako leihoak aldatu nahi dituenari diru laguntzak emanez.

**LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Deialdi honen oinarriak 2008ko urrian argitaratu ziren eta deialdia 2009ko uztaila arte martxan egongo da, edo plan honetarako eman diren 876.125 euroak gastatu arte. Berritu nahi den beiraztatutako itxitura bakoitzeko emango den diru laguntzaren zenbatekoa inbertsioaren %22 izango da (BEZ gabeko faktura kontuan hartuta). Nolanahi ere, etxebizitza bakoitzari emango zaion gehieneko zenbatekoa 1.650 eurokoa izango da. Leihoaren metro koadro bakoitzeko emango den gehieneko diru laguntza 500 eurokoa da. EEEtik adierazi dute, orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan 5.000 eskakizun inguru jaso dituztela, eta hasieran zituzten aurreikuspenak gainditu dituztela. Gaineratu dute hainbeste eskakizun izanda guztiei erantzungo dietela, baina denbora gehiago beharko dutela eskakizun bakoitzari erantzun ahal izateko.

**ESKAKIZUNAREN OINARRIAK**

Deialdi honen diru laguntzen onuradun izango dira EEEk argitaratutako baldintzak betetzen dituztenak: Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza baten jabea den pertsona fisikoa edo haren usufruktuduna eta leihoak berritu nahi dituenak, termikoki eraginkorragoak direnak jartzeko asmoz.

Diru laguntza hauetara 2008ko irailaren 1etik 2009ko uztailaren 31ra bitartean egindako inbertsioak aurkeztu ahal izango dira. Aurkezteko azken epea ekainaren 30a izango da. Informazioa eskuratzeko, EEEko ondorengo telefonoetara dei daiteke: 944 03 56 00 edo 944 03 56 80. Eskakizunak aurkezteko bi bide daude: EEEren webgunean sartuta– *www.eve.es*– eta bertako eskaera orria beteta edo posta arruntaz ondorengo helbidera bidalita: EVE, Plaza Bizkaia Eraikina, Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48.011 Bilbo. Erref.: EVE-IDAE 2008. PRVV jarrita kartazalean. Bestalde, nahi izanez gero, Suradesak Arrasaten duen bulegoan ere eska daiteke informazioa.

DATUA

**1.650**

**EURO**

Hori izango da etxebizitza bakoitzari emango zaion gehieneko kopurua. Diru laguntzaren zenbatekoa inbertsioaren %22 izango da (BEZ gabeko faktura kontuan hartuta).

LEIHOEN RENOVE PLANA

**> HELBURUA**
Etxebizitzetako energia-eraginkortasuna eta errendimendua hobetu.

**> ONURADUNAK**
Etxebizitza baten jabea den pertsona fisikoa.

**> ESKABIDEA AURKEZTEKO EPEA**
Aurtengo ekainaren 30a arte.

**> ZENBATEKOA**
Etxebizitza bakoitzari emango zaion gehienekoa 1.650 euro da, eta leiho bakoitzeko, 500 euro.

**INTERNET** > 'MERKATUA.NET'

## Martitzenean aurkeztuko dute eskualdeko denden Interneteko saltoki birtuala

'Goiena.net' atariak eskainiko duen zerbitzu berria da 'Merkatua.net' eta 78 negozio ezberdin aurki daitezke

USOA AGIRRE > ARRASATE

Datorren martitzenean aurkeztuko dute *Merkatua.net* webgunea Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten daukan egoitzan. *Goiena.net* Debagoieneko Internet atariak eskaintzen duen beste zerbitzu bat da *Merkatua.net*.

Debagoieneko saltoki birtuala da *Merkatua.net*, denda txikiei zuzendua. Herrietako dendei Internetez euren produktuak saltzeko aukera ematen die *Merkatua.net*-ek. "Negozio bakoitzak horrelako bat egin gura balu, sistema oso bat antolatu beharko balu, ez litzateke errentagarria izango" dio Mireia Larrañagak, Goienako komertzial saileko buruak. Hala, Goienak denda txikiei euren produktuak Internetez saltzeko aukera eskaintzen die *Merkatua.net* webgunearen bidez.

Oraingoz, Debagoieneko 78 negozio ezberdinek dute euren lekua *Merkatua.net*-en eta horietatik 13k dituzte produktuak salgai. Guztira, 200 bat produktu daude: eskulanak, umeendako osagarriak, poltsak, ile-apaindegiko produktuak, altzariak, etxetresna elektrikoak, bitxiak, dekoraziorako produktuak, jatekoak...



Herrietako denda txikien saltokia izango da *Merkatua.net*. GOIENKARIA

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

## Hiri eredua jabetzakoa eta periferikoa da

Begiratu zuen herrietan eta ingurukoetan: herri zein hirietako erdiguneak husten doaz eta gazte uholdeak doaz periferiara.Gazteak eta baita lehenengo etxebizitza saldu eta bigarrena erosi dutenak ere, etxe zaharreren diruarekin ahal bada. Harrizko etxeetan baino ladrillozko (edo pladurdun) etxeetan bizi gara jende gehiena orain, eta herriko plazatik urrun. Eraikitako nukleo konpaktuan biztanle gutxiago dago lotan, eta bizitzen gutxiago oraindik. Arrazoiak hamaika (tasatuak non, babes ofizialekoak non, etxe berrienak non, merkeagoak...), baina ez dakit politika egokia den herriguneei bizilagunak kentzea trukean auzo berriak sortzeko.

Periferian, eta jabetzakoa! GOIENKARIAko zenbaki honetan bertan irakurriko duzu Caixako etxeetan jende gutxik eman duela izena, nahiz eta alokairua ez izan 270 euro baino garestiagoa. Hau ez da pasatzen Danimarkan, esaterako, baina bai Arrasaten. Zenbat ezkerreko eta behar handiko jende dagoen eta, hala ere, inor ez da apuntatu ere egiten toka daitekeen *loteria* honetara. Sinestezina. Gainera, Eskoriatza, Oñati eta Arrasateren kasuan estudianteen etxeak daudenez, ez dute lagunduko etxe libreak alokatzea merke topatzen, ezta etxe libreak merke erosten ere. Hala ere, jabetzakoak dira eskaera handiena dutenak.

Herrigintza eredu sakabanatuegi eta luxuzkoegia dugu.

**"Alokairuan eta merke xamar? Ez, eredu berria jabetzan eta periferian da"**

**> Oñati da berriz ere salbuespenetako bat. Auzo berriak egin aurretik herriko promotoreek erdiguneko etxeak berritu dituzte eta jendea erdigunean bizi da. Erdigunea bizi dago, beraz. Hori bai, Oñatin ere jabetzan dute gehienek etxe berria...**

**> Ekologiari ere ez dio askorik laguntzen sakabanaketak, leku guztietara ura eraman beharrak, etxe baxua, terrenoa eta teilatupean bakarrik bizi gura izanda leku asko behar, asfalto gehiago... Baina herrietarako dirua ladrillotik dator-eta...**



GOIENKARIA

## Aita Menniko langileak protestaka

Aita Menni ospitaleko langileek geldialdiak egiten dihardute. Protesta egin dute zuzendaritzarekin 2008ko enpresa hitzarmeneko akordiorik lortu ezinda dabiltzalako. Ospitaleko langileen lan baldintzak hobetzea eskatzen dute. Nahi dute hurbildu sektore publikoetako langileek kobratzen eta dituzten lan orduetara, "ospitaleko zerbitzu gehienak Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin hitzartuta daudelako".

Iñaki Barcena EHUko Zientzia Politikoetako irakaslea da. Horrez gain, Ekologistak Martxan taldeko kidea ere bada Barcena. 2004an Ekologistak Martxan taldearen barruan zor ekologikoaren inguruko batzordea sortu zuten. Batzordeak bultzatuta 'Nork nori zor?' dokumentala ekoiztu zuten 2007an. Eguaztenean Aretxabaletan izan zen, dokumentala erakusten.

**Iñaki Barcena** > Ekologistak Martxan

# "Gure gobernu eta enpresek zor ekologikoa dute herrialde txiroekin"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARETXABALETA

**Aretxabaletako Udalak antolatutako ingurumenaren hilabetearen barruan, zine ekologiko zikloa egingo dute hilabete osoan. Eguaztenean egin zuten lehenengo emanaldia; Iñaki Barcena izan zen gaiaren inguruan berba egiten eta ikusleen artean sortutako eztabaida gidatzen.**




Iñaki Barcena EHUko irakaslea eta aditua Arkupen izan zen eguaztenean. ARANTZAZU EZKIBEL

**Zor ekologikoaz berba egin duzu Aretxabaletan. Baina zer da zor ekologikoa?**

Duela pare bat urte dokumental bat egin genuen Ekologistak Martxan elkartean, zor ekologikoa zer den azaltzeko. Esan daiteke mugimendu ekologistatik, herri mugimendutik sortutako kontzeptua dela, edo kontrakontzeptua. Herrialde txiroek eskatutako maileguak direla-eta, Lehenengo Munduko banku, instituzio eta gobernuekin zorrak dituzte.

Kontrakontzeptu bezala, herrialde haiekiko guk daukagun zorra zein den azaltzen dugu dokumentalean. Hainbat aspektu kontuan hartuta, gure gobernu eta enpresek dituzten zorrak dira zor ekologikoa.

Guk azaltzen dugu zor ekologikoa oinarritzen dela karbono dioxidoaren isurketetan; adibidez, Kiotoko Protokoloak markatzen dituen ildo horietatik behar duguna baino askoz gehiago kutsatzen dugu eta horrek merkatuan bere prezioa du. Hau da, $CO_2$ tona bakoitzak bere prezioa du merkatuan.

Bestalde, zor ekologikoaren barruan daude elikagaien soberanotasuna, Hirugarren Mundura eramaten ditugun hondakin toxikoak eta biopirateria.

**Azaldu zer den biopirateria.**

Indigenek edo Hirugarren Munduko nekazariek beti erabili izan dituzten botika edo haziak lapurtzen dituzte enpresa farmazeutikoek, eta Lehenengo Munduko instituzioen esku geratzen dira. Hori zor ekologikoa da. Zor horiek kitatzeko alternatibak zeintzuk diren planteatzen dugu.

**Zine ekologikoaren helburua hausnarketa bultzatzea da?**

Bai, hori da Aretxabaletako Udalak hartu duen jarrera. Guk 2007an eta 2008an ekozinemaldi pare bat antolatu genituen; lau hiriburutan eta baita beste herri batzuetan ere. Kutsu ekologikoa duten dokumentalak eta pelikulak jartzen ditugu ziklo horietan. Pentsatzen dugu jendearekin harremanetan jartzeko bide egokia dela zinea; hau da, gure kezka eta kanpainak zabaltzeko modu egokia da.

**Ingurumena gero eta garrantzi handiago hartzen dabil gizartean. Baina hartzen diren neurriak nahikoa dira?**

Orain krisi egoeran gaude eta badirudi ekonomia eta finantza krisia bakarrik dela; adibidez, etxebizitzen krisia. Baina hazkunde krisi horrek adierazten du ekologismoak planteatzen duena: ama-lurra ez dela infinitua, mugak dituela.

Oso polita da ingurumenaren eguna ospatzea, edo oso politak dira mezu instituzionalak; baina eguneroko planteamenduak dira AHT, Jaizkibelgo portua eta errepide eta auto gehiago. Hazkundearen politika ekonomikoak ez dira zuzenak, eta hori da guk planteatzen duguna. Arazoa ez dago Hirugarren Munduan; arazoa guk martxan ipinitako produkzio eta kontsumo sisteman dago. Sistema horrek ezinbestean eragozten du bizimodu naturalagoak direnak martxan ipintzea.

Alor energetikoan gero eta gas gehiago ekartzen dugu, gero eta petrolio gehiago kontsumitzen dugu, eta hori ez da posible. Bestalde, Hirugarren Mundutik ekarritako soja, garia etab. ere ez dira irtenbide egokiak. Euzki eredua da irtenbide bakarra. Horrelako planteamenduak egiten ditugu dokumentalean, eta uste dugu hori dela instituzioek hartu behar duten bidea.

**Gehiegikeriaz betetako gizartean bizi gara. Ze eragin du horrek?**

Garapenean eta kontsumoan oinarritzen den sisteman bizi gara, eta hori ez da bidea. Gauzak berregokitu egin behar ditugu eta beste modu batean banatu. Gure partetik, zor ekologikoaren inguruan planteatzen den leloa da deshazkundea; nolabait esateko, bizi dugun hazkunde ekonomiko horri balaztak ipini eta bide horretatik txarto goazela esan gura dugu.

**Ekologismo soziala bultzatzen duzue. Zeintzuk dira ardatzak?**

Ez ditugu banantzen gizartea eta natura. Gure ustez, guztiz batera doaz biak. Egiten ditugun planteamenduak batera doaz; horregatik, parke naturalak egiten direnean, naturaren aldeko taldeak ez dira konturatzen energia eta garraioa bezalako politikak ezin direla egin hirietan bakarrik. Lotuta dago gure energia eredua naturarekin.

Ekologismo sozialaren beste abiapuntu bat da korronte espiritualistetatik aldentzea. Guk uste dugu gizakia gizartearen arduradun nagusia dela. Beste animalia guztiak errespetatuta, uste dugu gure ekologismoaren abiapuntua gizakia dela. Gizartearen eta naturaren arteko harreman naturala bilakatzen dugu; banandu gabe.

---

KIOTOKO PROTOKOLOA

**"Kontsumitzen dugunagatik, $CO_2$ tona bakoitzak bere prezioa du merkatuan"**

BIOPIRATERIA

**"Hirugarren Munduko nekazariek beti erabili dituzten botika eta haziak hartu ditugu"**

NEURRIAK

**"Neurriak oso politak dira; baina eguneroko plateamendua AHT eta Jaizkibelgo portua dira"**



zabalik

**Juan Martin Elexpuru**

# Ziklo-krosa ikusten

Hotz galanta egin arren, ezin Osintxura arrimatzeko tentaziñuari eutsi joan dan zapatuan. Mendiko botak jantzi eta gustora ibili giñan zelairik zelai lokatza artian. Zirkuitua ikusgarrixa zeuan, edurra zuri eta mariatzeko beste jira-bira zelaixan korredoriendako.

7-8 laguneko kuadrillia juntau giñan, ixa danok 50-60 urte bittartekuak. Zaharrenok antziñako Bergarako ziklo-krosarekin akordatzen giñan, 1957-65 tarte inguru horretakua geunkan goguan. Haura zan ikuskizuna! Ixa gaur eguneko Formula 1eko karreretan beste jente. Txaratik Ipintzara jaisten zien zelaixan behera zuzenian, gero Poligonotik zihar (artian etxe gutxi zeuan) San Martzialeko bidia hartzeko. Gu mutikuak, eta muna azpiren baten egoten giñan, eta haura gozamena baten bat muturrez aurrera jausten zanian. Anton Barrutia eta Talamillo zien gure idoluak. Wholsfol alemana eta Renato Longo italiarra munduko txapeldunak be uste dot urte baten korridu zebela. Geruago, Mendijur urretxuarrak irabazten zeban beti. Gizajua Bergarako jaixetan, Pentekoste Sarixa korritzen garbittu zan, Eitzaga jaisten, auto bat jota.

**"Lokatzako antolatzaileak berriz, beti bezela, bikain"**

Lau karrera Osintxun, 300 korredoretik gora, bazter guztietatik etorrittakuak. Badagola afiziñua! Kadetetan Aristi bergararra irabazle eta emakumetan Jone Mujika elgetarra bigarren. Ikuskizun ederra. Adoria eta indarra bihar zan lokatzarte hartan aurrera egitteko. Eta karreria akabau eta gero be bai: lokatzatan errebozauta norbera eta bizikletia, eta eitten zeban hotzakin hasi hadi mangera baten billa. Baina gustoko lekuan lokatzarik ez.

Eta Lokatzako antolatzaileak berriz, beti bezela, bikain. Eskerrik asko.

usteak uste

**Larraitz Zeberio**

## Ardi latxen artaldea Chiloe irlan

Chilozabal gazta dastatuko nuke gustura. Arantzazuko artzain eskolan ikasia den Rafael Maripan maputxeak ekoizten du, Josune emaztearekin batera. Gazta berezia da; izan ere, Chiloe irlan egindakoa da, Euskal Herriko ardi latxen esnearekin. Iñaki Segurolak dio ez dagoela alderik eskolako beste ikasle batzuek hemen ekoiztutako Idiazabal gaztekin. Jakin dut ekoizten dituzten 700 kiloak ez direla eskaria asetzeko nahiko. Internet bidez eros daiteke.

plazara

**Arantza Etxeberria** > Arizmendi ikastolako pedagogia arduraduna

# Ikasys proiektua

Aurreko ikasturtean, 2007-2008 ikasturtean, Ikasys proiektuan parte hartu zuten ikastoletako hainbat irakaslek asmo horretarako jarduerak prestatuz; tartean, Arizmendi ikastolako lau irakaslek. Konfederazioak kontuan izan zuen ahalegin hura eta esperimentaziorako eskaintza egin zigun. Guk, gure ikasleentzat onuragarria iritzi genionez, poztasunez onartu genuen. Bestalde, Hezkuntza Proiektuan Informazio eta Komunikazio Teknologiekin dugun erronkari erantzuteko aukera ezin hobea ikusi genuen.

Esperimentazioan Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailetako ikasleak ari dira Hizkuntza, Gaztelania, Ingelesa, Matematika eta Ingurunea lantzen, egunero ordu erdiko saioak eginez.

Ikasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarriarekin lan egiten du. Ikasbook izeneko tresnaz baliatzen ari gara. Wi-fi konexioa duten ekipo praktikoak dira, arinak eta tamaina txikikoak. Software aldetik, jarduera baliagarriak eskaintzen ditu ikaskuntzan.

Hezkuntzaren arazo nagusietako bat da bakoitzaren erritmoari nola erantzun. Bada, Ikasys proiektuak teknologien bitartez ematen dio erantzuna arazo horri. Aniztasunari erantzutea da proiektuaren helburu nagusienetako bat, autonomiaren garapenarekin batera.

Ikaslearen gaitasuna eta ahalmena kontuan izanik, kontratu didaktikoa egiten du irakasleak ikaslearekin. Haur bakoitzak arrakastaz lortzeko moduko jarduerak izaten ditu bere mailari egokituta eta autoerregulazioz egin ditzake. Aldi bereko zuzenketa horrek ikaslearen motibazioa areagotzen du.

Ikaslea lanean ari den bitartean, irakasleak lana gainbegiratzen du eta behar duen laguntza ematen dio ikasleari. Ikasys proiektuko sistemak, ikasle bakoitzaren jarraipena errazten du, izan ere, ikasleen jarduera guztiak metatuta gelditzen dira datu basean.

**"Hezkuntzan informazio eta komunikazio teknologiekin dugun erronkari erantzuteko aukera ona da Ikasys"**

Ikasys proiektuan parte hartzen ari diren 17 ikastoletako irakasleentzat hasiera ez zen erraza izan. Ohi bezala, ezezagunaren aurrean beldurra eta kezka nagusitu zen. Hala eta guztiz ere, dagoeneko, lan-saioak normalizatzen hasi direnez, seguruago sentitzen dira 17 irakasleak.

Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako ikastoletako ikasle guztiei zabaltzea espero dugu. Aurten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jarduerak prestatzen ari gara ikastoletako irakasleak. Hori horrela, urtebete barru Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere jarraipena izango du Ikasys proiektuak. Proiektu berritzailea eta garrantzitsua delako Espainiako Hezkuntza Ministerioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu dute proiektua.

marrazkiz

**Unai Busturia**



Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# 'Kanto' etxean nahi dugu

**Jose Luis Loidi Larrañaga**
(Kantoren lagun koadrilaren izenean)
Bergara

Herritar asko konturatuko zineten Gabon hauetan preso honen askatasuna exijituz afixa batzuk jarri direla Bergarako kaleetan. Kartel horiek jarri ditugunok bere lagun talde txiki bat izan gara, eta gure hurrengo erronka aldarrikapen honen aldeko herri ekimen ahal den sendo eta anitzena egituratzea izango litzateke.

Kanto 1988an atxilotu zuten, eta 15 urte preso egon ondoren, zigorraren 3/4ak beteta (Espainiako kode penalak dioen bezala) Rut Alonso epaileak aske uzteko agindua eman zuen. Horrela, 2003ko urtarrilean gure artera bueltatu ahal izan zuen, eta bere bizitza berriro ere antolatzen hasi zen. Fagor-en lehengo lanari ekin zion jardunaldi erdiz, eta beste erdia masajeak ematen bere kabuz jardun zuen, edozein modutan ere bizimodu guztiz normala egiten.

Txiroaren etxean poztasunak gutxi irauten du, ordea, eta kaleratutako urte bereko abenduan (egoera politikoaren araberako mendekuzko erabaki judizial baten bitartez) berriro espetxeratu zuten zigorraren laurdena betearazteko; bere zigor osoa betearazteko, alegia.

Berriro kartzelaratu zutenean, kondenaren likidazioa eman zion espetxeko zuzendaritzak; non horren arabera, 2007ko urriaren 8an bere zigor osoa beteta kaleratu beharko zen. Denbora bitarte horretan, aldiz, Parot izenarekin ezagutarazi duten doktrina aplikatzen zaio (beste zigor berri bat, nahiz eta delitu berririk inputatu ez) eta 2007ko urritik hor jarraitzen du bahituta, eta horrela jarraitu beharko du, hemen kalean ezer egin ezean 2018ko apirilaren 8ra arte, hau baita Audientzia Nazionalak ezarritako propina.

Injustizia handi honi amaiera emateko xedearekin, *Kanto* etxera! herri ekimena antolatzea nahi dugu, eta hor bergarar guztien laguntasun espero dugu.

# Geurea Ikurriña!

**Iker Dorronsoro**
(Bai Euskal Herriari ekimenaren izenean)
Bergara

Ikurriña, Luis eta Sabino Arana anaiek sortu zuten 1894. urtean. Hasiera batean, Bizkairako ikurra bazen ere, gerora zazpi lurraldeena izatera pasa zen. Geroztik eta urteetan zehar euskalduntasuna, erresistentzia eta lurraldetasuna batu dituen ikurra izatera iritsi da Ikurriña. Hori dela eta, azken 100 urteetan, Frantzia eta Espainiaren jomuga izan da.

Ehun eta hamalau urte luze hauetan, Ikurriñarekiko jarrera ezberdinak izan dira. 1931. urtetik 1936. urte arte ikur ofiziala izan zen, baina 1936 urtean II. Errepublikaren aurka eman zuten estatu golpearen ondorioz, legez kanpo utzi zuten.

Gerra Zibilak (1936-1939) iraun zuen bitartean, euskal gudarien ikurra izan zen Ikurriña. Ondoren, Frankoren diktaduraren garaian gogorki erasotua izan zen; honegatik ere, Ipar Euskal Herrian ezaguna egin zen Ikurriña. Frankismoaren azkenetan eta herri ekimenek eraginda, poliki-poliki Ikurriña berriro ere toki publiko zehatzetan agertzen hasi zen, segidan kentzen bazuten ere. Hala ere, Franko hil eta gero errepresioa ez zen amaitu, trantsizio garaian ere gogor erasotua izaten jarraitzen zuen. Zergatik eta bizirik zegoen herri baten ikurra zelako.

Gaur egungo egoera gordina da, Frankismoaren garaietara itzuli garela esan genezake. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan Ikurriña mamiz hustu eta folklorearen baitan ito nahi duten ikur gisa darabilte, betiere izaera ofizialeko kokaguneetatik urrun.

Nafarroa Garaian Ikurriña legez debekatuta dago. Beraz, ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan jartzerik. Gainera, Nafarroa kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan espainiar ikurra jartzera behartzen gaituzte.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan berriz, Ikurriña, espainiar agintarien menpeko ikurra dela agertu nahian, instituzio publiko guzietan Ikurriñaren ondoan espainiar bandera jartzera legez behartu nahi gaituzte. Batzuek beti bezala legedi atzerritar eta inposatu bati men eginez atzera begiratu gabe erdi ezkutuan eta hauts asko harrotu gabe inposizioa onartu dute, Donostian gertatu zen bezala Odon Elortza alkate demokratarekin.

Egoera honen aurrean zera esan nahi diegu debagoienar guztiei, inoiz baino garrantzitsuagoa dela jaietan Ikurriña etxeko balkoitik zintzilikatzea. Egun eskualdeko hainbat udaletxetan Ikurriña ikusgai bada ere, gutxika Euskal Herri osoko udaletxetan bandera espainiarra jartzeko apustua egina dute Madrildik, jada iritsi da otsoa herri batzuetara, bil ditzagun gure indarrak otsoa gure etxe atarira iritsi baino lehen.

Denon artean indarrak bilduz. Herri babesa antolatu behar dugu, gure ikurren defentsa egiteko eta Ikurriñak bere lekua berreskuratzeko.

Lege inposatzaileen gainetik, herriaren borondatea eta nahia errespetatu behar dira.

# Pedro Balanzategi oroituz

**Marilu Ajuria, Mari Jose Unzueta, Jesus Mari Arze, Josemari Velez de Mendizabal**
(Eta 1949an jaiotako zure adiskide guztiek)
Arrasate

Pedro: Joan zara, hain justu, hirurogeiak egingo ditugun urteari hasiera eman diogunean. Ilusioarekin diseinatu genuen iragan urriaren 18ko ohiko kinto-bazkarian, 2009ko gure egun berezia ospatzeko egitaraua. Eta denon artean ekiteko plana zen, baina heriotzak -erreakzionatzeko aukerarik ez dizula eman- eraman zaitu gugandik urrun. Ez goaz orain lantuzko hitzik idaztera. Ez. Badakigu ez zenuela onartuko. Baina, agur laburra bada ere, sentimenduz betea doakizu, lagunak izan baikara eta adiskide gisa dagokigu adieraztea, ez zaitugula ahaztuko.

Txiki-txikitatik ibili gara bata bestearen ondoan... eta aspaldikoak izateak eskainitako elkar ezagutza sendo aberatsak markatu gaitu. Arrasate berezi samar baten aldakuntzaren testigu zuzenak izan gara gure belaunaldikook, baina zure talaia propioa ere berezia izan da eta bilakaera horretaz beste inor baino hobeto jabetu zara. Mundrautartasunean bizi izan zara eta izaera horri heldu diozu azken hatsa eman arte. Elkarrekin izan genuen azken aukeran ere, besteak beste, gure herriaren etorkizuneko erronkaz aritu ginen. Orain bidea zu gabe egin beharko dugu.

Hirurogeietara sartuko gaituen -sartuko zintuzkeen- urte honen hastapenetako albiste txarra izan da gure arteko zure desagerpena. Bizitzak, dena den, aurrera segitzen du eta, zure baimenarekin, aldez aurretik pentsatuta zegoen bezala programa betetzeari ekingo diogu. Ekintzak nola goazen burutzen jakinaren gainean ipiniko zaitugu. Behintzat, zauden toki horretatik gurekin konekta dezazun... Bai, bai, lasai, zabalik edukiko dugu-eta konexioa!

Agur, Pedro. Eta txintxo izan!

# 'Loco' Abreu

**Mikel Fernandez**
Arrasate

Badator Uruguaiko *zoroa*. Txuri-urdinak lehen mailara igotzen lagunduko ei du. Necati turkiarrak sartu ez dituen golak sartuko ei ditu. Eta, ekainean, Reala izango da lehen mailan. Eta klubak ez ditu salduko bere harribitxi preziatuenak. Ametsak!

Turkiarrak 15 gol agindu zituen; bat bera ere ez du sartu. Uruguaiarrak dio bere golekin lehen mailara igoko direla. Egia bakarra da golak sartu dituztela harrobiko aurrelariek.

Ametsak amets: aurrera mutilak, aurrera txuri-urdinak!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55


FINALA
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
DANBAKA
III. MUSIKA LEHIAKETA
SARRERAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2 > 22 EURO 3 > 30 EURO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM
urtarrilak
16
EGUBAKOITZA
22:30
ADI HOLDEN
BERGARA
THE WET BAND
MUTRIKU
NORMAN
EIBAR / ONDARROA
TALDE GONBIDATUA
PETTI & BANDA ELEKTRIKOA
LEHIAKETATIK KANPO
ETORRI KONTZERTURA ETA IRABAZ EZAZU SNOW OHOLA!
Emanaldiaren amaieran ezagutaraziko dira Danbaka lehiaketako irabazlea, Debagoieneko onena eta ikusleak aukeratutako talderik onena.
BABESLE NAGUSIA
gaztekutxa
LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgetako Udala
Lazkano
laino
SHOT!
gaztelupeko HOTSAK
www.hotsak.com
GIARTZU
LORAMENDI KIROLAK INTERSPORT
SEIN
eta kitto!
B
anboto
ANTOLATZAILEAK
Goiena
espaloia


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda











**> ARRASATE** Caixako etxebizitzen zozketarako epea luzatu dute **> 14**

**> BERGARA** Boluko igogailuak eta Bideberriko kanalizazioa lehentasunen artean **> 18**

**> ARETXABALETA** Kirol etxeko aurreko aldea hasi dira botatzen aste honetan **> 24**

**> LEINTZ GATZAGA** Alegazio bi aurkeztu dizkiote Arlaban gaineko planari **> 33**


**OÑATI** > AZPIEGITURAK

# Oñati-Zubillaga saihesbidearen proiektu idazketa martxan jadanik

Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, amaituko da proposamenak aurkezteko epea

Etorkizunean, Zubillaga eta Epele artean tunel bat egitea da Oñatiko Udalaren ametsa

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Oñatiko saihesbidea osatzeko falta den zatia martxan dagoela esan daiteke. Gipuzkoako Diputazioak Oñati-Zubillaga arteko saihesbidearen trazatua eta eraikuntza proiektuen idazketa lizitaziora atera zuen Gabonen aurretik. Hain zuzen ere, joan den abenduaren 10ean argitaratu zen deialdi publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta datorren egubakoitzean, hilaren 23an, amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

**JARRAIPENA**

Esan bezala, Belatxara gasolindegia eta Madalenako errotonda, Zubillagan, lotuko dituen saihesbide berria orain artekoa osatzera dator. Aurreneko zatia aspaldikoa da, Bidaurreta eta Belatxara artekoa hain zuzen, eta ondoren, orduko beharrengatik, hasiera baten hirugarren zatia etorri zen, Zubillagako saihesbidea, 2004an zabaldu zena.

Bigarren fasea izan behar zena, beraz, azkenerako uztea erabaki zuten erakundeek. Zubillagako saihesbidearen jarraipena izango dena Madalenako errotondan hasi eta Belatxara gasolindegiaren inguruan amaituko da. 2,5 kilometro inguru izango ditu errepideak, Stadler eta Lana lantegien atzetik, Munazategiko industrialde berriaren hegoaldetik, Torreauzo eta Santxolopetegi auzoak zeharkatuz eta Arantzazu errekaren hegoaldetik. Hain zuzen ere, Torreauzotik Olatera doan errepidea zeharkatuko du eta Arantzazu erreka baita. Angel Biain Oñatiko Udaleko Hirigintza zinegotziaren hitzetan, "oraindik ikusteko dago zer nolako soluzioa ematen dioten saihesbideari aipatutako tokietan, nolabait esateko puntu gatazkatsuak baitira. Oraindik goiz da horri buruz berba egiteko". Gipuzkoako Diputazioak egindako deialdian zehazten denez, adjudikazioa egiten denetik 11 hilabeteko epea finkatzen da saihesbidearen trazatua eta eraikuntza proiektuak idazteko. Lizitazio aurrekontua 210.000 eurokoa da.

**BIZPAHIRU URTE BARRU**

Oraindik ere luze joko du Oñati-Zubillaga saihesbideak. Behin proiektua idatzi ondoren, ohi denez, jendaurrean ikusgai jarriko da, herritarrek bidezkoak izan daitezkeen alegazioak jartzeko aukera izan dezaten. Alegazioak aztertu eta behar den kasuetan soluzioa eman eta gero, eraikuntza lanak esleitzeko deialdia egingo du Diputazioak. Gauzak horrela, bizpahiru urte igaro daitezke oraindik obrak hasten direnerako. Hura amaitutakoan Azkoagain eta Olabarrieta arteko zatia egiteko geratuko da, baina ez da ziurra inoiz egingo den.

**ZUBILLAGA-EPELE TUNELA**

Angel Biain zinegotziaren arabera, Oñati eta Zubillaga arteko zatia amaitutakoan, gaurko bidea herritarren erabilerarako bideratzea da asmoa: "Bide lokala izango litzateke gaurkoa eta, logikoa denez, zirkulazio gehiena saihesbideak jasoko luke".

Oñatiko Udalak badarabil beste asmo bat eskuartean, Angel Biainek azaldutakoaren arabera premia handia duena. "Gure ametsetako bat Zubillaga eta Epele artean tunel bat egitea da eta behin eta berriz horren beharra azpimarratu diogu Diputazioari. Autopistara konektatu beharra daukagu lehenbailehen. Zirriborro batzuk eginda ditugu eta 1,2 km-inguruko tunela litzateke. 2015-2020rako agian...".




**SAIHESBIDEA OSATU** Irudian, Oñati eta Zubillaga arteko saihesbideak izango lukeen trazatua. KONTZEJUPETIK

**AZPIEGITURAK** > ETXEAK

# Caixako etxebizitzen zozketarako izena emateko epea luzatu egin dute

Uste baino jende gutxiagok eman du izena alokairuzko etxebizitza horietan

Gelmako eta Uribarriko etxeen zozketa martxoan egingo dute


Caixako etxebizitzen obrak bide onetik doaz, argazkiak erakusten duen moduan. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Kezkatuta daude Caixako Etxebizitza Eskuragarrien Programan. Kezkatuta, uste baino jende gutxiagok eman duelako izena Zerrajera gunean eraikitzen dabiltzan 148 etxebizitzen zozketan parte hartzeko. "200 eskaera daude onartuta, bete beharreko baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileenak", azaldu du Mireia Ferrerrek, Caixako Etxebizitza Eskuragarrien Programako zuzendariordeak. Eta halako promozioak egin dituzten bestelako lekuetan askoz ere eskaera gehiago izan dituztela kontatu du. Arrasaterako, adibidez, aurreikusita zuten 500-600 eskatzaile lortzea. Baina ez da horrela izan, zozketan parte hartzeko baldintzak erraztu egin dituzten arren. "Dagoeneko adintartea ere zabaldu dugu; hau da, zozketan parte har dezake edozein adinetako herritarrek", azpimarratu du Caixako ordezkariak. Beraz, ez dituzte bakarrik onartuko 35 urte baino gutxiagoko gazteak eta 65 urte baino gehiagoko nagusiak, baizik eta 35 eta 65 urte bitarteko eskatzaileak ere bai.

**URTARRILAREN 30ERA ARTE**

Hori batetik. Izan ere, bestetik, luzatu egin dute zozketarako izena emateko epea. Berez, gaur, urtarrilak 16, zen azkeneko eguna, baina orain, urtarrilaren 30era arteko astia emango dute, "jendeari marjina handiagoa emateko".

**ZOZKETA, MARTXOAREN 26AN**

Bestela, aurreikusitako gainerako datek lehengo berean segitzen dute. Hau da, etxebizitza horien zozketa martxoaren 26an egingo dute. Eta etxeak, berriz, aurtengo uztailean edo abuztuan entregatuko dituzte; izan ere "obrak bide onetik" doazela jakinarazi du Caixako ordezkariak.

**BALDINTZAK ETA ESKAERA ORRIAK**

Zerrajeran errentan emateko 148 etxebizitza eraikitzen dabil Caixa. Babestutako errenta izango dute: hilean 270 euro baino gutxiagokoa. 40-50 metro koadrokoak izango dira, eta gela bat edo bi izango dituzte. Esan bezala, zozketa bidez adjudikatuko dituzte, bost urterako. Eta zozketan parte hartzeko baldintza batzuk bete behar dira: Etxebiden izena eman beharra dago, eskatzailea ezin da izan beste etxebizitza baten jabe eta, besteak beste, gutxieneko diru-sarrerak izan behar ditu: 2006an 3.000 euro baino gutxiagoko sarrerak izan zituztenek ezin dute izenik eman.

Eskaerak aurkezteko inprimakiak La Caixaren bulegoetan edo Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskura daitezke.

GELMA (ZABALGUNEA) ETA URIBARRI

## Gelmako eta Uribarriko etxeen zozketa aurten

Aurten (data zehaztu barik) zozkatuko dituzte Gelmako eta Uribarriko babes ofizialeko etxebizitzak. 175 etxebizitza dira: 131 eraiki dituzte Gelman eta gainerako 44ak Uribarrin. Etxebide arduratuko da zozketa egiteaz. Edozelan ere, etxebizitza horietarako izena emateko epea itxita dago. 2008ko ekainaren 30a baino lehen Etxebiden izena emanda duten eskatzaileak sartuko dira. Zerrendak ikusgai daude Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan.

Zozkatuko dituzten 175 etxebizitzetatik 75 izango dira lau urteko antzinatasuna duten eskabideendako; 65 etxebizitza izango dira 25 eta 35 urte bitartekoendako eta beste zortzi elbarriendako.



**bere ustez**



Jose Riviere

# KPIren igoera dela-eta

Kontsumo Prezioen Indizea, KPI, %2,5ean geratu da erretiratuendako 2008an, eta langileendako %1,5ean. Ulertzeko zaila da hori, urtarrilean %4,3an hasi zen KPI, ekainean %5era iritsi zen eta uztailean %5,3ra. Abuztuan hasi zen jaisten; azaroan %2,4ra iritsi zen eta abenduan %1,5ean geratu zen. Ez diezaiogun bakarrik errua bota petrolioaren igoerari.

Abenduaren 18an Arrasatetik Donostiara joan nintzen, autobidetik. 5,55 euro ordaindu nuen bidaia. Urtarrilaren 8an bide bera egin nuen, 5,81 euro ordainduta. Beraz, %4,684ko igoera aplikatu dute.

**"Zela daiteke errepideen KPI pentsiodun eta erretiratuen KPIren bikoitza izatea?"**

Ez dut ulertzen zela herritarren eta erabiltzaileen ekarpenekin eginda dauden errepideek erretiratu eta pentsiodunen KPIren bikoitza izan dezaketen, edo langileen KPIren hirukoitza. Hori aipatu barik kontsumorako bestelako artikuluak, bereziki premiazko produktuekin gertatzen den moduan.

Oso posible da KPIren igoera eta jaitsiera horiek pentsioak edo soldatak ez igotzeko estrategia politikoa izatea. Edo neurri horrekin krisiari aurre egin gura izatea, errua herritar arruntena izango balitz moduan. Betiko moduan, ondorioak guk ordainduko ditugulako.



Orain arte, egokitutako taxi bakarra Bergarakoa izan da ibarrean. OIHANA ELORTZA

**ZERBITZUAK** > TAXIAK

# Zailtasunak dituztenendako taxia izango da Arrasaten

## Bergaran dago Debagoieneko egokitutako taxi bakarra; beraz, Arrasatekoa bigarrena izango da

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak auto-taxi lizentzia adjudikatzeko lehiaketa zabaldu du. Baina ez da taxi arrunt baten lizentzia izango, baizik eta bederatzi plazako taxi irisgarria da Udalak adjudikatu gura duena. Bestela esanda, zailtasunak dituztenendako egokituta dagoen taxiaren lizentzia atera dute lehiaketara.

Interesdunek urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Gero, lizentzia zeini emango dioten erabakiko dute oposizio-lehiaketa bitartez.

**EUSKARA ETA IRRATI-TAXIA**

Hala, lehiaketa horretara aurkeztu ahal izateko, hainbat baldintza bete beharko dira. Adibidez, BTP klaseko edo haren baliokidea den gidabaimena izan behar da, edo bestela hortik gorago kategoriako gidabaimena. Baloratuko dute, berriz, euskaraz jakitea, herria ezagutzea eta Diputazioaren irrati-taxi zerbitzuan sartzeko borondatea izatea.

**AURTEN MARTXAN**

Behin lizentzia adjudikatuta bi hilabete baino lehenago hasiko dira zerbitzua ematen taxi irisgarrian. Dena dela, burokraziaren prozedura kontuan hartuta, Udaletik esandakoaren arabera, zaila da zehaztea noiz hasiko den martxan taxia, baina saiatuko dira uda ingururako martxan izatea.

**ZERBITZU MESEDEGARRIA**

Hasieran Arrasateko erabiltzaileendako da taxia, baina Agitax-en (taxilarien sindikatua) eta Diputazioaren nahiak kontuan hartuta, ibar osorako erabiliko dute.

Arrasaten 11 taxi-lizentzia daude, horietako bat hutsik; horregatik deitu dute lehiaketa, hutsik dagoen lizentzia hori emateko. Egokitutako taxi zerbitzua bultzatzearen arrazoiak, berriz, bi dira: legeak hala esaten duelako eta "pentsatu dugulako mesedegarria izango dela", azaldu dute Zerbitzu Sailetik.

> HEZKUNTZA

### Arizmendi ikastolak egoitza nagusia Arrasaten izango du aurrerantzean, Ferixalekuan

Lanbide Heziketaren eraikin berean izango du aurrerantzean Arizmendi ikastolak egoitza nagusia: Ferixaleku gunean. Zuzendaritzako bulegoak eta zerbitzu orokorretako sail guztiak (idazkaritza, administrazioa, komunikazioa, informatika eta beste) Aretxabaletako Otalora jauregitik Arrasatera ekarri dituzte, beraz. Hori bai, Arizmendi ikastolaren posta elektronikoak eta telefono zenbakiak orain arteko berak izaten jarraituko dutela abisatu dute; honakoak, beraz: *arizmendi@arizmendi.ikastola.net* eta 943 77 20 25.




JON BEREZIBAR

### Aurpegi berria, eskaintza bera

Aurpegi berria aurkituko dugu aurrerantzean Erdiko kaleko Muruamendiaraz gozotegian, baina mostradorearen atzean betiko hostopil eta bonba gozoak aurkituko ditugu. Izan ere, negozioa eskualdatu eta Ogiberri kateak hartuko duen arren, saltokiaren esentzia gorde egingo dute, berritasunekin: adibidez, aurrerantzean ogia erosi ahal izango da.

ILE-APAINDEGIA
MISTOA
virginia.L


Astegunetan ordutegi jarraia: 9:30 - 19:00
Larunbatetan 8:00 - 13:30 aurretik txanda hartuta.
PROMOZIO BEREZIAK!
Otsailean, gizonen ile mozketa: 6€
Astelehenetan, asteartetan eta asteazkenetan.
Lapurdi 3 ARRASATE Tel.: 943 79 65 65

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



Itziar Rekaldek *Bidaiek ez dute itzulera* ipuina, martitzenean. EKIN ELKARTEA

**GIZARTEA** > KULTURA ANIZTASUNAREN ASTEA

# Umeendako ipuin kontaketa Miren Camisonen eskutik

## Halako aste bat egiten duten lehen aldia bada ere, balorazioa positiboa dela adierazi digute

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Gaur amaitzen da Ekin emakumeen elkarteak aste guztian Kulturaten antolatu duen kultura aniztasunaren astea.

**HAINBAT EKINTZA**

Heldu zein umeendako ipuinak, ikus-entzunezkoak eta tailerrak izan dira. Gainera, dohainik. Maite Uribarren Ekin taldeko ordezkariak hauexe adierazi digu: "Bost urte gabiltza kultura aniztasunarekin lanean, baina aurten erabaki dugu honen gaineko astea egitea". Bi egun umeei zuzendu zaie –eguena eta gaurko ekintzak– eta beste bi helduendako izan dira. Uribarrenek adierazi digunez, "antolatu ditugun ekintza horiekin jendeak aukera dauka beste leku batzuetako kulturak nolakoak diren ikusteko".

**GAUR AZKEN EKITALDIA**

Gaur, egubakoitza, azken ekitaldia egongo da. Hain zuzen ere, Miren Camisonek umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du 17:30ean, Jokin Zaitegi aretoan.

Datorren urteari begira kultura aniztasunaren asteak izan dezake jarraipena, baina oraindik ez dago ezer zehazturik alde horretatik.

**bote prontuen**

**Amaia Fernandez** > Amuebladora Mondragonesako gerentea

# "Egun ez zaio etxearen apainketari lehen besteko garrantzirik ematen"

**J.Z.** > ARRASATE

**Amaia Fernandez Amuebladora Mondragonesako gerentea da. Badaramatza urte batzuk bertan lanean. Saltzen dutenaren, krisiaren eta apainketa modaren gainean hitz egin dugu harekin.**



**Zuek, talde handia izanda, besteak beste etxerako altzariak eta sofak ere saltzen dituzue. Zein da 2008aren balorazioa? Nabaritu da krisia?**

Balorazio oso positiboa izan da. Hala eta guztiz ere, jakin badakigu azken bi hilabeteetan salmentek geldialdia izan dutela. Egoera horrekin tentuz ibili behar dugu datozen hilabeteetako aurreikuspenak ez dira-eta oso onak.

**Etxea apaintzeko orduan, bezeroen nahi eta lehentasunak asko aldatu direla?**

Egun ez zaio etxearen apainketari lehen besteko garrantzirik ematen. Beharbada, lehenago da bidaia on bat egitea, auto eder bat erostea… Aisialdia, orokorrean. Baina etxea apain eduki behar da. Gaur egun gure bezeroek nahiago izaten dute etxeko altzariak noizean behin aldatu.

**Nondik has gaitezke etxe bat apaintzen?**

Zerbitzu ona emateko, ezinbestekoa da bezeroarendako egokiena izan daitekeen hori topatzea, haren nortasunarekin doana.

**Altzarien materiala nola aldatu da azken urteetan?**

Lehengo garaietan altzariak egur trinkoan egiten ziren, material ona baina pipiek *jateko* erraza. Gaur egun, guztiak denak mota askotariko egurretan xaflatuta datoz, eta garrantzitsuena diseinua da. Esan daiteke, aurrerapen gehien diseinuan egin dela, bai eskaintzak egiteko eta baita saltzeko orduan.

**Altzari kontuan zer da gaur egun modan dagoena?**

Moda jendearen eskaeraren arabera dago. Sofei buruz hitz egiten badugu oso modan dago *chaise longue* eta narrua; koltxoietan biskoelastikoak; altzarietan linea zuzenekoa da gehien saltzen dena, gris tonukoa. Altzari kontuetan moda kontuek. Denbora luzean irauten dute.

**Erraza izaten da bezeroak nahi duen horrekin bat egitea?**

Orokorrean, zailena izaten da nahi duen hori zer den jakitea. Nahi duenaren gaineko ideia argia daukagunean, bezeroak erabakia hartzeko aukera hobeak ditu.

OMU
KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 •Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43
ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20



**MUSIKA** > IÑAKI SALVADOR, AMAIA ANTZOKIAN

# Pianoa bidaia-lagun hartuta, gaurkoekin iragana gogoratuz

Iñaki Salvadorrek emanaldi berezia eskainiko du hilaren 31n, beste hiru musikarirekin batera; hainbat estilo uztartzen dituzten abesti ospetsuak joko dituzte


Irudian, kontzertua eskainiko duen laukotea: Hasier Oleaga, Ainara Ortega, Iñaki Salvador eta Javier Mayor de la Iglesia. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Jazza gustuko duenarentzat izen ezaguna da Iñaki Salvadorrena. Kurssal, Naima Quartet, Iñaki Salvador Trio eta Zibor Hastea taldeen sortzaile izan denak bere azken proiektua aurkeztuko du Amaia antzokian: *Te doy una canción* emanaldia, hain zuzen. Kontzertua urtarrilaren 31n izango da, 20:00etan. Sarrerak hamar euro balio du eta, ohikoa denez, egunean bertan txarteldegian edo Kutxaren webgunean –*www.kutxa.net*– eros daitezke.

**ESKARMENTUA ETA ONESPENA**
Jazzaren izen handietako bat da Iñaki Salvador, Espainiako Estatuko onenen artean dagoen piano jolea. Eskarmenturik ez zaio falta, ezta sari eta onespenik ere. Besteak beste, 1980ko hamarkadan Getxoko jazz jaialdiko lehen saria irabazi zuen, jaialdiko bakarlari onenaren saria. Bestalde, 1988an Tete Montoliu beka eman zioten, jazz munduan bere txokoa egiten hasteko ezinbesteko bultzada izan zena.

Gainera, beste hainbat artistaren kolaborazio lanetan parte hartzeak hamaika ate zabaldu zizkion bere garaian Iñaki Salvadorri. Izan ere, Luis Eduardo Aute, Golde Apple Quartet eta Mikel Laboa bera izan ditu ondoan bere ibilbide luzean zehar. Egun, "memoria musikal eta afektiboan" dago murgilduta.

**IRAGANA ETA ORAINA UZTARTUZ**
*Te doy una canción* emanaldia Iñaki Salvadorrek bidaia-lagun berriekin hasitako proiektua da. Piano jole donostiarra konponketa eta zuzendaritza lanez ere arduratuko da oraingoan, eta ondoan Jaime Mayor de la Iglesia kontrabaxu jolea, Hasier Oleaga bateria jolea eta Amaia Ortega abeslaria izango ditu. Horrela, iragana eta oraina uztartuko ditu; hau da, aspaldidik erakutsi duen jazzaren eta kantu herrikoiaren arteko fusioa errepertorio eta musikari berriekin nahastuko ditu. Horrenbestez, hilaren 31ko saiorako abestiak aukeratzerakoan irizpide bakarrak Salvadorren memoria musikal eta afektiboak izan dira. Emaitza, estilo askotariko abesti bilduma; besteak beste, Joan Manuel Serrat-en *Mediterraneo*, Chick Corearen *You're everything*, Benito Lertxundiren *Bizkaia maite* eta Mikel Laboaren *Txoria txori*.

> MUSIKA, 3.60 ARETOA

## Brutal Melodyk ez du oraindik kontzertu gosea ase

Beste *biolentzia ordu bat gehiago*, behintzat, bai. Brutal Melody talde arrasatearrak beste kontzertu bat eskainiko du urtarrilaren 24an, 3.60 aretoan. Itzulerako leku berean joko dute, eta taldearen osaera 2008ko uztailaren 25eko emanaldiko berbera izango da. Hortaz, Aner, Pako eta Juan Sangrek Numeneko Otuto eta Soziedad Alkoholikako Jimmy izango dituzte ondoan.

Pako gitarra joleak jakinarazi duenez, "ez dago arrazoi berezirik kontzertua emateko; hitzartuta genuen kontzertu bat bertan behera geratu da, eta askotxo entseatu dugunez, aprobetxatu egingo dugu beste kontzertu bat emateko". Epe motzean ez dute beste kontzerturik lotu.

> ARATUSTEAK

## Zabalik da kartel lehiaketarako izena emateko epea

Udalak Aratusteetako kartel lehiaketaren berri eman du. Edonork har dezake parte, eta lanek 50x70 zentimetroko tamaina izan behar dute. Derrigorrez agertu beharko da *2009 Inauteriak Arrasate* delako testua, eta irudiak Aratusteen ezaugarriren bat adierazi beharko du. Lanok urtarrilaren 30a baino lehen entregatu behar dira, BAZen. Saria 400 euro izango da.

> KULTURA GIDA

## Martxora arte aste bukaerero izango da zer ikusi Amaian

Udalak asteon atera du urtarriletik martxora bitartean Amaia antzokian ikusgai izango diren kultura ekitaldien gaineko gida. Aste bukaerari begira antolatu diren ekitaldiak erakusten dira, eta antzerkia, musika eta dantza dira protagonistak. Guztiak gustu eta adin guztiendako kalitatezko emanaldiak, eta sarrerak, gehienez, hamar eurotan.

**ANTZERKIA** > 'INMUNDO, HESI-PUSKATZAILEA' HILAREN 24AN

# Txotxongiloen bidez ezgaituen hesiak apurtzeko antzezlana

**J.B.** > ARRASATE
*Inmundo, hesi-puskatzailea* obra erakargarri bezain gogorra da, La Enana Naranja antzerki eta txotxongilo taldeak aurkezten duena. Antzezlanaren helburua da, Sandra Fernandez antzezle eta gizarte hezitzaileak azaldu duenez, ezgaitasun fisiko zein psikikoak dituztenak "errespetu eta maitasun osoz" antzerkira ekarri eta euren "errealitate gordina" haur eta familiei gerturatzea. Finean, ezgaien integrazioa bilatzen du lanak. Horretarako, "amodio eta fantasiaz jositako istorio magikoa" ekarriko dute taulara.


Txotxongiloak dira protagonista.

**24AN, 18:00ETAN, AMAIAN**
7 urte baino gehiago dituztenei dago gomendatuta *Inmundo, hesi-puskatzailea*. Obra datorren zapatuan izango da, hilak 24, arratsaldeko seietan. Amaia antzokian interpretatuko dute eta sarrerek lau euro balio dute.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

**PILOTA** > PILOTARI OHIEN TXAPELKETA

# Pilotan egiten zekienari, antza ez zaio ahaztu

Mauri Zubillagak lehengo pilotari arrasatearrak batu ditu txapelketa batean, 18 bikote guztira

"Kalean adarra jotzen ibiltzen ziren, horrelako bat noiz antolatuko genuen galdezka"

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mauri Zubillagak esanda, Hondarribiko elkarte gastronomiko batean sortu zen Arrasateko pilotari ohiekin txapelketa bat antolatzeko eskaera: "Sasoi batean nirekin ibili ziren pilotari ohiekin kalean elkartzen nintzen bakoitzean adarra jotzen zidaten, eurendako txapelketa bat noiz antolatu behar nuen galdezka. Hala, Osinaga, Errasti, Zugasti... pilotari ohiekin elkartu eta Hondarribian daukadan elkartean afari bat antolatu nuen, hori guztia martxan jartzeko. Eta handik irten zen ideia", adierazi du Arrasateko pilota taldeko ordezkari Zubillagak.

**TELEFONO DEI MORDOA**

Ideia gauzatzeko antolatzaileek lan ederra zeukaten aurretik: pilota utzita daukaten gazte eta ez horren gazteekin kontaktuan jartzea: "Telefono zenbaki mordoa nituen nik gordeta, eta beste batzuek egungo poltsikoko telefonoen zenbakiak ere lortu dituzte. Dei mordoa egin ditugu, eta batzuek atzera egin duten harren arrakasta polita izan du txapelketak, 18 bikote animatu dira-eta".

Txapelketa hasi dute dagoeneko, eta Zubillagaren asmoa da urte osora luzatzea: "Jendeak egubakoitz iluntzean jokatu gura izaten du, baina orduan beste hitzordu asko izaten dira eta ez da izaten erraza partidu guztiak orduan jartzea. Nire asmoa da txapelketak zortzi hilabete inguru irautea, eta hilean bi egubakoitzetan, behintzat, elkartzea".


Jon Pozo herriko beste pilotari batzuekin, Zaldibarren, 90eko hamarkadan. ARTXIBOA

**INORK EZ DU EZER OPARITZEKO**

Orain arte jokatutako norgehiagokei dagokienez, Zubillagak onartu du batek baino gehiagok harritu egin duela: "Askok futbolagatik utzi zuten pilota, eta, oraindik ere zelan jokatzen duten ikusita, pena hartzen dut; urteak egon jokatu barik, eta zelan astintzen duten pelota!".

Gainera, orain arteko partiduetan pilotari ohien artean lehia polita egon da: "Joan den egubakoitzean Madariaga eta Arana bikoteak Luar Etxeberriaren eta Luis Kortaren kontra jokatu zuen, eta partidu horrek bi ordu eta bost minutu iraun zuen! Han inork ez zeukan ezer oparitzeko, eta alde horretatik sorpresa galanta hartu dut nik".

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-Dublin Irish Pub | **5-3** |
| Bar Aldapa-Equs | **5-6** |
| Urza-Iriztu Taberna | **2-8** |
| Iturriotz Taberna-Cipris | **1-3** |
| Saukelu Kabia-Paulaner Dribling | **5-8** |
| AT Celaya-Lasagabaster | **4-6** |
| Total Disaster-Iluntz | **1-8** |
| Ekaitz Taberna-McAwenDauen | **6-16** |
| HLB 108-Abokajarro | **2-5** |

**PARTIDUAK**

| Urtarrilak 17, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** Abokajarro-Total Disaster | **Saukelu** |
| **11:00** Iluntz-Saukelu Kabia | **Total Disasteru** |
| **12:00** McAwenDauen-AT Celaya | **Iluntz** |
| **13:00** HLB 108-Ekaitz Taberna | **McAwenD.** |
| **16:00** Urza-Paulaner Drib. | **Iturriotz Tab** |
| **17:00** Lasagabaster-Iturriotz | **Urza** |

| Urtarrilak 18, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Cipris-Bar Aldapa | **Iriztu Taberna** |
| **12:00** Iriztu Taberna-Dublin Irish | **Bar Alda.** |
| **13:00** Betrayer-Equs | **Dublin Irish Pub** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwenDauen | 21 | 8 |
| **2.** | AT Celaya | 18 | 8 |
| **3.** | Saukelu Kabia | 18 | 8 |
| **4.** | Paulaner Dribling | 16 | 8 |
| **5.** | Iriztu Taberna | 15 | 8 |
| **6.** | Lasagabaster | 15 | 8 |
| **7.** | Cipris | 13 | 8 |
| **8.** | Betrayer | 12 | 8 |
| **9.** | Ekaitz Taberna | 12 | 8 |
| **10.** | Abokajarro | 11 | 8 |
| **11.** | HLB 108 | 11 | 8 |
| **12.** | Iluntz | 11 | 8 |
| **13.** | Dublin Irish Pub | 10 | 8 |
| **14.** | Equs | 8 | 8 |
| **15.** | Bar Aldapa | 7 | 8 |
| **16.** | Iturriotz Taberna | 6 | 8 |
| **17.** | Urza | 6 | 8 |
| **18.** | Total Disaster | 0 | 8 |

Gazte ikastaroak



**DANTZA AFROAMERIKARRAK**

Magdalena Milanoren eskutik
Urtarrilaren 29tik apirilaren 2ra arte
Eguenetan 18:30-20:00
Kultur Aten



**TXALAPARTA**

Ttakun taldearen eskutik
Otsailaren 27tik martxoaren 28ra arte
Egubakoitzetan, 20:00 - 21:30
Zapatuetan, 11:00 - 13:30
Monterronen



**BIDEOGINTZAREN HASTAPENA**

Amaia Labaienen eskutik
urtarrilaren 28tik apirilaren 1era arte
Eguaztenetan, 18:00 - 20:00
Kultur Aten

**Matrikula: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat**
**Izena emateko: Gazte Bulegoan 943 25 20 65**
***www.gaztebulegoa.com***

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

Gazteria saila



Bideberriko kanalizazioa eta errepidea bi noranzko bihurtzea da lehentasun handiena duen proiektua. MONIKA BELASTEGI

**KRISIA** > ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA

# Boluko igogailuendako nahi du dirua Udalak

Madrilgo laguntzarekin, igogailuez gain Bideberri bi noranzko bihurtu nahi dute eta Ariznoa plazako eta Irala kaleko urbanizazio lanak bukatu

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Krisiari aurre egiteko, Zapatero Espainiako presidenteak dirulaguntzak bideratuko ditu Estatuko udaletara. Laguntza bereziak dira, obra publikoak eta enplegua sustatzeko erabili beharrekoak. Bestelako baldintzak ere jarri dituzte laguntzok emateko: udalek aurreikusi gabeko proiektuak aurkeztu beharko dituzte –aurrekontuan sartu bakoak– eta proiektuak eginda egon beharko dira, eskaerekin batera bidaltzeko.

Laguntzok biztanleriaren arabera banatuko dira eta Bergarako Udalak 2.623.497 euro jasoko ditu. Udalek urtarrilaren 24ra arteko epea dute dirua zertan baliatuko duten jakinarazteko. Hala, udal ordezkariek dagoeneko erabaki dute zertan erabiliko duten diru hori.

**LAU PROIEKTU**
Agurne Barruso alkateak adierazi duenez, lau proiektu aurkeztuko dituzte. Honako proiektuak, hain justu, lehentasun mailaren arabera: batetik, Bideberriko kanalizazioa eta errepide hori bi noranzko bihurtzea. Modu horretan, Ibargarai osoa, Masterrekaraino bi noranzkoa izango litzateke. Bestetik, Bolu auzoan dauden irisgarritasun arazoei irteera emateko lau igogailu jartzea. Hirugarrena da Domingo de Irala kalea amaitzea; hau da, San Martin plazatik Irala kalerako aldapa eta Usoa eta Eusebio tabernetako terrazak egokitzea. Eta laugarrena, Ariznoa plazan galtzada-harria jartzea, Artekalea eta San Pedro lotuz.

Barruso alkateak azaldu duenez, astelehenean egindako gobernu batzordean jakinarazi zieten oposizioko alderdiei ze lau proiektu bideratu nahi dituzten Madrilera. Eta gehitu duenez, horietako bi ere onartu egin zituzten batzordean: Bideberrikoa eta Ariznoa plazakoa. Boluko igogailuen eta Irala kalearen kasuan, proiektuak bukatzeke daude.

Eskariak jaso eta gero, Madrilgo Gobernuak hamar egun ditu Udalari erantzuteko, eta proiektuak onartuz gero, hilabeteko epean esleitu beharko ditu Udalak.

DATUA

**2,6**

**MILIOI EURO**

2.623.497 euro jasoko ditu Udalak Madrilgo Gobernutik. Laguntza berezia da, krisiari aurre egiteko asmoz, eta guztira 8.000 milioi euro bideratuko ditu, obra publikoak eta enplegua sustatzeko.

**Maite Guridi** > Euskara batzordeburua

# "Euskaraz dakien herria izatetik, euskaraz bizi dena izatea nahi dugu"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu berri da Udala. Maite Guridik mankomunitate horretan sartu izanaren berri eman digu, besteak beste.**

**Noiz eta zergatik erabaki duzue UEMAn sartzea?**
Ekainean sartu ginen. Erabaki hori hartzean buruan genuena zera da: Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara da eta euskara nagusi izango den lur-gunea sortu nahi dugu. Izan ere, euskarak bizirik iraun dezan ezinbestekoa da lur-gunea sortzea. Eta guk lurgune edo lurralde horretako parte izan nahi dugu. Euskaraz dakien herria izatetik euskaraz bizi dena izatera pasa nahi dugu.

Gaur egun UEMAn 56 herri daude; Debagoienetik Antzuola eta Bergara.

**Sarea hedatzeak elkarlana errazten du.**
Bai. Babesa ematen du eta planteamenduak egiteko orduan ere indarra handiagoa da. Esaterako, arazoak sortzen direnean justiziarekin, osasun arloan edo bestelako arloetan, arazo hori beste udalekin partekatzeko, konponbideak aurkitzeko edo estrategia batzuk diseinatzeko bitartekoak jarzen ditu UEMAk. Bestetik, elkarren babesarekin errazagoa izaten da konponbideak aurkitzea edo presioa egitea konponbideak aurkitzeko.

**UEMAren helburuetako bat da euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea. Zein da Bergararen egoera?**
Badauzkagu ahulguneak: lan mundua, osasun arloa, justizia... Sendoago daude irakaskuntza eta udal administrazioa. Eta kale erabilerari dagokionez, azken hiru urteetan gazteen kasuan, behintzat, ez da igoerarik izan; berdin mantendu da.

**Horien guztiak sendotzeko ze plangintza du UEMAk eta nola uztartzen da Udalaren EBPNrekin?**
Udalak badu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta horrekin urteko gestio plana egiten dugu. Eta UEMAk ekarpenak egingo ditu. Izan ere, kanpotik datozen teknikariak izango dira UEMAkoak eta beste herri batzuetako esperientzia ere jaso dutenak, hortaz, alde horretatik aberasgarria izan daiteke.



Maite Guridi. M.B.

**Herritarrek parte hartu ahal izango dute? Eta hala bada, nola?**
Bergaran badugu euskara aholku batzordea eta herritarrak hor presente daude. Bestalde, UEMArekin batera hizkuntza urraketen gaiari eutsi nahi diogu. Herriko hainbat gunetan jarriko ditugu postontziak herritarrek salatu nahi dituzten hizkuntza urraketen berri emateko. Gero, UEMAra bideratuko ditugu herritarrek helarazitako urraketok. Hala, UEMAk egiten duena da urraketa izan den arlora jo, gauzak konpondu ahal izateko; justizia arloa dela, osasun arloa...

Postontziok otsail bukaera edo martxo hasierarako jarriko ditugu.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

> JAIAK

## Sanantonabat jaiak ospatzeko hainbat ekintza asteburuan

San Anton auzoan Sanantonabat jaiak direla-eta hainbat ekintza egongo dira asteburuan. Bihar, zapatua, San Anton eguna da; besteak beste, 11:00etan meza nagusia izango da, 16:00etan mus txapelketa eta 21:00etan herri afaria.

Domekan, 11:00etan meza nagusia egongo da eta Umore-Ona taldeak abestuko du bertan. 12:00etan, 32. San Anton kros internazionala jokatuko da; 12:30ean euskal kirolak eta dantzak egongo dira ikastolako dantza taldearekin. Amaiera sari banaketarekin egingo da.

> ONA TXARTELA

## ONA txartela egin nahi duenak aukera dauka liburutegian

ONA txartela egin nahi duenak aukera dauka Udal Liburutegian. Bide batez, Udal Liburutegitik bertatik gogorarazi nahi dute, duela hilabetetik txartela eskatuta duten erabiltzaileak, liburutegitik pasa daitezkeela txartela jasotzera. Liburutegiaren ordutegia ondorengoa da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 20:30era; zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara. Udal Liburutegiak bergararrei txartel hau egiteko gonbita egiten die. Informazio gehiago nahi duenak: *www.euskadi.net* helbide elektronikoan sartu daiteke.



Etxebizitza berriak eraikitzen hasten direnean semaforo bitartez zuzenduko dute bertako zirkulazioa. JASONE ZABALA

**HIRIGINTZA** > ZUBIAURRE ETA MARTOKO KALEETAN ZIRKULAZIO ALDAKETAK

# Norabide bakarraren ordez semaforoak jarriko dituzte

### Zubiaurreko etxebizitza batzuen eraispen eta berrikuntza lanek ekarriko dute aldaketa

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Zubiaurre kaleko hiru, bost eta zazpigarren atarien eraispen eta berreraikuntza dela-eta, Zubiaurre eta Martoko kaleen artean bide bat itxita egongo da. Egoera horrek Martoko eta Zubiaurreko auzotarrengan eragina izango du, zirkulazioari dagokionez behintzat. Horregatik, Udalak pasa den martitzenean bilera informatiboa egin zuen, aipatutako auzoetan bizi direnendako. Bilerara 30 auzotar inguru azaldu ziren. Udalaren aldetik, Agurne Barruso alkatea, Enara Minguez Gobernazio batzordeburua eta Joseba Aizpurua Bulego Teknikoko teknikaria egon ziren. Barrusok planteatu zuen auzoan egoten diren aparkaleku arazoak kontuan hartuta, norabide bakarra ipintzea egokiena zela behintzat lanek iraun bitartean – bi edo hiru urte inguru–. Auzotarrek, horren harira adierazi zuten aparkaleku faltaz gain norabide bakarra ez dela konponbidea, behin eta berriro autoekin saihesbidera irten beharko luketelako eta ez litzatekeelako inongo arazorik konponduko.

#### TXANDAKAKO SEMAFOROAK

Auzotarrek egoeraren gainean zituzten kexak entzun ondoren, Agurne Barruso alkateak hainbat ondorio atera zituen: alde batetik, norabide bakarraren ideia baztertuta gelditu zen, auzotarren kezkak entzunda ez litzatekeelako konponbide egokiena izango; horren ordez, txandakako semaforoak ipintzea erabaki zuten. Hirugarrenik, azaldu zuen Ozaeta auzoko aparkalekuen proiektuarekin aurrera jarraituko dutela eta auzoan Udaltzaingoaren presentzia gehituko dutela ere adierazi zuen, egoten diren zirkulazio arazoak saihesteko. Azkenik, beste edozein bilera egiteko gonbita egin zieten Udaleko ordezkariek batzarrera joandako auzotarrei.

**bere ustez**



Lander Juaristi

## Urte berriari zer?

Erori zaigu 2009a gainera, berarekin ze berri? Orain dela gutxi ETBren 1983. urteko *Teleberri* bat berrikustea tokatu zitzaidan, emisioko lehen urtea zen. Urteak aurrera doaz eta gure herrian kakari bueltak ematen jarraitzen dugula iruditzen zait, kaka hona, kaka hara! Aurten noraino helduko da kakaren zipriztina? Pentsatzea ere terrorismoa izango ote?

Eta Israelek txoria zuen maite eta hegoak ebaki zizkion eta begiak atera eta hankak moztu eta gosez hiltzen utzi zuen eta gaurko Gaza sortu. Eta 9.000 metrotatik misilak bota zizkion. Eta gu bitartean Obamari begira, *yes we can!* Obama aukeratua izan zen egunean Israelek Hamasi eraso egin zion, ustezko su etena hautsiz. *Yes they can!* 2009a beltz hasi da palestinarrentzat.

**"Bergaran, gaztetxean, bizitza sumatu da aspaldian. Antolatu eta ekin!"**

AHT geldituko dugu? Urte erabakigarria izango da 2009a. Borrokek izaera propio eta autonomo bat dutenean zergatik euskal gatazkaren maindirepe astunean sartu? Orain da iritzia izateko momentua, informatu, ez gaitzatela manipulatu. Bergaran, gaztetxean bizitza sumatu da aspaldian. Antolatu eta ekin! Ea 2009an asanblada freskoaren irudipenak zer dakarkigun.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

XUXU
Levi's
Banatzaile ofiziala
Narrua - Bakeroak - Tailak 36.....54
ESKAINTZA BEREZIAK
San Pedro kalea 14, behea
Tel. 943 76 07 55
%30 eta %50eko DESKONTUAK
Levis prakak taila solteak
60 €

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

> ERAKUSKETA

### BEKE elkartearen lanak Aroztegin, gaurtik aurrera

Bergarako emakume elkarteak erakusketa zabalduko du gaur Aroztegi aretoan. Ohitura den moduan, urtean zehar egindako hainbat eskulan jarriko dituzte erakusgai; besteak beste, pintura, egurra eta beira lanak.

Gaur hasi eta hilaren 25era arte egongo dira lanak ikusgai Aroztegin. Aretoaren ordutegia ondokoa da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14.00etara.

> KONTZERTUA

### Bosniako umezurtz etxe baten aldeko kontzertua bihar

Bihar izango da, zapatua, 19:45ean, Santa Marinako parrokian. Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime Bruton piano joleak egingo dute kontzertua. Era guztietako abestiak eskainiko dituzte: napolitanak eta zarzuelak, besteak beste. Juan Kruz Mendizabal apaizak esan digu ez dutela sarrerarik kobratuko; irteterakoan, gura duenak dirua emateko aukera izango du. Bosniako Bjelave umezurtz etxearendako izango da batutakoa.

> ZINEMA

### 'Indiana Jones' eta 'Wall-E' filmak emango dituzte

Zabalotegi aretoko zinema emanaldiak abenturaz josita datoz aste bukaeran. Bihar, zapatua, 17:00etan umeentzako saioa egongo da, Disney etxearen *Wall-E* filma. 19:30ean eta 22:30ean, ostera, helduentzako *Indiana Jones y el templo de la calavera de cristal*. Domekan film berak eskainiko dituzte, baina 22:30eko emanaldirik ez da egongo.

Zinema emanaldien sarrerak izango dira 2 euro txikien saioa eta 3 euro helduen saioa.

**ARTEA** > ATE IREKIAK BOLUN

# Herriko artistek estudioko ateak irekiko dituzte domekan

Bolu auzoan egingo dute 'Ate irekiak' jardunaldia; 11:30etik 15:00etara egongo dira 13 artistaren lanak ikusgai denontzat



Abenduan Beart elkartekoek plazan jarri zituzten margoak ikusgai. GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Herriko 13 artistaren lanak eta teknikak ikusgai izango dira datorren domekan, hilaren 18an, Bergarako Bolu auzoan egingo duten *Ate irekiak* jardunaldian.

Ekitaldi horretan parte hartuko dute Bolu auzoan estudioak dituzten edo han bizi diren artistek; batzuek estudioetako ateak irekiko dituzte eta beste batzuek euren lanak ikusgai jarriko dituzte estudioen kanpoaldean. Aurtengoa ekitaldiaren bigarren edizioa da, eta pintura, eskultura, zeramika eta fotografia ikusi ahal izango dira.

**ARTE TRADIZIOA**

Bergarako arte tradizioak oso bizirik dirau eta gure mugetatik haratago ere ezaguna da. Jardunaldietan lanak aurkeztuko dituzten hainbat artistak konpromisoak dituzte New York, Miami, Paris, Madril, Gasteiz eta Terrasan lanak aurkezteko; eta sinatuta dute euren parte-hartzea ArtMadrid eta New Yorkeko Artexpon.

Artista horiek, ordea, ez dira ahaztu euren herriarekin eta artea bultzatu nahi dute gertukoekin lan eginez. Horregatik, Bergarako Artisten Elkarteak –Beart– gonbitaa egin die artea maite duten guztiei Bolu auzoan 13 artistok dituzten lantokietara joateko eta haien lanak ikusteko. Bolu auzoan izango da, Aranerreka kaleko 21 eta 27. zenbakien artean.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Iaz baino lagun gehiagok eman dute izena amodiozko gutunen XVI. lehiaketan

**A.E.** > BERGARA

Jardun elkarteak antolatutako amodiozko gutunen XVI. lehiaketan 48 lagunek eman dute izena. Horien artean sei lagun bergararrak dira. "Herriko sei lagunek aurkeztu dute gutuna; bestalde, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaikoak dira parte hartzaileak. Iparraldeko inork ez du izenik eman", adierazi digu Maitane Arizabaleta Jardun elkarteko kideak.

Lanak epaimahaiaren eskuetan daude eta eurek egingo dute lehenengo aukeraketa. Epaimahaia Alaitz Sarasola iazko irabazleak, Rafa Rueda abeslariak, Gerardo Elortza historiagileak eta Oihana Bartra bertsolariak osatuko dute.

Bestalde, SMS bidezko mezuak bidaltzeko azken eguna atzo, eguena, zen.

**SARI BANAKETA**

Amodiozko gutunen sari banaketa otsailaren 14ean egingo dute. Lehen eta bigarren sariak eta bergarar onenaren saria banatuko dituzte. Jarduneko gaztetxoek 26 urtetik beherakoen saria eta SMS bidezko saria emango dituzte.

**KONTZERTUA**

# Musika akustikoa Bikustik taldearekin

Zabalotegi aretoan izango da, gaur, 22:30ean; sarrera 3 euro da

**A.E.** > BERGARA

Blues eta rock musika gustuko dutenek aukera paregabea dute gaur musikaz gozatzeko Zabalotegi aretoan. Elgoibarko Bikustik taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du, 22:30ean. Sarrerak 3 eurotan egongo dira salgai.

**GITARRA DOINUAK**

Bikustik Patxi Zabaletak eta Jon Gurrutxagak osatzen dute, eta, izenak adierazten duen moduan, proiektu akustikoa da; hau da, bertsio akustikoen proiektua. Bikote elgoibartar horrek apirilean eskaini zuen estreinako kontzertua, Zumaian.

Zabaleta –gitarra nagusia eta koroak– eta Gurrutxaga –ahots nagusia eta gitarra laguntzailea– Arima Beltza taldeko kide ohiak dira. Orain, bertsio akustikoak ardatz hartuta datoz proiektu berriarekin. The Beatles, Creedence Clearwater Revival, Led Zeppelin, Queen edota Chris Robinson-en bertsioak eskaintzen dituzte emanaldietan. "Abesti mitikoak", diote.

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.
Telefonoak: 943 79 83 08 - 615 70 34 72
KONPROMISORIK GABEKO BISITA
BIZITZEKO GERTU
ELGETAN - TORREALDEA
2 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
36.407.000 pzta-tik aurrera
3 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
40.327.000 pzta-tik aurrera
4 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
56.481.000 pzta-tik aurrera
Garaje itxiak
1.997.000 pzta-tik aurrera

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**FUTBOLA** > LEHEN ERREGIONALA

# Lehenengo itzulia errepikatuz gero, Bergara preferentera

Bigarren itzuliko lehen partidua jokatuko du Bergarak bihar (15:45), Eibartarraken kontra

Lehenengo itzulian Bergarak partidu bakarra galdu du, Antzuolaren kontra


Joan den asteko derbiko irudian, mahoneroak Antzuolako jokalaria ondo estutzen; ez zen nahikoa izan. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Joan den astean Antzuolaren kontrako porrota izan da Bergarak lehen itzulian egin duen hanka-sartze bakarra: "Baina porrot horri ez diogu buelta larregi eman behar. Kategoria horretan oso erraz gerta litekeen gauza bat da, eta bistan da Antzuolak oso ondo hartu digula neurria. Uste dut, balorazio orokorragoa egin behar dugula, eta lehenengo itzulian egin dugun lanari ematen diot nik garrantzia", adierazi du Bergarako entrenatzaile Manu Diazek. Duda barik, orain bertan sinatuko luke bigarren itzulia lehen bezain ona egin, eta Antzuolan berriro ere galtzea: "Oso garbi daukat hori. Gustura joango nintzateke Antzuolara matematikoki liga irabazita, eta euren kontra jokatu beharreko ligako azken norgehiagoka galdu".

**BIHAR, EIBARTARRAK**

Bergarak Agorrosinen jokatuko du bihar, zapatua, 15:45ean: "Eibarren 0-1 irabazi genien, baina egin berri zegoen talde bat zela ikusi nuen; kontuz ibili beharko dugu orain, talde hori dezente hobetu dela esango nuke-eta"

Aurrera begira, berriz: "Lehenengo itzulian hasi ginen moduan hasi behar dugu. Datozen zazpi-zortzi jardunaldiak oso garrantzitsuak izango dira eta beherakadarik ez badugu izaten liga irabazteko hautagai nagusiak izango gara".

**BTLS-EK ILINTXAREN ZELAIAN**

Joan den astean Mutrikuren zelaitik epaileak egindako lanarekin haserre itzuli ziren BTLS taldeko mutilak (2-1), epaileak 95.minutuan adierazi zuen-eta mahoneroen kontrako penaltia. Oraingo asteburuan ere etxetik kanpora jokatu beharko dute Aranburuven mutilek, Ilintxaren kontra. Talde hori sailkapenean azkenaurrekoa da.

**SASKIBALOIA** > SENIOR GIZONEZKOAK

# Irungoen kontra, bihar 19:00etan

Mahoneroek partidu bakarra galdu dute, baina biharko kontrarioak ez ditu emaitza txarragoak

**X.U.** > BERGARA

Soraluce BKE saskibaloi taldeak joan den astean izan zuen ligako lehen estropozua, Azpeitiko Errotaundi taldearen kantxan (51-44). Baina, orain arte irabazitako zazpi partiduei esker mahoneroek ligako aurreko postuetan jarraitzen dute, lider daudenek baino bi partidu gutxiago jokatuta.

Bihar Labegaraietan izango den Erroibide Irun taldeak mahoneroek baino garaipen bat gehiago du, baina partidu bat gehiago jokatu dute; beste jauzi bat egiteko ezinbestekoa da garaipena.


Soraluce BKE taldeko mutilek ordutegi ezohikoan jokatuko dute bihar. BKE

**ESKUBALOIA**

# Bi puntura baino ez dagoen Egia kontrario

Etxeko lehen garaipenaren bila kantxaratuko da Bergara domekan

**X.U.** > BERGARA

Joan den astean Ormaiztegin eskuratutako garaipenak animatuta (30-31), Soraluce BKE eskubaloi taldeko mutilak etxeko lehen garaipena eskuratzeko asmoz kantxaratuko dira domekan (12:15). Mahoneroek Egia Servi Chap. taldearen bisita izango dute, sailkapenean bi puntu gutxiagorekin atzetik datorren taldea. Alde horretatik, taldeak pozik hartu du Mikel Larrañagaren fitxaketa, taldean izango duelako non lagundu.

**ORMAIZTEGIN GOL BATEGATIK**

Aurreratu moduan Soraluce BKEk garaipen garrantzitsua erdietsi zuen joan den astean Ormaiztegin. Lehen zatian defentsan serio eta erasoan oso ondo, Bergarak bizpahiru goleko aldeari eutsi zion (11-14). Bigarren zatia ere antzera hasi zen, mahoneroak aurretik (13-18), baina ondoren Ormaiztegik goitik behera menderatu zuen jokoa, markagailua irauliz (23-20).

Norgehiagokako azken zatian golak han eta hemen izan ziren, jokoaren gaineko kontrol gutxi baina emozio handia. Hala, Soraluce BKEko mutilek ondo jakin zuten azken minutuak zelan jokatu, eta Ormaiztegik partidua berdintzeko aukera izan bazuen ere, ezin (30-31).

**BESTELAKO EMAITZA**

Seniorrendako emaitza ona izan zen neurrian, kadeteek ezin dute gauza bera esan, horiek 31-30 galdu zuten-eta Pulporen kantxara egindako bisitan. Hor ere, defentsa lanetan baino hobeto moldatu ziren bi taldeak erasoan.

ZAPELAITZ taberna
Berriz zuekin!
• Berezitasuna: oilaskoa labean
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Bazkariak enkarguz
08:00etatik zabalik
Igandeetan 11:00etatik aurrera
669 53 97 03 San Lorentzo 25 Bergara

**bergararrak kanpoan**

**Iñaki Larrañaga** > Kiropraktika ikaslea
Zeelanda Berrian bizi da

# "Auckland atzerritarrez beteta dago; asiar komunitatea ikaragarri handia da bertan"

**JASONE ZABALA** > BERGARA

**Iñaki Larrañaga bergararra duela urtebete joan zen Zeelanda Berrira Kiropraktika ikastera. Oraindik ere gutxienez beste hiru urte egin beharko ditu bertan, baina gustura dagoela adierazi digu. Aucklandeko New Zeeland College of Chiropractic-en ari da ikasketak egiten.**

Iñaki Larrañaga Aucklanden bizi da, bi mutil australiarrekin eta Zeelanda Berriko neska batekin. Auckland hiria iparraldeko irlan dago, eta, hiriburua ez den arren, Zeelanda Berriko hiri handiena da, 1.200.000 biztanlerekin.


Iñaki Larrañaga.

**JENDE JATORRA**

Larrañagak adierazi digu bertako jendea oso jatorra dela, alaiak eta oso heziketa onekoak. Eguraldiari dagokionez, "iparraldeko irla oso euritsua da negu partean eta urtaroak ez dira han (Bergaran) bezain garbi bereizten, dena dago eta berde-berdea urte osoan. Hezetasuna ikaragarri handia da neguan, baina uda, ostera, epela eta ederra da normalean", adierazi digu.

**"Maoriak izan ziren Zeelanda Berriko lehen biztanleak, eta hizkuntzari eta kulturari eusten diote"**

**BI HIZKUNTZA**

Zeelanda Berrian bi hizkuntza ofizial daude: ingelesa eta maoria. "Maoriak izan ziren Zeelanda Berriko lehen biztanleak, eta hizkuntza eta kultura mantentzen dute. Nik oraingoz, nahikoa daukat ingelesarekin, baina datorren urtean maoria ikasteko aukera edukiko dut unibertsitatean", esan digu. Iñaki gehien harritu duena atzerritik bertara joandako jende kopurua izan da. "Auckland atzerritarrez beteta dago. Asiar komunitatea ikaragarri handia da: Txinan, adibidez, seme-alabak oso gaztetan atzerrira bidaltzeko ohitura dago, eta asko igartzen da hori Aucklanden. Haietako asko, hainbeste urteren ostean, bertan geratzen dira bizi izaten", adierazi digu Larrañagak. Paisaiari dagokionez, hauxe esan digu: "Oso berdea da, eta, jende askorik bizi ez denez oso ondo mantentzen da natura. Abenturazko kirolak maite dituen pertsona batendako, oporretarako leku aproposa izan daiteke. Historia aldetik, ostera, nahiko pobrea da; herrialde nahiko berria. Herri guztiek dirudite berdinak eta berriak".

**ASTE BUKAERETAKO PLANA**

Iñaki Larrañagak "nahiko bizimodu trankila" daramala adierazi digu. "Etxeetan elkartzeko ohitura dago Aucklanden eta normalean etxean izaten ditugu afari eta bestelako ospakizunak". Kirola ere gustuko du, eta ahal duenean surf egitera joaten da, baita bizikletan ibiltzera edo igeri egitera ere.

Familia eta lagunen falta igartzen du eta baita asteburuetako irteerak ere. Hala eta guztiz ere, esperientzia polita izaten ari dela adierazi digu. "Oso aberasgarria da kanpora irten eta kultura eta ohitura desberdineko jendearekin bizi izatea. Asko ikasten da".

**oharrak**

ZOZKETA
**> Irudi erloju dendako zenbaki saritua atera da**

Irudi erloju dendak Gabonetan berezoen artean egin zuen zozketaren zenbaki saritua da 2.416. Irabazlea dendatik pasa dadila saria jasotzera.

ZOZKETA
**> BTLS kirol elkartearen zenbaki saritua atera da**

Gabonetako saskia jaso du 1.220 zenbakiak.

ZOZKETA
**> Bedelkarren Gabonetako zozketaren zenbaki sarituak**

Gabonetako zozketako zenbaki sarituak dira: 4.611 (mila euroko sari bat); 9.904 eta 68.662 (500 euroko bi sari); 36. 353, 46.487, 71.236 eta 88.357 (250 euroko lau sari).

KINTADA
**> 1956an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urtarrilaren 31n egingo dute, Zabala jatetxean. Izenematea da Zabala jatetxean (943 76 42 57), hilaren 26a baino lehen. Afari egunerako hitzordua egin dute 19:30ean Udal Pilotalekuan; 21:15ean nahi duenarendako talde argazkia egingo dute San Martin plazan eta ondoren, 21:30ean, afaria.




**Laster GIDA 2009 zure etxean!**

Gida osatuena erabilgarriena eta berriena.

**Zure herriko denda eta enpresen telefonoen gida.**

**Eta aurten gida komertziala baita *Goiena.net* atarian ere!**
***http://goiena.net/gida***

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Uralitazko sabaia kendu beharrak luzatu ditu botatze lanak

Otsail erdirako orubea garbituta eta gertu egongo da

Udal aurrekontua noiz onartuko zain dago behin betiko proiektua

**LANAK** > KIROL ETXEA

# Astean hasi dira botatzen kirol etxeko aurreko aldea



Hondeatze-makinak astelehen arratsaldean hasi ziren kirol etxeko aurreko aldea botatzen. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Astelehenean hasi ziren botatzen kirol etxea, eta horretan jardun dute astean. Guztia bota eta txukundu behar dute orain, eta otsail erdirako gertu izango dute orubea eraikitzen hasteko.

**DESMUNTATZE LANAK**
Botatze lanak azaroan egitea aurreikusita zuten, baina asko luzatu dira, aurretik desmuntatze lanak egin behar izan dituztelako. Izan ere, materialak gaika kendu behar dira: batetik egurra, bestetik burdina, porlana txikitu... Eta kentzeko orduan arriskutsuenak uralitazko xaflak izan dira, amiantoa dutelako. Xafla horiek ezin dira bustita kendu, eta, udazkena oso euritsua izan denez, egun askoan geldi egon dira lanok. Gainera, sabai guztia zegoen uralitazko xaflekin estalita.

Desmuntatze lan guztiak egindakoan hasi dira Donostiako Redenor enpresako hondeatze-makinak eraiste lan ikusgarrienak egiten; hau da, aurreko aldea botatzen. Eta ikusmin handia sortu dute lanok herritarrengan, argazkiak ateratzera hurreratu ziren batzuk. Poliki-poliki botako dute guztia, porlana kendu ahala txikitu beharra daukatelako, eta, lehen bezala, materialak gaika sailkatuko dituztelako. Otsail erdirako aurreikusi dute bukatzea, eta orubea gertu utziko dute eraikitzen hasteko.

**BEHIN BETIKO PROIEKTUA**
Kirol etxe berriaren behin betiko proiektua eginda dago, baina oraindik onartu barik. 2009ko udal aurrekontua onartu behar du udalbatzak aurretik, eta ondoren kirol etxearena. Proiektuarekin batera eraikitze lanak egingo dituen enpresa hautatzeko oinarriak ere onartu beharko dituzte. Ondoren lehiaketa deialdia argitaratuko dute, eta hautatutakoan hasiko dituzte lanak. Hortaz, lau bat hilabete pasatuko direla uste dute Kirol Zerbitzuetako arduradunek.

13 milioi euro inguruko aurrekontua dute kirol etxeko lanek eta proiektua Asier Akuriola eta Fernando Bajo arkitektoek egin dute, Udalak deitutako ideien lehiaketa irabazi zutenak. Hona: beheko solairuan, harrera gela, administrazioa eta erabilera anitzeko gimnasioa; solairu bat beherago, kantxa handia, trinketa eta rokodromoa; lehenengoan, fitness gela eta harmailak. Bigarren solairuan, makinen gela; eta hirugarrenean, hiru igerileku. Gainera, pasabide batek igerilekutik kanpora ateratzeko aukera eskainiko du. Bestalde, kanpoaldean, tenisean eta padelean jokatzeko kantxak eta futbolerako zelai txikia aurreikusi dute.

Spa-bainuetxe izaera eman gura diote kirol etxe berriari eta horregatik aldaketatxo batzuk egin dizkiote hasierako proiektuari. Kantxa, ostera, auditorio eran erabiltzeko ere gertatuko dute.

**INGURUMENA** > ZINE EKOLOGIKOA

# Ingurumena eztabaidagai

Klima aldaketa eta petrolioa izango dituzte berbagai datozen eguaztenetan



Iñaki Barcena aditua Zaraia aretoan atzo, emanaldia aurkezten. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Eguaztenean hasi zuen Udaleko Ingurumen Sailak Zine Ekologikoaren gaineko emanaldia. Ekologistak Martxan taldearekin batera antolatutako lehen saioa Iñaki Barcena adituak gidatu zuen eta zor ekologikoaren gainean jardun zuten,film bat ikusi ondoren. Herritar gutxi elkartu zen emanaldian eta eztabaida interesgarria sortu zen guztien artean bukaeran.

**KLIMA ALDAKETA ETA PETROLIOA**
Ingurumen Sailaren helburua horixe da, ingurumenaren gaineko eztabaida sortzea herritarren artean eta daukagun bizi maila eta ohituren gaineko hausnarketa bultzatzea. Horretarako, beste bi gai landuko dituzte datozen eguaztenetan (19:00), Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan, Ekologistak Martxan taldeko kideekin: hilaren 21ean, klima aldaketaren gainean jardungo du Carlos Alonsok eta hilaren 28an petrolioa eta energia izango ditu berbagai Martin Mantxok.

**BIRZIKLAPENA IKUSGAI**
Bestalde, kultura etxeko erakusketa aretoan birziklapenaren gaineko erakusketa dago hil osoan. Birbira talde nafarrak egindako *Birziklatuz sortu* erakusketak hondakinen gaineko hausnarketa bultzatu gura du.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Osoko bilkura astelehenean, hainbat proiektu onartzeko

Estatuko Gobernuaren dirulaguntza eskaintzarekin egiteko dira proiektuok

**M.A.** > ARETXABALETA
Astelehenean, hilak 19, ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak (18:00). Espainiako Gobernuak eskainitako dirulaguntzarekin zein proiektu egin erabaki beharko dute.

**MILIOI BAT EURO**
Krisiari aurre egiteko iragarritako neurrien artean dago Zapaterok egindako dirulaguntza eskaintza, eta biztanle kopuruaren arabera emango dute. Hala, Aretxabaletarako 1.160.866 euro iragarri dituzte.

Dirulaguntza hori eskuratzeko, proiektuak aurkeztu behar dituzte orain udalek, urtarrilaren 24a baino lehen. Eta, hain zuzen, zein proiektu aurkeztu erabakiko dute asteleheneko osoko bilkuran. Laguntza osoaren %70 aurreratuko du hasieran Espainiako Gobernuak eta gainerako %30a lanak bukatzen dituztenean iritsiko da. Lanok, gainera, aurtengo apirilaren 13rako hasita izan beharko dute, eta 2010eko lehenengo hiruhilabetean bukatuta.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**AISIALDIA** > LUDOTEKA

# Gaztetxoendako da ludoteka domeketan

8 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako zabaltzen dute, 17:30etik 19:30era bitartean


Neska-mutikoak jolasean Algara ludotekan. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Domeka arratsaldeetan ateak zabaltzen hasi da Algara ludoteka. 8 eta 12 urte bitarteko neska mutikoendako zabaltzen dute; hau da, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara artekoendako. Gainera, ez dute ludotekako bazkide izan beharrik, jolasetan parte hartzeko eta ondo pasatzeko gogoa bakarrik. Joan den domekan zabaldu zuten neguko denboraldia eta martxoaren 29an bukatuko dute.

**ORAINGOAN, KARAOKEA**
Ludoteka 17:30etik 19:30era egongo da zabalik domeketan. Gazteria Sailak abian jarritako egitasmoaren ardura Loramendi Euskara Elkarteak dauka eta helburua da lagunartean irteten diren neska-mutikoei ondo pasatzeko aukera eskaintzea, horretarako toki aproposa utzita. Hala, gaztetxoen aisialdia beteko du egitasmoak; izan ere, 8 urtetik beherakoek ludotekara joateko aukera dute astean zehar eta 12 urtetik gorakoek gaztelekua dute topagune.

Antolatutako jolasak eskainiko dizkiete domeka arratsaldeetan ludotekan; joan den domekan, esaterako, mahai jolasak egin zituzten. Eta oraingoan, hilak 18, karaokea izango dute kantuan egiteko gura beste. Batzuetan begiraleek proposatutako jolasak eta aurrez antolatutako ekintzak egingo dituzte, eta besteetan, neska-mutikoen nahiak betetzen saiatuko dira; hain zuzen, hainbat ekarpen egin zituzten domekan elkartutako gaztetxoek.

> ZINEMA

## 'Quemar después de leer' eta Asterix eta Obelixen gorabeherak, aste bukaerako film emanaldiak

Coen anaien *Quemar después de leer* filma izango da gaur eta bihar (22:00) eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) Arkupeko Zaraia aretoan. Komedia giroko filma da eta aktore ezagunak daude, tartean George Clooney, John Malkovich eta Brad Pitt. Gaztetxoek, ostera, Asterix eta Obelixen gorabeherak izango dituzte domekan (17:00): *Astérix en los Juegos Olímpicos*.

Bestalde, ipuin kontaketa izango da bihar (11:30) liburutegian. Kirrimarro taldeak *Ingurugiromarian* ipuina eskainiko du.

> IKASTAROAK

## Pinturan eta zeramikan hasteko eta eskulan dotoreak egiteko ikastaroak urtarrilean

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak. Pintura eta eskulan eskolak aurretik daude hasita eta orain zeramika ikastaroa hasiko dute Jose Fuensanta aretxabaletarrarekin. Ume txikiak ez dituzte onartuko ikastaroan, gutxienez 10 urte izan beharko dute izena ematen dutenek.

Pintura eskolak udazkenean hasi zituzten, baina oraindik lekua daukate, eta eskulanetan ere bai. Izena emateko Arkupe kultura etxera deitu behar dute interesatuek (943 08 10 01).

> INTERNET

## Osasun txartel elektronikoa ateratzeko aukera dago Markole auzoan dagoen KZgunean

Goizetan dago zabalik urtarrilean KZgunea (09:00-13:00), eta hainbat ikastaro eskaintzen dabil; sinadura digitalaren eta irudi digitalen gainekoak, esaterako. Gainera, administrazioarekin zelan jarri harremanetan Internet bidez erakutsiko dute hilaren 19tik 28ra bitartean (09:00-11:00). Osasun Txartel Elektronikoa eskuratzeko aukera ere badago, eta IT txartela eskuratzeko azterketak ere egin daitezke: urtarrilaren 16an eta 21ean (11:00) eta 30ean (09:00). Ikastaroak eta azterketak egiteko aurrez deitu behar da (943 79 94 44).

IOSU
harategia
taberna
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08




**ARATUSTEAK** > ARGAZKI ZAHARRAK

# Aratusteetan ateratako argazki zaharren bila dabil Udaleko Argazki Artxiboa

**M.A.** > ARETXABALETA

Argazki Artxiboak herritarren laguntza gura du Aratusteetan ateratako argazki zaharrak jasotzeko. Otsailaren 22an ospatuko den Aratuste-domekari begira proiektutxo bat darabil esku artean artxiboak, eta hori aurrera ateratzeko ezinbestekoa du argazkiak biltzea. Aratusteetako argazki zahar oso gutxi dituzte jasota artxiboan, eta herritarrek etxean gordeta dituztenak pilatu gurako lituzkete. Argazki kamera digitalarekin ateratakoak eta paperean daudenak, guztiak jasoko dituzte, eta paperean daudenak eskaneatu ondoren itzuli egingo dizkiete jabeei.

Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan utzi behar dituzte argazkiok herritarrek, Kultura Saileko teknikariak dauden bulegoan, eta argibideak ere emango dizkiete. Hona ordutegia: 09:00-13:00 eta 14:00 eta 17:00.



1994ko Aratusteetan ateratako argazkia. GOIENKARIA

**DANTZA** > DANTZA LIBRE TOPAKETA

# Dantza librea landuko du Jaiki elkarteak, eguenean hasita

Kuartel zaharreko dantza aretoan elkartuko dira hileko eguen baten; hurrengo hitzordua urtarrilaren 22an da (18:00-20:30)



Jaiki elkarteko kideak topaketa baten. JAIKI

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Dantza libre topaketa antolatu du Jaiki elkarteak. Hilean eguen baten elkartuko dira dantza librea lantzeko, eguen honetan hain zuzen, eta izenemate epea zabalik dago.

Kuartel zaharreko bigarren solairuan egingo dute topaketa, sasoi baten dantza aretoa izandako gelan. Bi ordu eta erdiko saioak izango dira (18:00-20:30) eta hurrengo hitzorduak honakoak: urtarrilak 22, otsailak 19 eta martxoak 12. Dantza librean aditua den Isabel Alzola izango dute irakasle eta gidari elkartzen direnek.

Izena aurrez eman behar dute interesatuek telefono zenbaki honetara deituta: 669 05 80 33. Edo honako helbidera idatzita: *berenaiara@yahoo.es*.

**MUSIKA ETA MUGIMENDUA**

Dantza libre topaketan izena emateko ez da aparteko prestakuntzarik izan behar. Antolatzaileen esanetan musika eta mugimendua landuta hobeto sentitu gura duen edonorendako da. Erabiltzen duten teknika grabitatean, pisuan, oreka-desorekan eta entzumenean oinarritzen da. Eta teknikaren helburua da mugimendua era naturalean sortzea, blokeoak saihestuz eta alferreko esfortzurik egin barik. Gainera, dantza libreak espresatzeko gaitasuna hobetzen du: "Gozatu, dantzan egin, sortu eta azken finean bizi egiten dugulako", azaldu dute Jaiki elkarteko kideek.



**OSASUNA**> ODOL EMAILEAK

# Urteko lehen odol ateratzea egingo dute gaur arratsaldean

Odol ateratzea, betiko moduan Txantxiku Ikastolan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara

Oñatiko odol emaileen elkarteak emaileei bidali die urteko 10 ateratzeen egutegia

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Oñatiko odol emaileen elkarteak antolatuta, gaur egingo dute urteko lehen ateratzea. Hain justu ere, Txantxiku ikastolan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Donostiako mediku eta erizainak egongo dira odola ateratzen.

Gaurko ateratzea eta urteko gainerako ateratzeak zein egunetan egingo dituzten gogoratzeko, gutunak bidali dizkiete odol emaileei. Oñatin, urtero hamar ateratze egiten dituzte; uztailean eta abuztuan izan ezik, gainerako guztietan. Ondoko taulan ikus daiteke hil bakoitzeko zein egunetan egingo dituzten ateratzeak. Emaileek jaso duten gutunean, bestalde, azpimarratzen dute emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezaketela odola, eta gizonezkoek lau. Norberak erabakitzen du noiz eman odola.

**DEI BEREZIA EGITEN DUTE**
Odol ateratzeen egutegia hastear dagoela-eta, odola emateko dei berezia egin gura dute odol emaileen taldekoek. "Oñatiko odol emaileen kopurua nahiko ona da, baina urterik urte jaisten doa. Horregatik, dei berezia egin gura diegu odol emaile potentzial direnei. Urtero, adinarengatik edo gaixotasunengatik asko dira *erretiroa* hartzen dutenak, eta horiendako errelebua behar dugu". Odol bankuan gabeziak daudenean, emaileek ondo erantzuten dutela esan digute, "baina bi ateratzeen ondoren, kopuruak behera egiten du berriro".

2008an 652 ateratze egin zituzten Oñatin. Irailean eta ekainean egin zituzten ateratze gehien, 89 eta 81 hurrenez hurren. Aldiz, martxoa eta azaroa izan ziren hilabeterik txarrenak; 44 ateratze bakarrik egin zituzten.

### Hileroko odol ateratzeak

- Urtarrilaren 16a
- Otsailaren 13a
- Martxoaren 13a
- Apirilaren 24a
- Maiatzaren 8a
- Ekainaren 12a
- Irailaren 11
- Urriaren 9a
- Azaroaren 9a
- Abenduaren 13a

**LANAK** > KRISIARI AURRE EGITEKO DIRULAGUNTZAK

# Krisiari aurre egiteko fondotik 1,9 milioi euro jasoko ditu Udalak inbertsioetarako

Postetxeko autobus geltokia eta inguruko urbanizazioa berritu, kanposantuko bidea konpondu eta Euskadi etorbideko oztopoak kenduko dituzte



Autobus geltoki nagusia postetxearen atzealdetik aurrealdera aldatuko dute. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Krisi egoerari aurre egiteko neurrien artean, Estatuko udalen artean zortzi milioi euro banatzea onartu zuen Madrilgo Ministroen Kontseiluak azaroaren 28an. Estatuko udalek inbertsioak egitea eta horien bidez lanpostuak sortu eta langabeak kontratatzea da Estatu Fondoaren helburu nagusia.

Dirulaguntza banaketa biztanle kopuruaren arabera egin du Madrilgo Gobernuak; hala, Oñatiko Udalak, guztira, 1,9 milioi euro jasoko ditu. Udalak dagoeneko hiru proiektu bidali ditu Madrilera, eta guztiak onartzen dituztela dioen erantzuna jaso berri dute.

**GELTOKIA LEKUZ ALDATU**
Autobus geltoki nagusia eta inguruko urbanizazioa berritu, kanposantuko bidea konpondu eta Euskadi etorbideko arkitektura oztopoak konpontzeko proiektuak egin ditu Udalak.

Postetxe atzean dagoen autobus geltokia gaur egun dagoen tokitik kendu gura du Udalak, eta postetxe aurrean jarri. Era berean, komunak jarriko dituzte. Hala, libre geratzen den tokian parke bat egokitu gura dute.

Bestalde, Ibarra zelaiaren sarreran biribilgunea egingo dute, autobusek bira eroso eman dezaten.

**KANPOSANTUKO BIDEA**
Kanposantuko bidea hasten den tokian birbilgunea egingo dute, zirkulazioa eta oinezkoen ibilbideak ongi antolatzeko. Gainera, hilerriko bidea eraberritu egingo dute. Egoera txarrean dagoen horman ezponda egingo dute, egun dauden zuhaitzak mantentzeko aukera emango duena. Hilerrian egingo duten errepidea berrian bizikletendako bidegorria egokituko dute, eta aldameneko zelaian jolasparkea egingo dute.

Azkenik, irisgarritasun planarekin jarraituz, Euskadi etorbidean eta inguruetan arkitektura oztopoak kenduko dituzte. Udalak egindako proiektuan Euskadi etorbidean bidegorria egitea aurreikusten dute.

> HITZALDIA

### Bi hitzaldi egingo dituzte Elkar Hezin hurrengo astean

Elkar Hezi ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatuta bi hitzaldi egingo dituzte hurrengo astean; hain zuzen ere, hilaren 20an, martitzena, eta hilaren 22an, eguena.

Martitzeneko hitzaldian elikadura izango da oinarri nagusia. 0 eta 6 urte arteko haurrengan elikadurak duen garrantziaz egingo du berba ISEP kabineteko adituak. egingo du Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian, 18:30ean.

Bestalde, eguenean, *Autoestimoa nerabezaroan: nola sustatu familiatik?* delako hitzaldia egingo du Jose Amiama psikopedagogoak. Bigarren Hezkuntzako E gelan egingo dute, 18:30ean.

> LANAK

### Errekaldetik Lizargaraterainoko pistan, konponketak

Errekaldetik Lizargaratera doan pistaren egoera txarra denez, Aurreko Mendiko jabeek pista konpontzeko egindako eskaera onartu du Udalak. Hain zuzen ere, uraren eraginez zoruan dauden zuloak estaliko dituzte.

Lizargaratera doan bideak pista izaera duen arren, herritarrek askotan erabiltzen dute Larrañako Aurreko Mendietako baserrietara eta Lizargaratetik Antzuolara joateko.

Bestalde, Udalak gune horretan dituen bi lursailetara heltzeko bide hori erabiltzen du; batean, haritz amerikarra dute landatura (Torre Etxebarri baserri inguruan), eta beste batean, alertzea (Lizargarateko basoan).

> IKASTAROAK

### Hainbat informatika ikastaro antolatu ditu Enplegu sailak

Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailak hainbat informatika ikastaro antolatu ditu; besteak beste, ofimatika eta mekanografia ikastaroa; diseinu teknikoa; informatika teknikoa eta software librea; eta irudien tratamendua. Ikastaro guztiak hiru txandatan emango dituzte: urtarriletik apirilera, maiatzetik uztailera eta urritik abendura. Ikastaro bakoitzeko egutegiak ikasleekin adostuko dituzte.

Informazioa jaso eta izenematea Enplegu Departamentuan (943 03 77 00 telefonoan) edo Ikas Hiru akademian (943 78 31 03 telefonoan) egin daitezke.

GOIENKARIA
2009ko urtarrilaren 16a

UDALA> ELIZATEAK

# Udalaren izenean fakturatuko dira hemendik aurrera gastu txikiak

Elizateek urtero 900 euro jaso ahal izateko, ekimenen ziurtagiria aurkeztu behar zuten

Azken plenoan aldaketa egitea onartu zuten aho batez, behin betiko irtenbidea topatu arte

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Elizateek gastu txikietarako Udalaren eskutik urtero jasotzen duten dirulaguntzan aldaketak egitea onartu zuen udalbatzak, joan den abenduaren 29an egindako osoko bilkuran. Auzoek antolatzen dituzten ekintzen gastuak zuzenean Udalaren izenean fakturatuko dira hemendik aurrera. Aho batez onartu zuten aldaketa egitea.

Orain arte elizate bakoitzak kopuru zehatza jaso du urtero zuzenean, auzolanak aurrera eramateko edo auzoetako jaiak antolatzeko, besteak beste. Lete elizatea izan ezik, gainontzeko guztiek 900 euro pasatxoko laguntza dute aurreikusita; lehenengoak, berriz, 700 euro inguru.

Azken bi urteotan, baina, ezin izan dute dirulaguntzarik jaso. Kopuru hori eskuratu ahal izateko antolatzen dituzten ekimenenen ziurtagiria aurkeztu behar diote Udalari, eta, Elizateetako zinegotzi Leire Okaranzak azaldu duenez, "askotan oso zaila izaten da ziurtagiriak egin ahal izatea. Azken urteotan kopuru hori jaisteaz gain, gero eta formalismo gehiago eta baldintza zorrotzagoak sartzen ari dira udaletxean. Guk beti mantendu dugu, esatebaterako, auzolan bat egiten denean, behar dugun materiala etxetik eramaten dugunean oso zaila dela hori justifikatzea. Gainera, jaietan soinujole bat etortzen denean, soinujoleak ez dizu ziurtagiririk egiten".

**IZAERA GALTZEA**

Arazo horri behin-behineko irtenbidea eman gura izan diote. Okarantzaren esanetan: "Diru kopurua txikia bada ere, guk partida hori elizateen nortasunarekin lotzen dugu. Elizateok badugu berezitasun bat, lan batzuk egiten ditugu hor eta horrek errekonozimendu txikia izan behar du. Gainontzeko elkarteek jarraitzen duten prozesuan sartuz gero, izaera berezi hori galduko genuke".



Zarimuzko elizateak ere 900 euro inguruko dirulaguntza jasotzen du, gastu txikietarako. IKER BARANDIARAN

Behin betiko irtenbidea bilatzen duten bitartean, dirulaguntza hori zuzenean jaso beharrean, Udala arduratuko da zuzenean horiek ordaintzeaz. "Auzoek ez dute diru sarrera hori zuzenean edukiko. Auzoak hainbat ekintza antolatuko du, baina ekintza horiek eragiten dituzten gastu guztiak zuzenean Udalera fakturatuko dira. Tramitazio prozesua erditik kentzen digute elizateei".

Esan bezala, behin-behineko erabakia da abenduaren 29ko osoko bilkuran onartutakoa. Horren gaineko hausnarketa egin beharko dute datozen hilabeteotan.





M.B.

## Merkatarien zozketa Arkaitz Riberarendako

Urtero bezala, herriko merkatariek zozketa egin dute aurtengo Gabonetan bezeroen artean. Egunotan irabazleak eman dituzte ezagutzera. Arkaitz Ribera eskoriatzarrak lehenengo saria eskuratu du: mila euro eta bi pertsonarendako afaria. Plaza parean dagoen Maluta skate eta snow dendak eman du aurten sari hori. Gainontzeko sarituek 100 euroko txartela irabazi dute. Irudian, Arkaitz Ribera mila euroko txartelarekin azaltzen da, Maluta kirol dendako Ruben Testarekin.

UDALA > KONTSULTA

## Madrilgo 700.250 euroko laguntzarako herritarrek 50 proposamen inguru dituzte

Udala oso pozik dago, eskoriatzarrek Madrilgo ezohiko dirulaguntza zertan gastatu behar den proposatu dutelako

M.B. > ESKORIATZA

Espainiako Estatuaren dirulaguntzarako Udalak abian jarritako kontsultak oso harrera ona izan du herritarren artean. Udalak oso balorazio positiboa egin du, guztira 50 proposamen inguru jaso dira-eta postontzietan.

Jakina denez, Espainiako Administrazio Publikoak 700.520 euro bideratuko ditu aurten udalerrira, Udalak inbertsioak egin ditzan. Udal iturriek ez dute oraindik horren gaineko informazio askorik eman nahi izan. Baina jakinarazi dute herritarrek egunero erabiltzen dituzten zerbitzuen gaineko proposamenak jaso direla bereziki. Askok diru kopuru hori bideak konpontzeko erabil daitekeela aipatu dute.

**ASTELEHENEAN BILKURA**

Udalak proposamen horiek aztertzen dihardu eta astelehenerako, urtarrilak 19, osoko bilkura deitu du. Landuko diren gaien artean Madrilgo dirulaguntza horrekin zer egitea erabakitzearena dago. Herritarrek egindako proposamenez gainera, EAJ, EA eta EB udal taldeek ere agiri bateratua adostu dute horren gainean.

ERAKUNDEAK > DIPUTAZIOKO ORDEZKARIEN BISITA

# Markel Olano eta Maria Jesus Aranburu herrian

## Bidegorriko obrak, Huhezi, Santa Marinako etxeak eta zinema zaharra bisitatu zituzten

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Kultura eta Euskara Departamentuko diputatu Maria Jesus Aranburu Eskoriatzako udaletxea eta herriko hainbat bazter bisitatu zituzten martitzenean. Eguerdian harrera ekitaldia egin zieten udalbatzako kideek osoko bilkuren aretoan.

Han izan ziren Pedro Lasagabaster alkatea; Udal Gobernuko kide Dorleta Lezeta eta Dorleta Barandiaran; Aitor Urrutia eta Begoña Eraña zinegotzi jeltzaleak; Elizateetako zinegotzi Leire Okarantza; Udaleko idazkari Edurne Iturbe; eta Iñaki Kortazar, Unai Salaberria eta Igor Elkorobarrutia auzoalkateak.

**OBRAK BISITATZEN**

Diputatu nagusia Eskoriatzak dituen beharrak ezagutzera etorri zela jakinarazi zien osoko aretoan bildutakoei. Ongietorri laburraren ondotik, herriko zenbait obra eta bazter bisitatu zituzten. Lehenik, Diputazioak bidegorrian egiten diharduen lanetara abiatu ziren eta jarraian, Huhezira joan ziren. Nekane Arratibel dekanoa zain zuten han. Santa Marinako etxe tasatuetan eta zinema zaharrean ere izan ziren.



Diputazioko eta Eskoriatzako ordezkariak bisitan. MIRIAN BITERI



Fiachras taldeko kideak. GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

# Fiachras taldea igoko da gaur gauean Inkernuko agertokira

## Betiko etiketak albo batera utzi dituen talde berriak 22:35ean emango dio hasiera kontzertuari

M.B. > ESKORIATZA

Aitzorrotz Kultura Elkarteak gogor ekin dio urteari. Urtarrilerako hainbat ekimen antolatu ditu; tartean, gaur, egubakoitza, Fiachras musika taldeak Inkernu tabernan eskainiko duen kontzertua.

Musika emanaldiari 22:35ean emango diote hasiera. Talde berria da Fiachras. Brigada Criminal taldeko kide ohi Haritz Artolak eta Aitor Aldanondo bergararrak, herri bereko Jon Zangitu eta Txinasko kide ohi Joseba Gartzia de Andoinek osatzen dute. Beti musika mota berdintsua egiteaz aspertuta, jauzia ematea erabaki dute, inolako konplexurik gabe. Horretarako, Iñigo Garces *Cabezafuego* musikari nafarraren laguntza izan dute.

**ETIKETAK ALBO BATERA**

Musika estiloari dagokionez, taldekideen arabera, "bizitza osoa egon gintezkeen punk-rock abestiak egiten, baino oso erraza izango litzateke, eta, batez ere, oso aspergarria". Hortaz, betiko etiketak albo batera utzi eta "betiko" ez den musika egitera animatu dira. Horretarako, gitarra, eskusoinuak, teklatuak eta klarineteak ondoan izan dituzte, besteak beste. Esan bezala, gaur, 22:35ean igoko dira agertoki gainera gipuzkoarrak.



**UDALA** > OHIKO UDALBATZARRA

# Dirulaguntza Kalegoirako eta Eztalarako

Inbertsioetarako Estatu Fondotik 375.000 euro jasoko ditu Antzuolako Udalak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eguaztenean egin zuten udaletxean, hilero moduan, ohiko udalbatzarra. Udal Inbertsioetarako Estatu Fondoaren erabilpenerako proiektatutako inbertsioaren onarpen proposamena ipini zuten mahai gainean. Aurkeztutako proiektuak dira futbol zelaiko eta atletismo pistako obra zibila eta Kalegoi kalearen urbanizazio lanak.

Dirulaguntza 375.000 euro izango da. Erdia erabiliko dute Eztalako obra zibilerako. Madrilgo dirulaguntzarekin obra zibila egin ostean, Eztalarako badago beste proiektu ba: belar artifiziala ipintzea, hain zuzen ere.

Gainontzekoa Kalegoi urbanizatzeko eta herrian beste hobekuntza lantxo batzuk egiteko erabiliko dute. "Kalegoi kalea plaza ingurua moduan egokitzea da asmoa. Gune historikoan dagoenez eta zaharra denez, eskatzen du bide txukun bat izatea", esan digu alkateak. Madrilgo dirulaguntzena aurrez batzordeetan landutako gaia izanik, zinegotzi guztien baiezko botoarekin aho batez onartu zuten proiektu horietarako erabiltzea laguntza.

Finantzatuko diren lan horiek hainbat baldintza bete beharko dituzte: besteak beste, lanak apirilaren 13a baino lehen hastea eta urte amaierarako bukatuta izatea.


Kalegoi kalea plaza ingurua moduan egokitzea da asmoa. I.A.

**ESKOLAKO PATIOKO PROIEKTUA**

Bestalde, Herri Eskolan estalitako jolastokia eta kirolgunea eraikitzeko proiektua idazteko ardura Alvaro Perez de Amezaga arkitektoari ematea erabaki zuten udalbatzarrean. Hura izan da lehiaketara aurkeztu den hautagai bakarra. Esleipena egin ostean, hilabeteko epea izango da proiektua aurkezteko.

Azkenik, alkatearen soldata eguneratzeko proposamenaz ere jardun zuten. Langileen eguneratze bera izango duen arren, udalbatzak berretsi behar du aldaketa. Hortaz, igoera izango da KPI gehi puntu bat.

**AISIALDIA** > ERAKUSKETA

# Iñaki Badiolaren lanak Olaranen

**I. A.** > ANTZUOLA

Aspaldian Donostian bizi den Iñaki Badiola antzuolarraren hainbat artelan ikusgai izango dira aste bukaeran Olaran etxean, ohiko ordutegian: 12:30etik 14:00etara bitartean goizez eta arratsaldez 18:30etik 20:30era.

Badiolak pintura ez ezik eskultura eta argazkilaritza ere landu izan ditu, eta, 20 urtean pintura kontuetan etena egin ostean, berriz heldu zion zaletasunari. Aurrez inoiz erakutsitakoa da bere lanak jaioterrian: udaletxean, hain zuzen ere. Oraingoan, etapa berriko lanak ipiniko ditu ikusgai Olaranen.

Kataluniako Priorato ibarreko Falset herrian dagoen gaztelu batean muralgintza ikastaroa egin zuenBadiolak, Bittor Goikoetxea muralgilearekin, eta ikastaroan egindago mural bat izango da erakusketan.


Erakusketako lanik esanguratsuena mural handi bat izango da.. I.A.

**ARGENTINA ARGAZKITAN**

Horretaz gain, Argentinara egindako bidaia batean ateratako argazkiak ere ipiniko ditu. Argazkiok modu berezian landuta daude, trasfer teknika erabiliz argazkiak eta akuarelak uztartuz.

Lanak herritarrei erakutsiko dizkie Olaranen, baina Iturriotz baserrian ere erakusketa gela ipini du Iñaki Badiolak. Gainera, haren asmoa da beste gela batzuk egokitzea pintura ikastaroak emateko aurrerantzean.

> HIRIGINTZA

## Urte hasieran gertatutako apurketen ostean, plazako lorontzi berriak ipini dituzte

Urteberri egunean plazako lorontziak lurrean botata agertu ziren. Lorontzi berriak ipintzen jardun dute asteon eta jadanik gertu daude. 300 euro inguru behar izan dituzte plazako lorontziak txukun ipintzeko, eta, lehengo moduan, gorostiak ipini dituzte.

> AISIALDIA

## Gazte txokoa zapatu gauetan zabalik egongo da, aste bukaera honetatik aurrera

Bihartik (urtarrilak 17) aurrera, gazte txokoa zapatu gauetan ere zabalduko dute. Hau da gazte txokoko ordutegi berria: zapatuetan 17:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara; eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

> ELKARTASUNA

## Sahararen gaineko hitzaldia egingo du gaur, Olaranen, Garazi Hach Embarek-ek

Gaur, egubakoitza, 19:00etan hitzaldia izango da Olaranen, Anelkarrek antolatuta. Garazi Hach Embarek-ek Saharako egoeraren gainean egingo du berba. Saharako errefuxiatu gune batean jaio zen Hach Embarek. Egun, Ormaiztegin bizi da, baina oso gertutik jarraitzen du bere beste herriaren bilakaera.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**OMENALDIA** > AHOZKO ONDAREA BERRESKURATZEN LAGUNTZEAGATIK

# 29 herritar omenduko ditu Udalak 'ahotsak.com' ekintzan laguntzeagatik

Hilaren 23an, barikuan, egingo dute omenaldi ekitaldia Espaloia Kafe Antzokian

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea berreskuratzeko proiektu batean lagundu dute

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako Udalak 29 herritarri omenaldi ekitaldia egingo die hilaren 23an, datorren barikuan. Espaloia Kafe Antzokian izango da, 18:30ean hasita. Omenaldia izateaz gain, *ahotsak.com* izeneko proiektuaren aurkezpena ere egingo dute bertan.

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea da proiektu horren helburu nagusia. Horretarako, 84 herritako adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jaso dituzte, tartean 29 elgetarrenak.

Proiektuaren ardura Deba Ibarreko Badihardugu Euskara Elkartearena da, Elgetako Goibeko elkartea parte dela. Grabatuta gelditu dira egindako elkarrizketa guztiak eta material horrekin dagoeneko argia ikusi dute Iban Arantzabalek egindako *Elgetako aditz taulak* eta Alberto Telleriak landutako *Elgetako mapa toponimikoa*.

Grabazio guztiak, gainera, *www.ahotsak.com* webgunean daude eskuragarri. "Material hori, aurrerantzean, edozein lan filologiko edo linguistiko egiteko jasota geldituko da. Arrasto bat gordeko dugu Elgeta gerra aurretik zer izan zen jakiteko. Gerra aurreko kontuak artxibatuta geldituko dira", adierazi du *Elgetako aditz taulak*-en egile Iban Arantzabalek. "Eduki hori guztia, bestalde, libre lagatzea erabaki da *www.ahotsak.com* webgunearen bitartez. Ez da beste ikerketa zientifikoetan bezala gertatutako, ikerlariak berarendako gordetzen duela jasotako materiala".

**29 PARTE HARTZAILE**

Elgetan 29 lagunek hartu dute parte proiektu horretan. "29 hizlari mila biztanleko herri batean kopuru polita da", esan du Arantzabalek. "Jendeak euskara laguntzeko proiektua dela ulertzen duenean ateak zabaltzen ditu, besteak beste zentsura bizi izan dutelako".

Kondaira zaharrak, eskolako kontuak, baserriko lanak... askotariko gaiak izan dituzte hizpide Elgetako elkarrizketatuek. Lanabesen izenak, deitura toponimikoak... gauza asko jaso dira eta beste asko artxibatuta geldituko dira etorkizunean erabilpena emateko.

Hilaren 23ko ekitaldian grabazio horietako batzuk ikusteko aukera egongo da Espaloian. Oxel Erostarbe alkateak 29 hizlariek eskainitako laguntza eskertuko du. Iban Arantzabalek hitzaldi txiki bat egingo du eta Badihardugu elkarteko kide batek proiektua bera eta webgunea aurkeztuko ditu. Omenduek, azkenik, Udalak emandako oroigarria jasoko dute. Herritar guztiak daude ekitaldian parte hartzera gonbidatuta.

## Omenduen zerrenda

1. Luis Altzuaran
2. Isabel Arantzabal
3. Antoni Arantzabal
4. Rosario Arantzabal
5. Sebastian Arantzabal
6. Arantzazu Arantzeta
7. Miren Arantzeta
8. Angeles Arantzeta 'Ermentarikua'
9. M. Luisa Arantzeta 'Ermentarikua'
10. Jose Luis Arantzeta
11. Bernarda Arizmendiarrieta
12. Nati Arrieta
13. Endrike Astola 'Beizu'
14. Sebastiana Atorrasagasti
15. Juanita Beretxinaga
16. Miren Lorea Billar
17. Migel Elkoro 'Asurtza'
18. Antoni Elkorobarrutia
19. Candido Elortza 'Azula'
20. Juan Erostarbe
21. Begoña Arantzeta
22. Juana Errasti
23. Jose Luis Gallastegi
24. Antonio Iturricastillo
25. Leandro Maiztegi
26. Juan Ramon Irazabal
27. Lucio Sarasketa
28. Juan Untzetabarrenetxea 'Zezia'
29. Ramon Zabala 'Sanders'




GOIENKARIA

## Gudarien omenezko ekitaldia

Gudarien omenezko urteroko ekitaldia egin zuten joan den urtarrilaren 4an Intxortan. Antolatzaileen hitzetan, 200 lagunetik gora batu ziren Intxorta gainean. 11:00etan salda eta sagardoa banatu zituzten eta 11:30ean ekitaldia egin zuten.

Amaitutakoan, ikusgai duzuen taldeko argazkia atera zuten Intxorta gainean. Jarraian, herrira jaitsi eta poteoa egin zuten 70 bat lagunek.

**KULTURA** > ERAKUSKETA

# Udan Ganbian ateratako argazkiak ikusgai hil osoan

'Begiradak' delako erakusketak Aitor Aulestiarteren argazkiak batzen ditu Espaloian

**L.Z.** > ELGETA

"Argazki hauek zuri-beltzean eginak dauden arren, Ganbia biziz, kolorez eta alaitasunez beteriko herrialdea da", azaldu du Aitor Aulestiarte ondarrutarrak. Udan izan zen Ganbian eta makina bat argazki ekarri du bertatik. Ez da Afrikara egiten duen lehenengo bidaia. Espaloian zintzilikatu dituen argazkiak hil amaierara arte egongo dira ikusgai. Bertan, begiradek indar handia dute.

**GANBIA EZAGUTZEKO**

Ganbia 1.800.000 biztanle dituen Afrika mendebaleko herrialdea da. Hiru erlijio –musulmanak, kristauak eta animistak– eta hamar etnia batzen dira han. Biztanleria aktiboaren %75 inguruk nekazaritzan dihardute. Arroza eta artatxikiaren laborantza eta behi, ardi, ahuntz eta oiloen hazteak barne-kontsumoa du helburu. Kakahuetearen ustiaketa kanpo merkataritzarako da.



Aitor Aulestiartek ipini du *Begiradak* delako erakusketa Espaloian. L.Z.

> INTXORTAKO ATEA

## Eusko Jaurlaritzak Intxortako Atean apirilean egindako pintadak garbitzeko laguntza ukatu du

Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Zuzendaritzak ukatu egin du Intxortako Atean apirilean egindako pintadak kentzeko dirulaguntza. Udalak 5.515,43 euro ordaindu ditu pintadak garbitzeagatik, eta Oxel Erostarbe alkateak gogor kritikatu du Jaurlaritzaren erabakia.

Aralartik helegitea aurkeztuko dutela jakinarazi dute. Eusko Jaurlaritzari ausardia eskatu diote, besteak beste, biktimen arloan defendatzen duena ekintzetara eramateko.

> AISIALDIA

## Barikuetan, lau astez bitxigintza tailerra egingo du Udalak, ludotekan, hilaren 23an hasita

Bitxigintza tailerra 7-16 urte bitarteko umeendako antolatu du Udalak. Hilaren 23an hasi eta otsailaren 13ra bitartean egingo dute, barikuetan, ludotekan, 17:30etik 19:00etara.

Bertan parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago eta ludotekan dauden umeendako doan izango da. Gainerakoek sei euro ordaindu beharko dituzte. Ludotekako hezitzaile Mireia Berriozabalek hartuko du ikastaroaren gidaritza bere gain. Izena emateko epea zabalik dago ludotekan bertan.

> LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

## Hautesleek ikusgai dute errolda udaletxean; hilaren 19ra arte egin daitezke erreklamazioak

Herritarrek ikusgai dituzte udaletxean hautesleen erroldak. Erreklamazioak aurkezteko epea hilaren 19ra arte dago zabalik. Udalak urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra bitartean egin beharko du hauteskunde mahaiko kideak hautatzeko zozketa. Aurkeztutako hautagaitzak hilaren 28an argitaratuko dituzte Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta hauteskunde-kanpaina otsailaren 13an hasiko da, 00.00etan.

**HIRIGINTZA** > PLAN OROKORRA

# Stoa enpresak proposatzen du 15 auzoetatik 8 izendatzea landagune

## Stoa enpresak Plan Orokorrerako landutako proposamena ikusgai dago osoko bilkuren aretoan

## Udalak Aholku Kontseilua sortuko du herritarren proposamenak jaso eta Stoari bideratzeko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Stoa enpresak Plan Orokorrerako bere proposamena aurkeztu dio Udalari, eta herritarren eskura dago osoko bilkuren aretoan. Stoak egindakoa, baina, proposamena besterik ez da, Udalak erabaki beharko du-eta hori onartu ala ez. Horretarako herritarren iritziak kontuan hartuko dituztela adierazi du Udal Gobernuak.

Plan Orokorrak jakin-min handia eragin du herrian. Ez da gutxiagorako ere, Plan Orokorraren araberakoa izango da-eta datozen urteetako herriaren garapena hirigintzari eta antolamenduari dagokienez. Baina, dena dela, auzoetako bizilagunengan piztu du jakin-min handiena planak; izan ere, Plan Orokorrak zehaztuko du ze lur izendatuko diren landagune moduan (gune rurala) eta ze lur herrigune (gune urbanoa) moduan.

**HERRIGUNEAK ETA LANDAGUNEAK**

Stoa enpresak aurkeztutako proposamenak zenbait aldaketa planteatzen ditu lurren kalifikazioari dagokionez. Gaur egun 15 landagune daude Aramaion: Oleta Goikoa, Oleta Behekoa, Gantzaga, Etxaguen, Arriola, Arexola, Uribarri, Gureia, Altzaga, Azkoaga, Barajuen, Zabola, Untzilla, Suña eta Salgo. Stoak proposatzen du horietatik zortzi mantentzea landagune moduan: Gantzaga, Etxaguen, Arexola, Gureia, Azkoaga, Barajuen, Suña eta Untzilla. Zabola eta Oleta, berriz, herriguneak izango lirateke. Gainontzeko auzoak ez dira bi kalifikazio horietako batean ere sartzen.

Lurren eta auzoen kalifikazioak garrantzi handia dauka; izan ere, horrek zehaztuko du, besteak beste, etorkizunean zenbat etxebizitza, non eta ze motatakoak eraiki ahalko diren gune horietan. Landaguneetan etxebizitza oso gutxi eraiki daitezke, eta herriguneetan, berriz, etxebizitza gehiago eraiki daitezke. Bi kalifikazio horietatik kanpo gelditzen diren lurretan, bestetik, ezin izango da inolako etxebizitzarik egin, Plan Orokorra martxan dagoen urteetan, behintzat. Hau da, Arriola, Uribarri, Altzaga eta Salgon ezin izango da etxebizitzarik eraiki.



Aramaioko Barajuen auzoa. JONE INUNTZIAGA

**IBARRA**

Ibarrarako ere zenbait proiektu proposatzen ditu Stoak. Errepide berri bat egingo litzateke: Arbel pentsu biltegitik aterako litzateke eta Pedro Ignazio Barrutia kalearen ostetik Etxagueneko bidera aterako litzateke errepide berria. Horren helburua da herriaren erdigunean zirkulazio txikiagoa egotea. Pedro Ignazio Barrutian eta eskola atzealdean, bestetik, etxebizitzak eraikiko lirateke. Ibargoiatik gorako bailaran, berriz, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak eraikitzea planteatzen da.

Industrialdea ere kokatu du Stoak. Herriaren sarreran egongo litzateke, Salasan baserriaren parean. Gainera, industrialdetik oinezkoendako bide bat eraikitzea proposatzen da herriraino. Kiroldegiaren gunea handitzea ere aurreikusten du Stoak kirolgunea han kokatzeko; eskolaren azalera ere hedatu egingo litzateke eta zaharren egoitza egitea ere jasotzen da Stoaren planean: Lurgorri pasealekuan, hain justu. Udal Gobernuak adierazi du ados dagoela Stoak Ibarrarako landu dituen proiektuekin, "auzoetan ez bezala Udalak egindako proposamenak errespetatzen dituztelako".

AHOLKU KONTSEILUA

### Hilaren 24an aurkeztuko dituzte Plan Orokorra eta Aholku Kontseilua

Udal Gobernuak proiektua jaso bezain pronto adierazi zuen ez zetorrela bat haren helburuekin eta alegazioak egingo dizkiotela Stoak aurkeztutako lanari. Aldaketa horiek proposatzeko orduan herritarren iritzia jaso nahi dute. Asier Agirre alkateak adierazi du Plan Orokorreko Aholku Kontseilu bat eratzen dihardutela. Bertako kideak izango dira herriko sektore askotariko ordezkariak (gazteak, merkatariak, ingurumen arloan lan egiten duten taldeak...), auzo alkateak, Udaleko alderdi politikoetako ordezkariak, Hirigintza batzordeburua eta alkatea. Kontseilu horrek zuzenean jasoko ditu herritarren proposamenak eta aurkeztu egingo dizkio Stoa enpresari.

Aholku Kontseilu hori aurkezteko eta Plan Orokorraren gaineko informazioa emateko bilera irekia deitu du Udal Gobernuak hilaren 24rako, 11:00etan. Gainera, herritarrei azalduko diete Plan Orokorrari alegazioak aurkezteko jarraitu beharreko pausoak.




GOIENKARIA

## D3Mren alde sinadura bilketa egingo dute

Aramaioko herritar talde batek agerraldia egin zuen martitzenean 'Demokrazioa 3.000.000' plataformaren alde sinadurak biltzeko deialdia egiteko. Plataforma hori martxoaren 1eko hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko 18.000 sinadura batu beharko dituzte; Araban 2.842 sinadura, hain justu. Aramaioarrek udaletxean sinatu beharko dute urtarrilaren 23a baino lehen: astelehenetik barikura, 08:30etik 15:00etara bitartean; eguenetan arratsaldean ere sinatu ahalko da, 17:30ak arte.

**HERRI ANTOLAMENDUA** > PROIEKTUA IKUSGAI

# Aramaioko herrigunea antolatzeko herritarren laguntza nahi du Udalak

## Aparkalekuak eta zabor edukiontziak non ipini erabakiko da, besteak beste

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udal Gobernuak herrigunea berrantolatu nahi du; hau da, aparkalekuak eta zabor edukiontziak non ipini zehaztu. Eta oinezkoendako ze kale edo ze gune bihurtu ere erabaki nahi dute.

Berrantolamendu horretarako, baina, herritarren laguntza nahi dute. Horretara, herriko sektore askotariko ordezkariekin bildu ziren orain dela aste batzuk. "Herritarrak dira euren auzoak eta kaleak ondoen ezagutzen dituztenak, eta euren proposamenak oso aberasgarriak dira. Herritarrekin egindako bilera horiei esker gure hasierako proiektua hobetzea lortu dugu", azaldu du Asier Agirre alkateak.

Proiektu hori orain publiko egin dute eta 20 egunean udaletxeko osoko bilkuren aretoan ikusgai egongo da. Udal Gobernuak herritarrak gonbidatu nahi ditu proiektu hori ikusi eta aztertzera. Bilera horietan egon ezin izan ziren herritarren proposamenak jaso nahi dituzte.

Proiektua Hirigintza batzordean onartu ondoren apurkaapurka lanak egiten hasiko direla azaldu du alkateak.




Arlabango plan bereziak Arlaban gaineko lurrei eta Gatzagain ingurukoei eragingo die. MIRARI ALTUBE

UR-DEPOSITUA

### Landagipuzkoa egitasmora dirulaguntza eskaera

Arlabango plan berezia onartu eta abian jarri ahal izateko beste ur-depositu bat egin beharra daukate Gatzagan. Halaxe uste du, behintzat, Eusebio Villar alkateak, uda parteko hilabeteetan oso ur gutxi iristen delako Gaztainuzketako mendi etxeetara Maroto basoko iturburutik. Eta nekazaritza turismoarekin zerikusia duten ostatuak eta enpresak Arlabanen kokatuz gero oraindik ur gehiago beharko dute. Hori horrela, Gatzagain jatetxetik gertu deposito berria egitea daukate aurreikusita, eta bertara ura eroatea herria urez hornitzen duen depositutik.

Lan horiek guztiek, baina, Udalak bere gain hartu ezin duen diru kostua daukate –550 milioi inguru– eta dirulaguntza eskaera egin dute Landagipuzkoa egitasmora –1.000 biztanle baino gutxiago duten herriendako egitasmoa–. Abenduaren 29an bukatu zen eskaerak aurkezteko epea eta hil honen bukaera aldera jasoko dutela erantzuna uste dute udal ordezkariek.

**HIRIGINTZA** > ARLABAN GAINEKO PLAN BEREZIA

# Alegazio bi aurkeztu dizkiote Arlaban gaineko planari

Proiektua egin duen taldeak aztertuko ditu alegazio horiek eta Udalak onartu edo ez erabakiko du gero

Landagipuzkoa egitasmora bideratuta daukate dirulaguntza eskaera

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Urtarrilaren 2an bukatu zen Arlaban gaineko plan bereziari alegazioak aurkezteko epea, eta alegazio bi jaso dituzte udaletxean. Proiektua egin duen Toledo taldeari bideratu dizkio alegazio horiek Udalak eta herritar horiek eskatu dutena egin daitekeen edo ez aztertu beharko dute orain. Toledo taldeak Udalari jakinaraziko dio aztertutakoa, eta azken erabakia udal ordezkariek hartuko dute.

**ERAIKITZEKO LUR GUTXI**

Bigarren aldiz aurkeztu du Udalak Arlabango plana herritarren aurrean –lehena 2007ko maiatzean, aurreko agintaldiko udalbatzak–. Orduan ere hainbat herritarrek alegazioak aurkeztu zizkioten planari eta orain dagoen udal taldeak aldaketa batzuk egitea erabaki zuen. Garrantzitsuena, planean sartutako lur kopurua murriztea. Hala, Arabako mugaraino dauden lursail guztiak sartu beharrean, Arrikurtz baserriraino daudenak sartu dituzte bigarren proposamen horretan. Azaroan eman zieten bigarren proiektuaren berri herritarrei eta Arlaban inguruan lurrak dituzten jabe batzuk ez zeudela guztiz konforme jakin zuen Udalak. Desadostasunetako bat da eraikitzeko oso lur gutxi aurreikusi dutela proiektuan. Eusebio Villar alkatea gertu azaldu zen eztabaidarako eta adostasunak lortzeko.

**HELBURUA ARAUTUTA UZTEA**

Plan bereziarekin, Arlaban eta Gatzagain inguru guztia araututa utzi gura du Udalak. Horrek zehaztuko luke non eraiki daitekeen eta non ez, eta eraikitakoak zein baldintza bete behar dituen. Era berean, turismo alorra erakarri gura dute herrira. Plan barruan 45 hektarea sartu dituzte, eta honela banatu: nekazaritza turismorako, 17; nekazaritza ekipamenduetarako, 4; ingurumenaren babeserako, 10; eta Aizkorri-Aratz parkeko mugetarako, 14. Nekazaritza turismorako aurreikusitako 17 hektarea horietatik %5 bakarrik izango dira eraikitzeko; hau da, ostatu eta antzekoak jartzeko, eta gainerakoa aisialdirako gunea izango da.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Osoko bilkura, Espainiako Gobernuaren diruarekin zein proiektu egin erabakitzeko

**M.A.** > GATZAGA

Datorren eguaztenean, hilak 21, osoko bilkura egingo du udalbatzak (19:15). Ezohikoa izango da, eta Espainiako Gobernuak krisiaren ondorioak arintzeko iragarritako dirulaguntza eskaerak zein proiektutara bideratu erabaki beharko dute, beste gai batzuekin batera.

Biztanle kopuruaren arabera banatutako laguntzak dira udazkenean Zapaterok iragarri zituenak, eta Gatzagarako 44.247 euro aurreikusi dituzte –Debagoieneko herrien artean diru gutxien jasoko duena–. Diru horrekin zein proiektu egin daitekeen herrian aztertzen dabiltza azken asteotan: "Izan ere, ez da dirutza handia", dio Eusebio Villar alkateak.

Proiektuok urtarrilaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira, eta beste hiru baldintza ere bete behar dituzte: apirilaren 13rako hasita egon beharra, 2010eko lehen hiruhilabetean bukatuta eta lanak egingo dituztenak langabeak izatea.

**HILAREN 29AN, OHIKOA**

Urtarrilaren 29an, eguena, ostera, bi hilabetean behin egiten duten ohiko osoko bilkura izango da. 2009ko udal aurrekontua aurkezteko goiz dela oraindik jakinarazi digu alkateak, "baina nork daki...".

Gatzagako aurrekontua 400.000 euroren bueltan ibiltzen da, eta inbertsioak egiteko oso diru gutxi izaten dute; iaz, 70.000 euro. 2009ko aurrekontua kanpotik datozen dirulaguntzen araberakoa izango da: "Landagipuzkoa egitasmora egindako laguntza eskaerak baldintzatuko du, neurri handi baten. Horregatik, erantzuna jaso aurretik ezin ditugu aurreikusi partida guztiak", argitu digu Villarrek.

> HEZKUNTZA

### Danborrak astinduko dituzte martitzenean herriko umeek

San Sebastian eguna da martitzenean, hilak 20, eta Donostia eta Azpeitian ez ezik, Debagoieneko ikastetxeetan ere astinduko dituzte danborrak. Gatzagan ere egingo dute danborrada, martitzen goizean (11:30) hain zuzen, San Migel plazara irtengo dira eskolako umeak Sebastianen omenezko kantua abestu eta danborra jotzera. Hainbat entsegu egin dituzte azken astean eta martitzenerako gertu izango dute ekitaldia. Sei ume dabiltza eskolan, eta guztiak izango dira danborradan.

Txomin Uriarte eta Victor Ruiz de Gauna dira EMF datozen lau urteotan zuzentzeko hautagaiak

Proiektuak aurkezteko garbitasuna, 'talante' hobea eta ingurumen saila sortzea, kluben eskaeren artean

**EMF** > HAUTESKUNDEAK ELGETAN

# Euskal Mendizale Federazioak presidente berria izango du bihar

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bihar erabakiko dute Elgetan datozen lau urteotan nork gidatuko duen Euskal Mendizale Federazioa. Presidente hautatzeko hauteskundeak egingo dituzte biharko batzar orokorrean, eta batzarreko ordezkariek bi hautagai izango dituzte aukeran: Txomin Uriarte eta Victor Ruiz de Gauna.

Lehenengo hautagaiaren taldean Antxon Bandres, Arantza Jausoro –orain arteko presidentea–, Javier Antunez eta Alberto Zerain egongo dira. Beste taldeari dagokionez, Victor Ruiz de Gaunaren taldean daude Luzio Alzaga, Agurtzane Gayo, Joseba Pueyo eta Iñaki Rojo.

**HELBURUEN GAINEAN**

Euskal Mendizale Federazioak izan behar duen helburuen gainean, Uriarterendako azken urteotan egin den lana finkatzea izango da erronka nagusiena, eta lau urte barru EMF gidatzeko ardura hartuko duen talde gazte bat sortzeko ere egingo du lan.

Ruiz de Gaunak, berriz, klubetatik gertu egongo den federazioaren alde egin gura du, eta horretarako zona geografiko bakoitzean aldiro-aldiro batzarrak egitearen aldekoa da.

**IBARREKOEN IKUSPUNTUA**

Bihar Elgetan aukeratzen dutena aukeratzen dutela, Debagoieneko bi mendi talderi, Besaide Mendi Taldeari eta Aloña Mendiko mendi sailari, eskatu dio GOIENKARIAk EMFko zuzendaritza talde berriari zer eskatuko liokeen azaltzeko: "Orain artekoa baino argitasun handiagoa kontu askotan", adierazi du Besaideko ordezkari Karmelo Bergaretxek: "*Talante* hobea eskatuko nioke presidente berriari, orain artekoaren jarrera ez zaidalako gustatu, eta elkarteei proiektuak garbi aurkezteko esango nioke".

Aloña Mendiko mendi sailak, berriz, eguazten arratsaldean egin zuen batzarra, eta besteak beste gai horren gainean egin zuten berba: "Bi gauza eskatuko dizkiogu guk. Lehena, ingurumen sail bat sor dezatela. Izan ere, autobideak, harrobiak, AHT... mendi zaletasuna sustatzen dugu, baina mendia bera zaindu egin beharko genuke. Hala EMFak gai horien inguruan jarrera garbia izan beharko luke", adierazi du Iñaki Igartuak: "Horrekin batera jendea federatzeko sistema errazago bat antolatu beharko lukete, klubek horretan egin behar dugun lana eta ahalegina arintzeko".

KONTUTAN HARTZEKO

### Lehiaketen aldekoak, ala ez horrenbeste

Azken urteotan geroago eta oihartzun handiagoa lortzen dihardute mendian egiten diren txapelketek –mendiko eskia, kirol eskalada edota mendiko lasterketak–. Mendia geroago eta lehiakorrago bilakatzen ari da, eta badirudi bi hautagaietako inor ez dagoela arlo hori bereziki sustatzeko asmoarekin. Uriarterendako positiboa da, baina federazioak sustatzen dituen beste ekintzetan eraginik ez duen bitartean. Ruiz de Gaunak argi eta garbi dio: "Mendian garrantzitsuena ez da inori irabaztea".

**XAKEA** > LIGA

# Ibarreko xake taldeek ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute asteburuan

Joan den astean hasi zuten Gipuzkoako xake liga. Aretxabaleta Arlutz da maila gorenean dagoen ordezkaria, eta Arrasate San Andresek ditu talde gehien

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Debagoieneko xake taldeak lanean dira dagoeneko. Asteburuan jokatuko dute denboraldiko bigarren jardunaldia, joan den astean estreinaldia egin eta gero. Hala, ibarreko ordezkariak dira Aretxabaletako Arlutz Xake Taldea, Arrasateko San Andres Xake Taldea eta Bergarako Zaleak.

**ARLUTZ MAILA GORENEAN**

Aretxabaletako Arlutz xake taldea Euskal Ligan dago, baina ondo daki Euskal Herriko kategoria gorena den Ohorezko Mailan jokatzea zer den, orain dela gutxira arte egon dira-eta hor. Euskal Ligan, berriz, kategoriaz igotzeko talde faboritoetako bat da, baina aretxabaletarrek beste asmo batzuk dituztela argitu du Aitor Alcaidek: "Duda barik aurrean egoteko egingo dugu lan, baina taldean aldaketaren bat edo beste izan dugu, eta lehenengo egin behar duguna kategoriari eustea da".



Xake piezak taularen gainean *dantzan* hasi ziren joan den astean. GOIENKARIA

Talde hori Aitor Alcaidek, Andoni Miguel eta Fran Miguel anaiek eta Mikel Alcaide gazteak eta Jesus Berezibarrek osatzen dute. Ligari dagokionez Arlutzek ondo hasi du liga, Zarautzi 2,5-1,5 irabazita, eta asteburuan Grosekо bigarren taldearen kontra jokatuko dute.

**KLUB HANDIENA, ARRASATEKOA**

Debagoienean, Arrasate San Andres taldea beste erreferente nagusi bat da, besteak beste, puntako txapelketak antolatzeko erakusten duten gaitasunagatik. Horrekin batera talde gehien duen kluba da –joan den asteburuan hirurek irabazi zuten–, xakelari gehien batzen dituena. Talde nagusiak preferentean jokatzen du, eta beste biek lehenengo eta bigarren mailan. Hala, talde nagusia aurten ere Euskal Ligara igotzeko hautagaia nagusietako bat da, betiere jokalari titularrek kale egiten ez badute.

Eta, ezin alde batera utzi Bergarako Zaleak xake taldea. Mahoneroak bigarren mailan daude, Arrasate C taldearekin batera. Talde horrek ere kategoriari eusteko egingo du lan.

**EHIZA**

# Ehizan egitea debekatu du Diputazioak

Babes bila gurera etorri diren hegaztiak babesteko hartu dute neurria

**X.U.** > BERGARA

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko Foru Diputatuak joan den astean erabaki zuen Gipuzkoan ehizan egitea debekatzea.

Erabaki hori hartu dute azken asteotan Gipuzkoan baldintza meteorologiko gogorrak izan ditugulako, eta horrenbestez, basa faunak bere burua babesteko eta biziirauteko ahalmenaren murriztu duelako.

**EZ GIPUZKOAN BAKARRIK**

Baldintza meteorologiko gogorrak ez ditugu Gipuzkoan bakarrik izan, Europa osoan baizik. Hala, egunotan hegazti mordoa etorri da iparretik gurera, babes bila. Eta, hegazti migratzaile horiek babesteko ere hartu dute neurria.

Hala, Diputazioak debekua kendu arte, Gipuzkoa osoan ezingo da ehizan egin.


Iaz Berioren kontra etxean jokatutako partiduko irudia, UDAk falta bat atera aurreko unean. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Bigarren itzuliaren hasiera, asteburuan

## Preferenteko taldeek urteko lan erdia egin dute, eta bihartik hasita beste horrenbeste geratzen zaie egiteko; UDAk bakarrik jokatuko du etxean

**XABIER URTZELAI**> BERGARA

Orain arte gauzak oso ondo egin dituztenek –Aretxabaleta (31) eta Aloña (31)– maila horri eusteko borondatearekin hasiko dute asteburuan bigarren itzulia, eta horren ondo ibili ez den Mondrak (20) gauzak zuzentzeko itxaropenarekin helduko dio geratzen zaion txanpari. Hamazazpi jardunalditan puntu asko daude jokoan (51), orain aurrean daudenak atzera edo atzean daudenak aurrera egiteko beste. Baina gutxitan izaten dira horrelako iraultzak, gora egiteko batez ere, errazagoa baita pot egin eta ezer egiteko aukera guztiak galtzea.

Hala, UDAk eta Aloñak datozen bi hilabeteetarako badute lana: urteko sasoi horretan ohikoak izaten diren makalaldirik ez sufritzea. Mondrak, berriz, azaro amaieran irabazi zuen azken partidua, Zumaiakoren kontra, eta ordutik bost jardunaldi joan dira.

Asteburura begira, Aloñak Idiazabalen etxean jokatuko du (zapatua, 16:00), joaneko partiduan Azkoagainen eskuratutako puntu bakarra (2-2) baino gehiago lortzeko asmoarekin. Mondrak ere etxetik kanpora jokatuko du, jaitsiera postuetan dagoen Astigarraga Mundarro (12) taldearen kontra (zapatua, 16:00, Astigarraga). Ea Arrasateko taldeak ate aurrean joan den astean baino zorte handiagoa duen, pena baita horrenbeste gol aukera egiteko gaitasuna izan, eta bakarra ere ez egitea.

UDA da etxean jokatuko duen ordezkari bakarra (domeka, 16:30, Ibarra), Berioren kontra. Aretxabaleta aldean oraindik minduta daude derbiko porrotagatik; ez dago motibazio hoberik.

**MENDIA** > BATZAR OROKORRA BESAIDEK

# Besaidek errelebua duen ala ez hilaren 23an ikusiko da

## Datorren egubakoitzean egingo duten batzar orokorrean aurkeztu beharko lizateke talde berria

**X.U.** > ARRASATE

Lau urteko konpromisoa bete eta gero, gaur egun Besaide gidatzen duen zuzendaritzak utzi egingo du kargua, eta datorren egubakoitzean, hilak 23, Kulturaten egingo duten batzar orokorrean (19:00) ikusiko da atzetik erreleborik datorren ala ez.

Azaro amaieran GOIENKARIAri egindako elkarrizketan egungo zuzendaritzako kideek argi esan zuten lauzpabost laguneko taldea nahikoa dela Besaide zuzentzeko: "Besaide barruan hainbat ekintza talde daude, eta horiek lanean jarraitzeko asmoa erakutsi dute. Azken batean, talde horiek dira Besaideren motorra, eta zuzendaritzak, besteak beste, talde horien jarduna jarraitu behar du".

**LANAK TXOSTEN BATEAN**

Erreleboa hartzerakoan zuzendaritza berriaren lana errazte aldera, egungo zuzendaritzako kideek txosten bat egin dute, egin beharreko lanak azaltzen: "Horrekin batera, jendea federatzeak eta bazkidetzeak ematen zuen lana informatizatuta daukagu". Eta noski, hortik aurrera zuzendaritza taldeak gura beste proiektu eta egitasmo jarri ahal izango ditu abian. Hori bai, hautagairik azaltzen ez bada, egungo zuzendaritzako kideek argi asko esan zuten: "urtarrilaren 23ko batzarrean hautagairik azaltzen ez bada, bertan behera geratuko da Besaideren jarduna".

**2009KO EGUTEGIA GERTU**

Amaitzeko, egungo zuzendaritzako kideek gertu dituzte 2009an egin beharreko ekitaldi guztiak. Hala, oraingo asteburuan Val d'Aranera joango dira mendiko eskiko ikastaroa egitera. Esan gabe doa, zuzendaritza barik otsailetik aurrerako hitzorduak bertan behera geratuko direla.

> ERRUGBIA

### Arrasate errugbi taldeak Durangoko Ilarduya taldea hartuko du bihar Mojategin (16:30)

Sailkapenaren erdian dagoen Arrasateko taldeak Durangoren kontra neurtuko ditu indarrak bihar Mojategin. Gizonezkoekin batera emakumezkoek ere jardunaldia izango dute, eta kontrario bera aurrean, Durango. Baina, norgehiagoka hori Eibarren jokatuko dute, eta ez Mojategin.

Horrekin batera, errugbi eskolaren barruan, Arrasateko Ordiziako eta Zarautzeko ordezkariak Iparraldera joango dira bihar eguna pasatzera, Biarritzera. Egingo dituzten gauzen artean, goizean entrenamendu saioa, BOPB taldeko jokalariekin erretratua, Serge Kampf tribunan bazkaria eta arratsaldean berbaldia.

> ZIKLOTURISMOA

### 2010ean federatzea gura duenak derrigor egin beharko du kirol mediku azterketa

Zikloturisten denboraldia hastear Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako federazioek eztabaida izan dute Euskadiko federazioarekin, azken horrek federatzeko derrigorrezkoa ikusten zuelako ziklistek kirol mediku azterketa gainditzea –Kirolaren legeak ezartzen duen moduan–. Gipuzkoan 3.600 zikloturista federatu daude, eta federazioak uste du kirol mediku azterketa eskatuz gero askok ez luketela lizentzia berrituko. Hala, aste barruan egin duten batzarrean adostu dute aurtengo lizentziak orain arte moduan egitea, baina datorren urterako mediku azterketa derrigortzea.

> ZIKLO-KROSA

### Mikel Aristik Euskadi ordezkatuko du Valladoliden egingo duten Espainiako Txapelketan

Oraingo asteburuan egingo dute Espainiako ziklo-kros txapelketa, eta Osintxun kadete mailan nagusitu zen Mikel Aristi txapelketan izango da; Sumofic Lokatzako ziklistak Euskadiren mailotarekin korrituko du.

Harekin batera, baina, beste ziklista debagoiendar batzuk ere proban izango dira. Esaterako, Osintxun lan ederra egin eta bigarren sailkatu eta gero Jone Muxika ez zen Itsasondon egon, eta seguru oraingo asteburureko Elgetakoak indarrak erabat errekuperatuta izango dituela.


Mikel Aristi, Osintxuko podiumeko lehen postuan. J.A.

> ATLETISMOA

### Euskadiko Atletismo Txapelketatik zortzi domina ekarri zituzten Arrasate Atletikoko atletek

Joan den astean egin zuten Euskadiko pista estaliko txapelketan zortzi domina eskuratu zituzten Arrasateko taldeko atletek. Urrea eskuratu zutenak dira: Eukene Dorronsoro gazte mailako 200 metroko lasterketan (26,93), eta marka horrekin Espainiako txapelketara sailkatu da; Iñigo Uribarren salto hirukoitzean (11,67), Oihane Urtzelai luzera saltoan (4,96) eta Maialen Axpe pertika saltoan (3,15). Zilarra jantzi zuten, berriz, Maria Jose Gilek 800 metrotan eta Lore Marrek pertika saltoan (2,95). Eta brontzea, azkenik, Chen Jianek luzera saltoan (5,66) eta 600 metroko lasterketan Andoni Perezek (1,41).

**SASKIBALOIA** > LEHEN NAZIONAL MAILA

# Urte berriko erronka, defentsan hobetzea

## MUko mutilek ez zuten joan den astean Iruñean urtea ondo estreinatu (81-64); Urdanetak ezin ditu erasoan horrelako erraztasunak izan



Kintana saskira botatzen, Mikeldiren kontrako partiduan. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Joan den astean MUko entrenatzaile Javier Zurbanok ez zuen partidua batere pozik amaitu, batez ere defentsa lanean taldeak erakutsi zuen jarreragatik. Viajes Marfil taldeak oztopo gutxi aurkitu zituen erasoan, eta, barne jokoan egindako lanari esker, erraz, oso erraz irabazi zuten norgehiagoka (81-64). Hala, beste zuzenketa batzuen artean hori da, defentsa lana hobetzea, MUk 2009an izango duen erronketako bat.

**BIHAR, URDANETA ITURRIPEN**

Zuzenketa horiek, baina, lehenbailehen egin beharrekoak dira, liga aurrera doalako eta zurimoreek partidu bakarra irabazi dutelako –ligako lehen fasea amaitzeko sei jardunaldi baino ez dira geratzen.

Hala, bihar arratsaldean (18:00), sailkapenaren erdian dagoen Urdanetaren bisita izango dute MUko mutilek. Talde hori igoera faserako sailkatzeko lehian dabil, eta ez da opariak egitera etorriko. Arrasatekoak, bestalde, kanpoan baino hobeto estreinatu gura dute urtea etxean.

**MIKEL ATXA, EUSKADIREKIN**

Ointxeko talde nagusia bolada txarrean badago ere, harrobia poztasunak ematen jarraitzen dabil, Mikel Atxa gazteak Euskadiko selekzioko elastikoa jantzi duelako Estatu mailako txapelketan. Hasierako ligan Kanariar uharteei eta Gaztela eta Leoni irabazi eta gero, Madrilen kontra galdu eta multzoko bigarren sailkatu zen Euskadi. Finalaurdenetan ondo hartu zuten mendean Aragoi, baina finalerdietan Kataluniak finalerako bidea moztu zien. Bada, Arrasatekoak parte-hartze handia izan zuen txapelketa osoan.

**PALA** > IKASTAROA

# Emakumeek palan jarduteko ikastaroa prestatu dute

## Orain dela hiru urte egin zuten lehenengoz ikastaro hori, eta harrera ona izan du

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Arrasateko Udalarekin lankidetzan, 18 urtetik gorako emakumeentzako paleta ikastaroa jarriko du abian. Lehenengo ikastaroa duela hiru urte egin zuten lehenengoz, eta ordutik urtero egin duten ekimena da, arrakasta polita daukalako. Urtarrilaren amaieran hasi eta ekainera arte, astean behin ordu eta erdiko paleta saioak egingo dituzte bertaratzen direnek, tenisko pilotarekin eta paleta arinekin. Saioak zuzentzeko, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietan lizentziaturiko teknikari bat izango dute.

**AMAIERAN AZKEN FESTA**

Ikasturtearen amaieran, gainera, azken festa batean Gipuzkoako herri ezberdinetan ikastaroa egiten ari diren emakumeekin bilduko dira, Emakumea Pilotari egunean –iaz 60 elkartu ziren eta egun-pasa ederra egin zuten Iruran–. Ikastaro hori urtarrilaren 28an hasiko dute, eta hilaren 26a da izena emateko azken eguna –Musakolako kiroldegian, edo 676 05 52 54 telefono zenbakian–. Ikastaroan esKu hartzeko 60 euro ordaindu behar dira eta eguaztenetan emango dituzte eskolak. Goizean 09:00etatik 10:30era, eta arratsaldeetan 18:30etik 20:00etara.

**PLAZA LIBREAK AUKERAN**

Pala ikastaroa alde batera utzita, oraindik aukera dago AUKE-Ak antolatzen dituen hainbat ikastarotan izena emateko. Helduendako paddle eta patinajean lekua dago (19:30-21:00), eta baita umeendako tenis ikastaroan ere (martitzena eta eguena 18:30-20:00). Azkenik, pilates hastapen ikastaroa ere antolatu dute hil honetarako.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Levante-Reala
Zapatua. 18:30. Valentzia.

**Gazteen euskal liga**
Abetxuko-Bergara
Zapatua. 16:00. Gasteiz.
San Ignacio-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

**Preferente maila**
Idiazabal-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Arizkorreta.
Aretxabaleta-Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.
Astig. Mundarro-Mondra
Zapatua. 16:00. Astigarraga.

**Lehen erregionala**
Mondra-Tolosa B
Domeka. 16:00. Mojategi.
Zestoa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Iraeta.
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Ilintxa-BTLS
Zapatua. 16:00. Legazpi.
Mutriku-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:45. Mutriku.

**Bigarren erregionala**
Bergara B-Landetxa
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko gazteak, kopa**
Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Mondra-Lengokoak
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Lehenengo gazteak, kopa**
Amaikak Bat-Aretx.Arizmen.
Domeka. 16:00. Deba.
Eibartarrak-Bergara B
Domeka. 18:00. Unbe.

**Ohorezko kadet. Igoera**
Beasain-Bergara
Zapatua. 11:45. Igartza.
Hondarribia-Aretxab.Arizm
Zapatua. 12:00. Hondarribia.

**Ohorezko kadeteak. Kopa**
Aloña Mendi-Zarautz
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Arrasate-Touring
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Lehene kadet. Igoera**
Mundarro-Aretxabaleta B
Zapatua. 11:00. Astigarraga.

**Lehen kadet. Kopa**
Soraluze-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Ezozia.
Mutriku-Arizmendi
Domeka. 15:45. San Miguel.

**Kadete txiki**
Arrasate-Añorga
Domeka. 12:30. Mojategi.

**Ohorezko infant. Kopa**
Behobia-Bergara
Zapatua. 11:00. Irun.
Hernani-Aretxaba.Arizmendi
Domeka. 11:45. Zubipe.

**Lehen infantilak. Igoera**
Aloña Mendi-Lazkao
Zapatua. 16:15. Azkoagain.

**Infantil txikien txapeldunen fasea**
Sanse B-Arrasate CD B
Zapatua. 12:00. Felix Garin.

**Infantil txikien Kopa**
Aretx.Arizmendi-Elgoibar B
Zapatua. 10:00. Ibarra.
Bergara-Vasconia
Zapatua. 12:15. Ipintza.

**Emakumezkoak, igoera**
Arizmendi-Urola
Zapatua. 15:30. Almen.
Añorga-Mondra
Domeka. 15:00. Rezola.

**Emakumezkoen Kopa**
Segura Goierri-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Alustiza.
Amaikak Bat-Arizmendi
Zapatua. 12:00. Deba.

**Emakumezkoen F8 Kadet.**
Amara Berri-Aloña Mendi
Zapatua. 13:30. Martutene.

**Emakumezkoen F11**
Bergara-Hernani
Domeka. 17:00. Ipintza.

**Emakumezkoen kadete F11, kopa.**
Mondra-Real Union
Domeka. 11:00. Mojategi.

**Alebin maila**
Aretxabaleta-Lagun Onak
Domeka. 10:00. Azpeitia.
Arrasate-Aloña Mendi
Domeka. 11:45. Azpeitia.
Bergara-Eibar
Domeka. 11:15. Azpeitia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Egia Servi.-Ford Mugarri
Zapatua. 19:30. Donostia.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko preferent.**
Bera Bera-Verkol Aloña.
Zapatua. 19:30. Donostia.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko gazteak**
Verkol Aloña Mendi-Aiala
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko kadeteak**
Verkol Aloña Mendi-Aiala
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Lehen territorial maila**
Soraluce BKE-Egia Servi Ch.
Domeka. 12:15. Labegaraiet.

**Bigarren territorial maila**
Arrasate-Alcorta Forging
Domeka. 10:00. Iturripe.
Groseko-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Donostia.

**Federazio Saria**
Rotula St.-Arrasate Chapime
Zapatua. 16:00. Ordizia.
BKL Urola-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Beasain.
Bera Bera-Arrasate Chapim.
Domeka. 10:00. Bidebieta.
Berezao Aloña-Irurena.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Bergara-Euskalduna Tab.
Zapatua. 16:30. Labegarai.

Karibe Zeharra-Bergara
Zapatua. 17:45. Legazpi.
Bergara-Ereintza
Zapatua. 12:00. Labegaraie.

### SASKIBALOIA

**Lehen nazional maila**
MU-Urdaneta
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Senior gizonezkoak**
Santo Tomas-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Donostia.
MU-Astigarraga
Zapatua. 16:00. Musakola.
Soraluce BKE-Erroibide
Zapatua. 19:00. Bergara.
Aloña Mendi-Baskoplastika
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Senior emakumezkoak**
Eskoriatzak astedena.

**Gazte mailako gizonezko.**
BKL-Mondragon Uibertsit.
Zapatua. 12:15. Beasain.
Transbretaña BKE-Zarautz
Zapatua. 12:30. Bergara.
Aloña Mendi-Take Tolosa
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazte mailako emakume.**
Eskoriatza-Izarraitz
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.
Bera Bera-Soraluce BKE
Domeka. 11:15. Donostia.

**Kadeteak gizonezkoak**
Hernani-MU Udalatx
Zapatua. 16:15. Hernani.
Zarautz-MU Besaide
Zapatua. 18:00. Zarautz.
Aloña Mendi-Mutriku
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
MU-BKL
Zapatua. 12:00. Musakola.
Kondepanaderokua-Goierri
Domeka. 11:00. Bergara.

**Kadeteak emakumez.**
Arizmendi Esk.-STL Egaña
Zapatua. 10:00 Intxaurtx.
Mundaiz-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

**Infantil gizonezkoak**
Lizeotarrak-LEK Ointxe
Zapatua. 12:45 Donostia.
Zubiri Mant.-LEK Arizmendi
Zapatua. 12:00. Donostia.
Aloña Mendi-Urumea Ik.
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
Talaia BHI-Servimasa BKE
Zapatua. 10:00. Hondartza.

**Infantil emakumezkoak**
Zarautz-LEK Almen
Zapatua. 10:45. Zarautz.
LEK San Viator-Andraitz B
Zapatua. 12:00. Musakola.
Lezo Inst.-LEK San Viator
Zapatua. 12:00. Errenteria.

### ERRUGBIA

**Seniorrak gizonezkoak**
Arrasate-Durango
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Seniorrak emakumezkoak**
Arrasate-Durango
Zapatua. 15:00. Eibarren*
(*Unben jokatuko dute).



**Arrasateko mutilek Durango hartuko dute bihar**
Arrasate Errugbi Taldeko seniorrek Durangoren kontra jokatuko dute bihar (16:30). Erretratuan, Santanderren kontrako partiduko une bat.



**> ANTZERKIA**
'Ohean' antzezlan ezaguna domekan, 19:00etan, Amaia antzokian > 38



**> DANBAKA**
Gaur, barikua, izango da lehiaketako finala, Espaloian > 39

**> MAIDER AZKARATE**
27 urteko ile-apaintzaile bergararrak zazpi urte daramatza ile-apaintze lanetan. Txikitatik gura izan du estetikan lan egin > 42



# Ainhoa Artetaren dotoretasuna, bergarar baten eskuetan

Marije Ibañez bergararra da soprano handiaren estilista

"Ainhoa Artetak orain gazteago ematen du eta arropa koloretsuagoak erabiltzen ditu"



**ARROPA ARTEAN** Marije Ibañez, Bergarako Baster dendan; gaztetatik dihardu arropa artean. XABIER URTZELAI

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Ahots bikainarengatik eta soprano handia izateagatik da ospetsua mundu osoan Ainhoa Arteta tolosarra. Bere izaera gertuko eta jatorra, inteligentzia eta edertasuna ere nabarmentzen dute. Eta, azkenaldian, janzkeragatik, elegante izateagatik eta estiloarengatik ere bai. Lirikaren *top-model* ere izendatu dute hedabideek. Gutxik jakingo du, ordea, bergarar bat dela Ainhoa Artetaren estilista; Marije Ibañez, Baster dendakoa. Eta Arteta handiak dotoretasuna, zati batean, debagoiendar horri zor diola.

Urtarrilaren 14ko *¡Hola!* aldizkariak dakar Ainhoa Artetaren gaineko erreportajea, argazki askorekin. Erreportaje horretan Artetak erabili dituen arropa, zapata, bitxi eta bestelakoak Marije Ibañezek aukeratutakoak dira. Azken bi urteotan dihardu harekin lanean eta iazko udatik errezitaldietarako ere janzten du.

**ZARAGOZAKO EXPON**

"Lehen, Ainhoa Artetak errezitaldia eman behar zuen tokiko diseinugilea aukeratzen zuen emanaldietarako, eta beti ziren goi kosturako moda diseinugileak. Nik ekitaldi berezietarako edo aldizkarietan, diskoen aurkezpenetan e.a. ateratzeko janzten nuen. Behin, Mercedes de Miguel Bilboko moda diseinugilearen arropa ikusi eta esan nion ea errezitaldietarako arropak egingo lituzkeen. 'Zergatik ez?', erantzun zidan. Sasoi hartan Arteta aukeratu zuen *Vogue* aldizkariak urteko harribitxi. Eta okasiorako jantzi behar izan nuenez eta Mercedes de Miguelen jantziak eroan nizkionez Artetari, galdetu nion ea zela ikusten zuen bertako diseinugileekin lan egitea emanaldietarako ere, eta Ainhoa Artetak baietz erantzun zidan".

Arteta Milango Scalan zegoen abesten eta bezperan etorri zen Euskal Herrira Zaragozako Exporako. "Ordu batzuetan bakarrik egon nintzen harekin eta jantziak probatu barik, neurria hartu barik… egin zuen De Miguelek soinekoa. Mirakulua izan zen, jantzia izugarria zen eta Arteta oso dotore atera zen agertokira".

**BETITIK ESTILISTA**

Arteta gustura dago bergararraren lanarekin eta Ibañez pozez zoratzen Artetarekin lan egitearren. Gazte-gaztetandik gustuko du estilismoa Ibañezek. Lagunak jantzten zituen, hasieran etxeko ganbaran, eta ondoren lehen denda zabaldu zuen; orain, Irala kalean dauka, ahizpa Marilirekin batera. Aitortzen du ez dakiela arropak josten, ezta diseinuak marrazten ere, baina gustu berezia dauka, batez ere emakumeak janzteko.

Eta zela ezagutu zuen Ainhoa Arteta? Haren idazkaria ezagutu zuen, orain dela urte bi, lagun komun batzuen bitartez, eta esan zion nahiko zukeela Arteta janztea. "Handik hilabete bira deitu zidan esateko Arteta aukeratu zutela Ana Rosa Quintanaren aldizkarian hamabi apartekoetako bat izateko, eta galdetu zidan ea agertuko nintzatekeen haren etxean ordu bi barru bazkari horretarako arroparekin. Dardarka hasi nintzen. Izan ere, Agatha Ruiz de la Prada, Isabel Presley eta horrelakoekin elkartzekoa zen". Trantze hartatik ondo atera zen; izan ere, orduz geroztik abeslariaren estilista da.

**ORAIN, GAZTEAGOA**

Marije Ibañezek dio oraingo Artetak ez daukala zerikusirik lehengoarekin. "Gazteago ematen du eta arropa koloretsuagoak erabiltzen ditu. Orain ausartagoa da". Gainera, lagatzen dio nahi duena egiten. Artetaren jantzi eta osagarri guztiak aukeratzen ditu hark: taula gainekoak, kalekoak, hedabideen aurrean agertzekoak…, haren senargai Jesus Garmendia ere janzten du.

Baina zer da estilista izatea? "Jantzi behar duzun pertsona zelakoa den, zer nortasun duen, zertan egiten duen lan, bere bizitza zelakoa den… jakin behar duzu lehenbizi, eta gero bere neurriak", Ibañezen esanetan.

"Ainhoa Arteta janztea ipuin bat bezala da", dio. Errezitaldien aurretik, abestu behar dituen piezen disko bat bidaltzen dio eta Ibañezek diseinua egin behar dunari eta bitxigileari bidaltzen dio, haiek ere entzun dezaten. Ondoren, diseinugilearekin batera, arroparen kolorea aukeratzen dute lehenbizi eta ideia baten inguruan arropa diseinatzen dute.

Orain dela gutxi Madrilen izan da, Ainhoa Artetak atera berri duen *La vida* izeneko disko arrakastatsuaren aurkezpenean. 500 gonbidatu inguru batu ziren ekitaldirako. "Rosa *OT*-koa ezagutzeko aukera izan nuen eta esan nion prest nengoela hari ere aholkatzeko; uste dut premia ere badaukala".

**BERGARA DOTOREA**

Ibañezek dio Bergara beti izan dela oso dotorea eta asko zaindu dela janzkera, baina azkenaldian gainbeheran dagoela. Jendeak ez diola horrenbesteko inportantziarik ematen jantziari, eta hori penagarria dela. "Bergara esnatu egin behar da", dio. Nahiz eta, azkenaldian, neska gaztetxo batzuk ikusi dituela, ondo jantzita, poltsa eta osagarri eta guzti, ondo makillatuta, eta itxaropentsu dela Bergara berriz ere berpiztuko ei delako.








Ainhoa Artetak urtarrilaren 14ko *¡Hola!* aldizkarirako egindako erreportajean, estilista lanak egin ditu Ibañezek. ¡HOLA!

**ANTZERKIA** > ARRASATEN

# Elkar ezagutu barik sexu gau bat izatearen gaineko antzezlana

Maskarada taldekoek 'Ohean' antzezlana egingo dute domekan Amaia antzokian, 19:00etan

Unai Elorriagak euskaratu du lana eta Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro dira protagonistak



Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro dira *Ohean* antzezlaneko protagonistak. MASKARADA

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Ikusleen eta kritikarien artean arrakasta eta oihartzun oso ona izan duen *Ohean* antzezlana domekan eskainiko dute Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte.

**PROTAGONISTAK ETA OHEA**
Matias Bizen txiletarraren izen bereko film batean oinarritutako antzezlana egokitu du Maskarada taldeak. Taberna batean elkar ezagutu eta handik ordu batzuetara, gizon batek eta emakume batek gela bat hartzen dute hotel merke batean sexu gaua pasatzeko. Ez dute elkar ezagutzen, eta egun horren ostean ez dute berriro elkar ikusiko. Sexuaren ondoren, baina, konturatuko dira bien artean halako kimika bat sortu dela. Berba egiten hasiko dira, eta poliki-poliki euren iraganari eta intimitateari ateak zabalduko dizkiote. Euren kontakizunetan oroitzapenak eta ametsak tartekatuko dituzte; gezurrak eta egiak, zintzotasuna eta traizioa, maitasuna eta gorrotoa.

Taula gainean, Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro egongo dira. Aitor Beltran oso ezaguna da ikusleen artean, *Goenkalen* egindako lanagatik. Gainera, Borja Cobeagaren *La primera vez* laburraren protagonista izan zen. Bestalde, Matxalen de Pedro ETB-ko *Pilotari* telesailean ikusi dugu, eta egun, Jokin Oregiren *¿Por qué lloras, Marie?* antzezlaneko protagonistetako bat da. Bi aktoreekin batera ohea da antzezlaneko hirugarren protagonista. Eszenografian garrantzi osoa ematen diote oheari, inguruan dagoen guztia iluntasunean utziz, egoeraren ezohikotasuna nabarmenduz.

**ALDAKETA GUTXI**
Tamzid Townsend zuzendariaren gaztelerazko *En la cama* lanaren bertsioa egin du Maskarada taldeak. Carlos Panerak zuzendu du antzezlana Townsenden erreferentziak galdu barik, eta Unai Elorriagak egokitu eta euskaratu du.

Euskarazko bertsioa Julio Rojasek idatzitako jatorrizko testuarekin oso fidela da. Dena den, aldaketa eta txantxa txiki batzuk txertatu dituzte.

**ZINEMA**

## Film laburrak aurkezteko azken eguna, otsailaren 2a

**M.B.** > ESKORIATZA
Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huezinema film laburren lehiaketa. Lanak aurkezteko epea otsailaren 2an bukatuko da. Film laburrak eta dokumentalak Huezi fakultatean entregatu behar dituzte.

Iaz izandako erantzuna ikusirik, lehiaketak bi sail nagusi izango ditu: alde batetik, lehiaketa ofiziala egingo dute; eta beste alde batetik, Mondragon Unibertsitateko ikasleen lanekin egindako lehiaketa. Lehiaketa batean zein bestean parte hartzeko bete beharreko baldintzak *www.huhezi.com* webgunean irakur daitezke.

**ZINEMAREN GAINEKO MINTEGIAK**
Huhezinema film laburren eta dokumentalen jaialdia da, eta martxoaren 28tik apirilaren 2ra egingo dute Huheziko fakultatean eta Arrasaten. Bestalde, mintegiak egingo dituzte zinemaren eremuan itzal handia duten pertsonekin.

Iazko lehiaketara 41 film eta dokumental aurkeztu zituzten. Lander Camareroren *Montenegro*-k eta Ane Larrañagaren *La discapacidad invisible*-k eroan zituzten film labur eta dokumental onenen sariak, hurrenez hurren.

**ANTZERKIA** > YLLANA TALDEA

## Goi finantzen munduaren inguruko parodia egingo du Yllana taldeak domekan, Oñatin

'Brokers' delako emanaldia Santa Ana antzokian egingo dute domekan, 19:30ean; txartelak 10 eurotan salduko dituzte

**M.B.** > OÑATI
*Brokers* Yllana taldearen azken lanak goi finantzen munduaren gaineko parodia egiten du, eta domekan antzeztuko dute Oñatiko Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Emanaldirako sarrerak aldez aurretik eros daitezke kultura etxean 10 eurotan: gaur, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era, eta bihar 10:00etatik 13:30era. Era berean, domekan antzokiaren sarreran salduko dituzte txartelak, prezio berean.




*Brokers* lanaren kartela. YLLANA

**LAU EXEKUTIBO**
*Brokers* lanarekin, luxuaren eta diruaren unibertsoan sartzeko aukera izango dute ikusleek, bizi izateko beste modu ero eta barregarri bat badagoela ezagutzeko.

Nola edo hala arrakasta lortu duten negozioen munduko lau exekutibo dira *Brokers* laneko protagonistak. Luxua, ospea, boterea, nartzisismoa eta estatusa dira euren ezaugarri nagusiak. Markadun modekin, gorputzaren itxurarekin eta azken teknologiekin itsututa bizi dira, eta arrakasta lortzeko bidean euren ezkutuko beldurrak azaleratuko dituzte.

David Ottonek zuzentzen duen laneko protagonistak Fidel Fernandez, Antonio Pagudo, Toni de la Fuente eta Luis Cao dira.

**LAU EXEKUTIBO**
Yllana antzerki taldea 1991. urtean sortu zuten, eta ordutik 15 antzezlan ekoiztu dituzte. Milioi bat ikuslek ikusi dituzte euren antzezlanak. Azken biak, *PaGAGnini* eta *Musical*, ibarreko hainbat herritan ikuis ahal izan dituzte azken hilabeteotan.



JOXE ARANTZABAL

## Euskal Kulturgintzaren ikasturtea, abian

Eguaztenean hasi zuten Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Aditu tituluaren bigarren edizioa Huhezin. Julen Arexolaleibak egin zuen aurkezpena, 30 bat ikasleren aurrean. Lehen egunean Maialen Lujanbiok eta Xabier Amurizak hartu zuten parte. Sei hilabeteko ikasturtean, besteak beste, Beñardo Atxagak eta Joxanton Artzek hartuko dute parte.

**DANBAKA** > LEHIAKETAKO III. EDIZIOKO FINALA

# Emanaldi bizi eta osatuagoak prestatu dituzte finalistek

Talde bakoitzak 40 minutu izango ditu bere onena emateko; asmo horrekin datoz

Petti&Banda Elektrikoa agertokitik jaitsi bezain laster, sari banaketa egingo dute

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Heldu da Danbakako finaleko eguna. 24 taldeak zuzenean ikusi ostean, epaimahaiak hiru talde aukeratu zituen, gaur lehiatuko direnak. Abenduaren 22an jakinarazi genituen hiru taldeon izenak, eta ordutik finalistak lanean dabiltza kontzertu erabakigarria prestatzen. Are gehiago, aldaketa handiak ez, baina hirurek gaur egingo duten kantutegiari ñabardura batzuk gehitu dizkiotela esan digute.

**ILUSIOA ETA URDURITASUNA**

"Oso pozik hartu genuen epaia. Badakigu gure eskaintza lehenengoan ulertzeko zail samarra dela, baina egiten dugunean sinisten dugu. Gainera, euskaraz abesten dugunetik kimika berezia daukagu; gehiago sinisten dugu egiten duguna", azaldu zigun Adi Holden taldeko Alexek.

"Ez genuen uste finalean egongo ginenik. Sorpresa handia izan zen. Ainara abestera sartu zenetik urtebete eskas daramagu eta gauza asko gertatzen dabiltza arrapaladan. Sinisten dugu egiten dugunean, eta, harrera ikusita, badirudi bide onean gaudela", azaldu zigun The Wet Band taldeko Endikak.

"Ezustea hartu genuen epaia jakiterakoan, baina, egia esanda, Elgetako kontzertua orain arte eman dugun onenetarikoa izan zen eta oso gustura gelditu ginen. Beste taldeak ez ditugu zuzenean ikusi, baina bideoak bai", esan du Normaneko Kepak.



Adi Holden taldeko Alexen *deabrutzea*. J.A.



Norman abeslariaren joko zoroa. J.A.



The Wet Band taldeko Ainararen goxotasuna. J.A.



Pettik Banda Elektrikoa izango du alboan. GAZTELUPEKO HOTSAK

HIRU SARI BANATZEKO

**> DANBAKAKO TALDE ONENA**
Gaztekutxaren eskutik. Lehiaketako talde onenak diskoa grabatuko du Shot! estudioan, eta Gaztelupeko Hotsak eta Danbakak kaleratuko dute.

**> DEBAGOIENEKO TALDE ONENA**
Mondragon Unibertsitatearen eskutik. Debagoieneko talde onenak diskoa grabatuko du Shot! estudioan, eta Gaztelupeko Hotsak eta Danbakak kaleratuko dute.

**> IKUSLEEN SARIA**
Lazkano musika dendaren eskutik, 1.300 euroko bonua gastatzeko.

**KONTZERTU INTENTSUAK**

Finala izanda eta diskoak jokoan daudela kontuan hartuta, taldeek ahalegin berezia egiten dihardute gaurko hitzordurako.

Adi Holden taldekoek emanaldi basatiagoa egiteko asmoa dute: "Entsegu lokala kendu digute eta ezin izan dugu gura beste entseatu. Hala ere, aurreko emanaldiko akatsetatik ikasi, eta kantuak hobeto osatu ditugu, musika tarte gehiago sartu dugu kantuotan. Are gehiago, noiseagoa izango da, basatiagoa. Sari bat ziurtatuta izan arren, guztia ematera goaz".

The Wet Band taldekoek ere kantutegia eta eszenaratzea indartu dutela jakinarazi dute: "Kontzertua antzekoa izango da, baina kantuak elkarren artean lotuko ditugu. Asmoa da gutxiago berba egin, eta musika gehiago jo; intentsuagoa egin gura dugu. Horrez gain, badugu sorpresa bat...".

Normanekoek, berriz, kantu berriak estreinatuko dituzte: "Abesti berriak idatzi ditugu eta kantutegia aldatu egin dugu. Oraingoan ere azala agertoki gainean uzteko asmoa daukagu; horretan beti saiatzen bagara ere. Finalean urduritasuna kontrolatzen jakiteak ere izango du zeresana. Hiru finalisten eta Pettiren kontzertuek musika zaleendako jaia ziurtatzen dute".

## Publikoaren Saria

Gaur, egubakoitza, Espaloira hurbildutako ikusleek erabakiko dute zein den publikoaren taldea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | **BITTER HONEY** | ARRASATE | Botoen **%8,90** |
| 2 | **TURBOSHIT** | BERGARA | Botoen **%8,61** |
| 3 | **THE 5 TWISTERS** | ARRASATE | Botoen **%7,72** |
| 4 | **FOXXY BOXXI** | ARRASATE | Botoen **%7,72** |
| 5 | **IGOR SAN JUAN** | ARETXABALETA | Botoen **%6,26** |
| 6 | **LOS VIERNES AL RON** | ANTZUOLA | Botoen **%6,06** |
| 7 | **SCAM** | ARETXABALETA | Botoen **%5,47** |
| 8 | **MERY MAY** | ARRASATE | Botoen **%5,28** |
| 9 | **NORMAN** | EIBAR | Botoen **%4,79** |
| 10 | **TUESDAY EVENINGS** | DURANGO | Botoen **%4,79** |
| 11 | **THE WET BAND** | MUTRIKU | Botoen **%4,69** |
| 12 | **DAMUDOT** | MALLABIA | Botoen **%4,30** |
| 13 | **BRANKAN** | BERRIZ-MARKINA | Botoen **%3,81** |
| 14 | **THE MOTHERFUCKERS** | ARRASATE | Botoen **%3,71** |
| 15 | **REVELPHONE** | SORALUZE | Botoen **%3,71** |
| 16 | **BARUA BANDA** | ESKORIATZA | Botoen **%3,13** |
| 17 | **NI NEU** | EIBAR | Botoen **%2,73** |
| 18 | **LORD WITCH** | BERGARA | Botoen **%2,54** |
| 19 | **FLIPIN FOLK** | EIBAR-ERMUA | Botoen **%1,95** |
| 20 | **ADI HOLDEN** | BERGARA | Botoen **%1,36** |
| 21 | **ARMY-ARMA** | ZORNOTZA | Botoen **%1,36** |
| 22 | **HILBETE** | DURANGO | Botoen **%1,27** |
| 23 | **YMOTEK** | BERGARA | Botoen **%0,88** |
| 24 | **ROCK PRIVADO** | OÑATI-DONOSTIA | Botoen **%0,88** |

Euskarak batzen gaitu
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Astelehenetik barikura
eguneko menua
Asteburuetan
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak
Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 620 59 86 55.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajeran, permutarako aukerarekin. Bestela, errentan ematen da, erosteko aukerarekin. 110 m². Lau logela. Garajea aukeran. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Eraikin berria. 80 metro koadro eta 17 m²ko garaje itxiarekin. Prezio interesgarria. 210.350 euro guztira. 943 78 07 15.

**Oñati.** Trukea. Kale-kalean estreinatzeko dagoen garajedun apartamentua etxe handiago batengatik trukatuko nuke. Diferentzia adosteko. 665 71 42 69.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Berogailua. Bikote edo ikasleentzat. 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Oñati.** 90 m²ko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Santa Marina plaza ondoan. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta trastelekua. 652 71 74 33.

**Oñati.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

**Oñati.** Etxebizitza ematen dut errentan martxoa edo apiriletik aurrera erdigunean. Hiru logela ditu. Jantzita eta oso egoera onean. 670 30 60 98.

**Zaragoza.** Unibertsitatetik gertu. Lau logela, egongela, bi komun, garajea eta aire egokitua daukan etxebizitza alokatzen dut. 659 58 56 83.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak logela bakarreko apartamentua hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 14 71 34.

**Bergara.** Baserria errentan hartuko nuke Bergaran edo inguruan. 665 70 21 92.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29.

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 607 59 18 49.

**Bergara.** Bolu auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

**Oñati.** Neska langile batek pertsona bat behar du etxebizitza osatzeko. Bi logela ditu etxeak, herri erdian dago eta interesatua langilea izan dadila nahiago dut. Otsail edo martxotik aurrera bizitzera sartzeko aukera. Interesatuak deitu 655 71 33 66 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Bergaran, San Lorentzo auzoan. Interesatuak deitu 943 76 18 01 zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**BERGARA**
**Pizzeria errentan eman edo eskualdatzen da.**
**635 71 52 25**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aramaio.** Pertsona arduratsu eta euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

**ARRASATE**
**Idazkaria behar da etxetresna denda batean.**
**943 77 00 34**

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80.

**Arrasate.** Mutil arduratsua gertu goizetan taberna, elkarte edo atarteak garbitzeko. 943 77 07 01 edo 666 21 88 95.

**Arrasate.** Mutila gertu eraikuntza, nekazaritza edo bestelako lanetarako. 679 37 79 56.

**Arrasate.** Neska batek arratsaldeetan lan egingo luke. Garbiketa lanak eginten edo pertsona nagusiak zaintzen. 649 62 88 22.

**Arrasate.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Legezko paperak eta erreferentziak ditut. 618 14 71 34.

**Bergara eta Antzuola.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin eta haur edo nagusiak zaintzeko gertu. 699 63 12 02.

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55.

**Bergara.** Emakumea adinekoak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** 23 urteko mutila aste bukaeratan ostalaritza lanak egiteko gertu. Deitu 635 75 74 54 telefonora.

**Debagoiena.** Ostalaritzan lan egingo nuke. Segituan hasteko gertu. Nahiago Arrasaten bada. 666 75 73 21.

**Debagoiena.** 23 urteko mutila gertu garbiketa, sukaldaritza edo bestelako lanetarako. Nahiago Arrasaten bada. 943 05 79 13.

**Debagoiena.** Arropa konponketak egiten ditut: barrenak, kremailerak... 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Emakume boliviarra, legezko paperak dituena, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. 636 91 93 81.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun osoz eta etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 688 68 13 63.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Ile apaintzaile laguntzaile ere bai. Legezko paperak ditut. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Deitu 696 83 89 37 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 14:00etatik aurrera. Deitu 618 12 07 44 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Baita garbitasun lanak egin ere. Deitu 680 30 24 64 telefonora.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Deitu 634 84 11 72 telefonora.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 663 51 44 94 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu garbiketa, sukalde laguntzaile edo bestelako lanetarako. 638 61 85 10.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 628 93 79 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke gauetan. Esperientzia eta geriatria ikastaroa daukat. Erreferentziekin. Deitu 618 93 59 29 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu garbitasun edo sukalde lanak egiteko. Baita harategi edo arrandegirako ere. Manipulatzaile txartela daukat. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Debagoiena.** Neska arduratsua, legezko paperak dituena, lanerako gertu. Etxean bertan bizi izateko gertu ere bai. Deit 943 08 15 39 edo 699 34 86 88 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. Deitu 647 87 28 31 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Deitu 679 13 74 19 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, ahal bada orduka lan eginez. Deitu 649 70 51 74 telefonora eta Consuelorengatik galdetu.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667 20 56 29.

**Eskoriatza.** Emakume arduratsu eta euskalduna gertu umeak edo jende nagusia zaintzeko edota garbiketan lan egiteko. 600 61 56 70.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. 669 61 52 99.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea, aljebra... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Bergara.** Aranerrekan. Ingeles eskolak ematen ditut. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntzarako. 616 12 56 29.

**Informatikako eskolak** ematen dira Ingeniaritzako ikasleentzat: Pascaleko eskolak. Esperientziaduna. 635 75 74 54.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Setter** arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 16an Bolibar inguruan. 12 urte ditu, Zuri izenekoa, eta plaka dauka lepokoan. Guretzat balio sentimental haundia dauka. Deitu 943 79 96 55 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar alkandora** eta abarkak salgai. Bost urtetik aurrerako umeentzat. Galtzerdiak opari. 656 78 64 64.

**Baxera-garbigailua**, edalontzi-garbigailua, lau lanpara errustiko, mahaiak eta aulkiak salgai. 649 84 67 09.

**Bergara.** 1.500 metro koadroko lursaila salgai bi etxebizitzako etxea egiteko. 648 19 22 81.

**Bikiendako karroa.** Bikiak paseatzeko karroa salgai. Kapazoak oparitzen ditugu. 943 79 41 15 edo 675 00 56 17.

**Bizikleta.** Bigarren eskuko bizikleta salgai. Polita eta egoera onean. 90 euro. 679 74 00 61.

**Idazmakina elektrikoa** saldu nahi dut. Egoera onean dago. Kartutxoak ere baditut. 50 euro. 666 00 94 07.

**Jane Nomad** umeentzako aulkia, Matrix-a, 'Grupo 0 +', eta osagarriak salgai. 200 euro. 616 82 16 08.

**Kateak.** Autoarendako elurretarako kateak salgai. 215-75/16 neurrikoak. Deitu 638 46 62 72 telefono zenbakira eta Mikelengatik galdetu.

**Ordenagailuko** hiru joko original eta berriak salgai. Oso dibertigarriak. 8 urtetik gorakoentzat. Hiru CDko pack batean. 'La trilogía Dragons lair'. 20 euro. Deitu 679 74 00 61 telefono zenbakira.

**Ordenagailuko** lau joko original eta berriak salgai. Buruko estrategia lantzen dute. 'Dracula twins', 'Trimal Prey', 'Enciclopedia de los dinosaurios', 'La tierra y sus fenómenos'. Bakoitza 8 euro, denak 25 euro. Deiotu 679 74 00 61 telefono zenbakira.

**PDA + GPS +WIFI +BT AIRIS T620** kotxeko kargadorea , etxekoa, soportea kotxearendako, bluetooth 2.0, memoria txartela sd/mmc,gps integratua sirf iii, wifi .... salgai. 160 euro, deitu telefono honetara. Interesatuak deitu 665 72 44 36 telefono zenbakira.

**Pianoa** salgai: Yamaha Clavinova. Ia erabili gabe dago eta oso ondo dabil. Deitu 635 75 74 54 zenbakira.

**Snow-blade** eskiak eta 44 neurriko eskiko botak salgai. Oso gutxi erabilita. 90 eurotan biak. Deitu 663 72 78 23 telefonora.

**Snowboard taula** salgai. Nitro etxekoa. 150 neurrikoa. Fijazioekin. 43 1/3 neurriko Salomon botak ere bai. Erabili gabeak. 300 euro. 663 04 53 99.

**VHS** umeentzako bideoak salgai. Deitu 656 78 64 64 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Dantzari jantzia** erosiko nuke, neskendakoa. Neurria: 14-16, gutxi gorabehera. 652 72 32 50.

**Eskiak eta botak**. Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. Deitu 608 77 38 59 telefonora.

**Klarinetea.** Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. 655 74 89 19.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Gabon zahar gauean poltsikoko telefonoa galdu nuen Orly, Ezkutu eta Izartu tabernen artean. Samsung zuria da. 943 79 00 80 edo 656 72 59 21.

**Arrasate.** Poltsa marraduna galdu nuen abenduaren 21ean San Andres eta Consum dendaren artean. Barruan lepoko morea, argazki kamera beltza eta disko gogor bat zeuden. Sarituko da. Amaia. 650 40 42 07.

**Jaka beltza** galdu nuen abenduaren 20an Arrasateko Branka tabernan. Nahastuta norbaitek nirea eraman zuen eta nik beste batena. Norbaitek aurkitu badu dei diezadala. 630 19 64 67.

**Umearen txamarra** galdu genuen domekan Arrasateko autobus geltokian. Aurkitu duenak dei dezala 675 00 66 03 edo 615 79 13 21 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Oñati.** Betaurreko batzuk aurkitu ditut Arantzazutik Gomiztegira doan bidean. Ikusteko betaurrekoak dira. Txikiak eta zuriak. Galdu dituenak dei dezala 627 64 91 89 zenbakira.

**Txanoa** aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean asteburuan. Galdu duenak dei dezala 943 71 46 50 telefono zenbakira.

**4 ETXEBIZITZA SALGAI BERGARAN**



2 eta 3
logelako etxeak
Bidekurutzeta kalean
215.000 €-tik aurrera
Informazio gehiagorako:
943 76 21 80
677 54 98 86

KOROSTI INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerreka, 95 m², oso ondo.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 m² + 42 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan eta Zubietan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

CIC microGUNE
Microtechnologies Cooperative Research Center

**ZUZENDARI LAGUNTZAILEA**

Mikro-nanoteknologia ikertzen duen CIC microGUNE zentroak zuzendari laguntzailea behar du Arrasateko Garaia guneko egoitza berrirako, ezaugarri hauekin:

- Esperientzia zuzendaritzari laguntzeko lanetan eta baita marketin eta komunikazio zereginetan eta kontabilitate eta lan administrazioan.
- Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentzia edo baliokidea.
- Euskara eta ingeleseko maila handia.

Interesatuok bidali curriculuma ondoko helbidera, ZL erreferentzia jarriz:

*microgune@cicmicrogune.es*

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Maider Azkarate** > Ile-apaintzailea

# "Orokorrean, hemen modernoak eta ausartak gara ile-orrazkeretan"

Gaztea izanda ere, ez da atzo goizean ile-apaintze lanetan hasitakoa Maider Azkaratek. Ikasketak amaitu bezain laster lanean hasi eta 7 urte darama dagoeneko bergararren orrazkerak txukuntzen. Txikitatik gura izan du estetikan lan egin eta horretan dihardu. Zaragozan eta Madrilen ikasi eta ikastaroetan Londres eta New Yorken jardun du azkenaldian.

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Izugarri gogoko du Maiderrek estetikaren mundua: ile-apaintzetik hasi bai, baina moda edota dekorazioa ere gogoko ditu. Euskal Herria modernoa dela dio.**

**Oso orrazkera apurtzaileak gustatu ohi zaizkion ile-apaintzaile horietako zara zeu ere?**

Bai, apur bat bai, baina beti da bezeroaren araberakoa. Lehiaketak-eta irabazi izan ditudanez, asko ere horren bila etortzen dira. Abangoardiaren sari bat ere eman zidaten eta jendeari asko gustatzen zaio aldatzea.

**Beraz, jendea ausarta da?**

Euskal Herrian oso. Kanpoan ikastaroak egitera joan izan naizenean igarri egiten zaigu euskaldunei: mozkerak, estiloa... adibidez, Espainia hegoaldean baino askoz modernoagoak gara.

**Londres aldean ere ibili zara, baina. Han askoz ere ausartagoak izango dira.**

Aurten, adibidez, eskolatik New Yorken egon naiz eta hango eskola oso modernoa zen. Londresen kalean ez dira hain gauza ausartak ikusten; janzkeran bai, baina orrazkeran ez. New Yorken oso ausartak ikusi ditut. Euskal Herrian orokorrean, hala ere, modernoagoak gara. Hango eskoletan pasarelarako eta izarrendako egiten dute lan eta oso gauza bitxiak ikusten dira.

**Izan duzu zuk aukerarik famaturen bat orrazteko?**

Zaragozan ikasten egon nintzenean zuzendaria oso ezaguna zen, jende askorekin lan egindakoa eta gala asko egin genituen. Lehiaketa irabazi nuenean Donostiako talde baten nenbilen lanean eta han, emaztegaien desfiletan, missak eta aurkezleak orrazteko aukera izan dut.

**Neskak besteko ausartak dira mutilak?**

Bai, eta geroago eta gehiago, gainera. Mutilak asko gertatzen hasi dira dagoeneko.

**Eta Bergara, ausarta da?**

Inguru dena da nahiko ausarta. Esan moduan Euskal Herria oso modernoa da orrazkera aldetik.

**Garrantzitsua da ile-orrazkera zaintzea?**

Bai, oso. Niretzat bai, noski, baina orrazkera eta itxura ona izanda, norbera ere hobeto sentitzen dela uste dut. Garrantzia dauka zentzu horretan zaintzeak, hobeto sentitzeko.

**Ilea orrazteaz gain, ile-apaindegietan psikologoarena ere egiten dela esan ohi da sarri.**

Asko, denetarik egin behar da. Baina bezeroari dagokion mozkera asmatzeko ere garrantzitsua da harekin berba egitea. Pertsonaren estiloa edo zer gustatuko zaion asmatzeko ere psikologo lan apur bat egin beharra dago. Garrantzitsua da bezeroa ulertzea.

**Eta lanaren alde hori gogoko duzu?**

Asko etortzen diren bezeroekin harremana estutzen da eta haiekin hartu-emana sakonagoa da. Baina ile-apaindegiek badaukate *txutxu-mutxu zulo* ospe hori, baina nik uste dut aitaren lantegian askoz ere gehiago kuxkuxeatzen dela.

**Jarrai dezagun ile-apaintzaileen klixeekin. Gutxi mozteko eskatzerakoan, zer da benetan ulertzen duzuena?**

[Barreak] Nik uste dut pertsona bakoitzaren *apurtxo bat* diferentea dela eta zaila dela asmatzen. Niri, hala ere, ez zait gustatzen askorik moztea, baina sarri ilearen egoera ez da oso ona eta moztu egin behar da. Hala ere, kasu honetan ere gehiago da fama errealitatea baino.

**Ze mozkera dira orain bogan daudenak?**

Garondo aldea motza ikusten da asko eta kopeta zuzen moztua. Hori aspalditik datorren moda da, ze orain dela lau bat urte hasi zen-etaikusten Londresen, baina oraindik ere asko ikusten da. New Yorken deskonexio asko ikusi ditut. Adibidez, barrutik oso motz eta kanpotik luze. Orain asko etorriko dena dira plantxak. Ez bakarrik ilea lixatzeko, kizkurtzeko ere asko. Ile-sikagailua apur bat aldera utzi eta plantxetara joko da gehiago aurrerantzean. Egon naizen azken ikastaroetan ilea lehortu eta guzti plantxen bitartez egiten zen.

**Eta, nabari da krisia ile-apaindegian?**

Berez urteko azken hilabete hauek arinagoak izaten dira, baina guztiaren moduan hasiko da poliki-poliki igartzen, katean doaeta guztia. Hala ere, orain arte nahiko antzera egin dugu lan aurreko urtearekin konparatuz.









JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Ile-apaintzailea. **Abeslari bat:** Lauryn Hill. **Gorrotatzen duzu zeozer:** Gorrotoa. **Bidaia egiteko leku bat:** Japonia. Han moda eta estetika kontua asko mugitzen da. **Moda diseinatzaile bat:** John Galliano. **Zaletasun bat:** Patinatzea eta eskiatzea. **Denborapasa:** Eskulanak egitea. **Astebukaerarako plan bat:** Lagunekin ahal den eta denbora luzeen egitea. **Ametsen bat:** Diru mordo bat izan eta eta moda eta estetika kontuak ikastea. **Biziorik:** Pipak jatea.

# Baserriko antzinako tresnak ezagutzeko aukera

Joan den astera arte izan da Arrasateko Kulturaten baserriko tresnen erakusketa

**GOIENKARIA** > BERGARA
Baserri barruko tresnak eta altzariak, nekazaritza lantzeko tresnak, neurtzekoak, abeltzaintza eta ingurunearekin edota bizimoduarekin lotutakoak... Halako mordoa izan dira abendutik joan den astera bitartean Arrasateko Kulturaten erakusgai. Erakusketa horrekin, bada, eta Bixente Pagoagaren laguntzarekin –hura izan da-eta Julen Iriondori erreportajean lagundu diona– gure baserrietako lehenagoko nekazaritza eta abeltzaintzarekin zein usadioekin lotutako tresnak ezagutu ahalko dituzue eguaztenean, 22:15ean. Pagoagak, gainera, tresna horien jatorria, garaia, erabiltzeko modua eta beste hainbat kontu azalduko dizkigu.

**GOITB, 'Erreportajea'**
> Eguaztena, 22:15
> Eguena, 18:00


Bixente Pagoagak emango ditu azalpenak. GOIENKARIA

## Brutal Melody eta antzerkia

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Kulturan oinarritutako opariak zozketatzen segituko dute Arrasate Irratian datorren astean: batetik, 3.60 aretoan Brutal Melody talde arrasatearrak egingo duen kontzerturako (urtarrilaren 24an, 22:30ean) sarrerak zozkatuko dituzte; eta bestetik, *Inmundo; hesi-puskatzailea* antzezlanerako (urtarrilaren 24an, 18:00etan) sarrerak zozkatuko dituzte.

**Arrasate Irratia, 'Igo Autobusera'**
> Egubakoitza (urtarrilaren 16a), 11:30etik 12:00ak bitartean


GOIENKARIA

## Debagoieneko onena eta Danbakako irabazlea, GOITBn

Danbaka musika lehiaketa amaierara iritsi da; izan ere, gaur izango da finala. Gaur erabakiko dira, beraz, beste batzuen artean, aurtengo irabazlea eta Debagoieneko talderik onena. Bada, horien bien kontzertuak ikusteko aukera izango da datorren astean. Martitzenean talde irabazlearen kontzertua eskainiko dute eta eguenean, berriz, Debagoieneko talde onenarena.

**GOITB, 'Danbaka'**
> Martitzena, 20:45
> Eguena, 20:45

### telebegi

**Gorka Etxabe**
'getxabe@arteman.org'

## Agur, 'Ordu txikitan' saioari

Mikel Elizegik aurkezten duen *Ordu txikitan* saioa programaziotik kentzea erabaki du ETB-1 telebista kateak. Ez da samurra erabakia ulertzea, izan ere, saioak ikus-entzule kopuru txukuna izan du emisioa abiatu zuenetik, telebistaren batezbestekoaren gainetik.

Bi urte eta erdi egin du Euskal Telebistaren zapatuetako telebista eskaintzan, *prime time*-an, haurren ikuspegitik Euskal Herriko pertsonaiak ezagutzeko aukera emanez. Kirolariak, politikariak, musikariak, dantzariak, sukaldariak eta beste zenbait lagun gertutik eta modu originalean ezagutu ditugu *Ordu Txikitan* saioari esker. Gure etxean gustura ikusten genuen, familiarentzat telebista eskaintza aproposa zela iruditzen zait, baina agur esan beharko diogu. Zergatik?

### arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Albistegi laburra.

### astea GOITBn

**Egubakoitza, 16**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka: Flipin folk Rock Privado.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 17**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 18**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 19**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Abesbatzak.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: Flipin folk Rock Privado.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 20**
**13:15** Marrazki bizidunak: Foofur.
**13:45** Ikusten:
**14:15** Eltze beroa: Bakailu laminak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Finalistak
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Jaime Otamendi
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 21**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira: Triatloia
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Goiena Magazinea.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Goiena Magazinea.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Goiena Magazinea.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Filma: Olentzero eta Subilaren lapurketa.
**23:45** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**00:45** Goiena Magazinea
**01:45** Danbaka 08
**02:45** Emisio amaiera.

**Eguena, 22**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Eltze beroa.
**13:00** Goiena Magazinea.
**14:00** Trikitraka trikitron.
**15:00** Olentzero eta Subilaren lapurketa.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Debagoieneko onena
**21:15** Ikusten.
**21:45** Ilunpean.
**22:30** Solaskide.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Danbaka: The Wet Band eta Turboshit.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### MUXIBARKO IGOGAILU PUBLIKOA ZERGATIK EZ DABIL?

**Arrasateko irakurle batek deitu du gure erredakziora, eta hauxe jakin nahi du: "Muxibarko parkingaren barruan dagoen igogailu publikoa ez dabil. Noiz egongo da erabilgarri? Bi igogailu eraiki dituzte: bata publikoa eta bestea pribatua, garajeen erabiltzaileendako. Bada, bigarren hori martxan dago; ez, ordea, igogailu publikoa, nahiz eta komunikabideetan kontrakoa esan. Oraindik ez badago zabaltzeko moduan, zergatik adierazi dute hori Udaletik?".**

Udalarekin jarri gara harremanetan eta kontua da duela aste batzuk jakinarazi zuela Muxibarko igogailu publikoa abenduaren 22tik aurrera izango zela erabilgarri. Eta ez da horrela izan. Hain justu, astelehenean abisatu zuten oraindik ez dagoela martxan. Ino Galparsoro alkateak emandako azalpenen arabera, Udalaren asmoa zen Santamasetarako guztia gertu izatea, baina Iberdrolarekin konturen bat konpontzea falta zitzaiela-eta, ez dute lortu epe hori errespetatzea.

Gauzak horrela, alkateak azpimarratu du ahaleginduko direla Muxibarko igogailua ahalik eta lasterren martxan ipintzen eta hori egin bezain laster jakinaraziko dietela herritarrei. Bizkaia etorbidetik atera eta, oraingoz, Gorostizaraino iristen da Arrasateko lehenengo igogailu publikoa, Gernika Oinezkoen Zumardiraino.



Irudian, Arrasateko Muxibarko igogailuak. UBANE MADERA

### KIROL ABONU MANKOMUNATUAK

**Oñatiko irakurle batek zera jakin nahi du: "Kirol abonu mankomunatuak zenbat balio du Oñatin? Eta Debagoieneko beste herrietan ere erabil daiteke?".**

Oñatiko Zubikoa kiroldegiko administrariarekin hitz egin dugu abonu mankomunatuen prezioen gainean. Bada, abonu familiar mankomunatu *lehorrak* –igerilekua erabili ezin daitekeena– urteko 194,80 euro balio du; *bustia* izeneko abonu familiarra– igerilekua bakarrik erabil daitekeena– 194 euro; *plus* izeneko abonu familiarra –igerilekuak eta beste ekintza gelak erabil daitezke– 288,10 euro. Indibiduala, berriz, nagusietan– lehorrekoa– 139,75 euro eta bustia, berriz, 139,75 euro; biak batera hartzen badira– plusa– 186,30 euro. Adinez txikikoek eta langabeek lehorra hartzen baldin badute, 97,35 ordaindu beharko dute; bustia hartzen badute ere berdin ordainduko dute: 97,35 euro; eta biak batera hartuz gero 11,10 euro.

Bestalde, txartel mankomunatua erabiltzeko orduan, Debagoieneko edozein zerbitzu erabili ahal izango da berdin; hau da, kasu horretan oñatiar batek lehorreko mankomunatua ateratzen baldin badu, Debagoieneko beste edozein kiroldegik eskaintzen dituen zerbitzuak erabili ahal izango ditu.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 17**
Eguraldi egonkor eta eguzkitsuarekin hasiko dugu asteburua. Tenperatura maximoak gorazko bideari eutsiko dio.

**Domeka, 18**
Laino tarteak agertuko dira, baina tenperaturak gora egingo du. Astea euriarekin hasiko dugu eta tenperatura jaitsi egingo da.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburuan eguraldi egonkor mantenduko da eta tenperaturak gora egingo du, baina, astea hastearekin batera, euria egingo du eta aste erdian tenperatura jaisten hasiko da.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguena, 8 — -1º C

**MAXIMOA** Astelehena, 12 — 8º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 16,3 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 7 | 2 | 0 | 2,9 |
| Eguena, 8 | 1 | -1 | 0,3 |
| Egubakoitza, 9 | 6 | 4 | - |
| Zapatua, 10 | 4 | 0 | - |
| Domeka, 11 | 8 | 0 | - |
| Astelehena, 12 | 8 | 5 | 0,9 |
| Martitzena, 13 | 6 | 3 | 12,2 |

## bono fotoa

Garmendia Ardoak
BODEGAS LARCHAGO FUNDADA EN 1882
LARCHAGO

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk
asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..........................................
IZEN-DEITURAK ..........................................
TELEFONOA..........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara



## Urtarrilaren 17an animalien patroiaren eguna ospatzen dute izen bera duen Bergarako auzo eta ermita honetan. Zein da santu horren izena?

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 18 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 19 | Ruiz | Nafar. Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 20 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 21 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 22 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 23 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Alvarez-Mozos | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| Domeka, 18 | Alvarez-Mozos | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 19 | Urrutikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 20 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 21 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 22 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 23 | Alvarez-Mozos | Iparragirre | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 18 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 19 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 20 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 21 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 22 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 23 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 17 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 79 21 99 |
| Zapatua 17(goardia) | Anitua( Aretxa.) | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 18 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 19 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 20 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 21 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 22 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 23 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

## hildakoak

- **Patricio Aiastui Biteri.** Arrasaten, urtarrilaren 2an, 76 urte.
- **Maria Orella Ordeñana.** Oñatin, urtarrilaren 7an, 95 urte.
- **Ana Guerrero Ruiz.** Arrasaten, urtarrilaren 7an, 81 urte.
- **Pedro Davila Nogales.** Arrasaten, urtarrilaren 8an, 81 urte.
- **Jenaro Igartua Irizar.** Oñatin, urtarrilaren 8an, 77 urte.
- **Angel Maria Junco Lazkanoiturburu.** Oñatin, urtarrilaren 8an, 59 urte.
- **Aurora Conde Ruiz de Loizaga.** Bergaran, urtarrilaren 8an, 85 urte.
- **Francisco Barruetabeña Zigorraga.** Aretxabaletan, hilaren 8an, 89 urte.
- **Arantza Orueta Bengoa.** Oñatin, urtarrilaren 9an, 47 urte.
- **Mikeli Iraola Villar.** Oñatin, urtarrilaren 10ean, 83 urte.
- **Jesus Castaños Donamaria.** Oñatin, urtarrilaren 10ean, 91 urte.
- **Migel Angel Ibarguen Alonso.** Arrasaten, urtarrilaren 10ean, 53 urte.
- **Antonio Gonzalez Arzuaga.** Bergaran, urtarrilaren 10ean, 91 urte.
- **Concepcion Gastañares Retolaza.** Bergaran, urtarrilaren 11n, 86 urte.
- **Maria Eugenia Erostarbe Astigarraga.** Oñatin, hilaren 13an, 87 urte.
- **Jabier Almortza Jaunarena.** Bergaran, urtarrilaren 14an, 75 urte.
- **Julia Zilaurren Azkargorta.** Aramaion, urtarrilaren 14an, 83 urte.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:



ESKER ONA

### Mikaela Bakarte Aristeta

Arrasaten hil zen 2008ko abenduaren 23an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Juan Kruz Mugika Arregi

2009ko urtarrilaren 4an hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Jose Iñarra Larrea

Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 13an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Jose Aguirre Goitia

Oñatin hil zen 2009ko urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Fakunda Laskurain Albistegi

Esteban Olaortuaren alarguna

Antzuolan hil zen 2008ko abenduaren 21ean, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Salvador Mena Guijarro

'Meneta'

2008ko abenduaren 22an hil zen, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko urtarrilaren 16an.

ESKER ONA

### Angel Luziano Azkarate Arizabaleta

'Errotatxo'

Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 30ean, 54 urte zituela.

*Maite deguna joaten*
*Denean*
*Beti degu galera*
*Bihotz barnean*
*Hutsune handi bat*

*Negar malkoez batera*
*Baina argi bat piztu da*
*Goian*
*Zure arima da bera*
*Eta izar bat ikustean*
*Zutaz oroituko gara.*

—

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urtarrilaren 16an.

URTEURRENA

### Jose Maria Arejolaleiba Zabala

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urtarrilaren 17an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Isidora Barandiaran Larrañaga

2008ko urtarrilaren 13an hil zen, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren
18an, 12:30ean Eskoriatzako San Pedro parrokian.

—

*Gabero argitxo bat ixoketan dozu amama,*
*izar itxuria hartzen dauena.*
*Guk argi hortara beiketan gauen bakotxien,*
*zu ikusi ez arren,*
*zure irudixa gure begixetan isladatzen da.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Miguel Angel Ibarguen Alonso

Iruñean hil zen 2009ko urtarrilaren 10ean, 53 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Haren aldeko meza domekan, urtarrilaren 18an,
12:30ean San Frantzisko elizan.



Arrasaten, 2009ko urtarrilaren 16an.

URTEURRENA

### Elvira Bilbao Dalza

Lehen urteurreneko meza domekan,
urtarrilaren 18an,
12:30ean
Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Martin Gantxegi Urisabel

Lehen urteurreneko meza domekan,
urtarrilaren 18an,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Urtarrilak 16-23

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ELGETA
**> Danbakako finalistak eta Petti gaur gauean Espaloia Kafe Antzokian**

The Wet Band, Norman eta Adi Holden taldeek jokatuko dute Danbaka musika lehiaketako finala gaur, egubakoitza, 22:30ean hasita. Pettiren emanaldiak emango dio amaiera Danbako III. ekitaldiari.

## Antzerkia



ARRASATE
**> Maskarada taldearen azken antzezlana Amaia antzokian: 'Ohean'**

Maskarada taldeak *Ohean* lana antzeztuko du domekan, 19:30ean. Taula gainean Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro egongo dira, Carlos Panerak zuzenduta. Unai Elorriagak egokitu eta euskaratu du lana. Sarrerak, 10 eurotan.

## Antzerkia



OÑATI
**> 'Brokers', Yllanaren antzezlana domekan Santa Ana aretoan**

Goi finantzen munduaren parodia ekarriko dute oraingoan Yllanakoek. Negozioen munduko lau exekutibo dira antzezlaneko protagonistak. Domekan, Santa Ana aretoan, 19:30ean. Sarrerak 10 eurotan daude salgai kultura etxean.

# Musika

BERGARA
**> Bikustik taldearen kontzertu akustikoa**

Gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean.

ESKORIATZA
**> Fiachras taldea Aitzorrotz Kultur Elkartearen eskutik**

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ESKORIATZA
**> Benito Lertxundi kiroldegian urtarrilaren 31n**

Sarrerak Eskoriatzan Dorleta liburu dendan, Inkernun, Goxotxikin eta Igehik inprentan; Aretxabaletan kioskoan; Arrasaten, Monte tabernan; eta Oñatin Turismo Bulegoan.

# Erakusketak

ELGETA
**> Aitor Aulestiarteren 'Begiradak' Espaloian**

Aitor Aulestiarte argazkilariaren lanak Espaloia Kafe Antzokian.

Espaloian, hilaren 30era arte.

ANTZUOLA
**> Iñaki Badiolaren pintura erakusketa**

Iñaki Badiola Antzuolan jaio zen 1947an. Donostian bizi arren ahal duen guztietan etortzen da Antzuolara. Arte esparru ugari lantzen ditu: esmaltea, eskultura harrian, taila, pintura…

Zapatuan eta domekan Olaranen: 12:30-14:00 eta 18:30-20:30.

BERGARA
**> 'Azur'-en argazkiak Bergarako Artekale pizzerian**

*Azur* bergararraren hainbat lan daude ikusgai Artekale pizzerian; *Euskal txokoak* postal bildumako jatorrizko argazkiak dira.

Erakusketa urtarrilaren 31ra arte dago ikusgai.

ARETXABALETA
**> 'Birziklatuz sortu' erakusketa ibiltaria**

Birbira talde nafarrak birziklatutako hondakinekin erakusketa jarri du Arkupe kultura etxean, Ingurumen Hilabeteren barruan. Antolatzaileen asmoa da hondakin kontzeptuaren gaineko hausnarketa bideratuz sormena lantzea.

Erakusketa urtarril osoan, Arkupen.

ESKORIATZA
**> Mustagata espedizioaren gaineko espedizioa**

Mendiko irudiak ikusgai Inkernu tabernan.

Otsailaren 16ra arte egongo da ikusgai erakusketa.

BERGARA
**> BEKE elkarteko kideen eskulanak**

Bergarako Emakumeen Kultur Elkartearen eskulanak ikusgai.

Aroztegin, urtarrilaren 16tik 25era.

ESKORIATZA
**> Munduko dantzak bihar, zapatua**

Munduko dantza errazak, batez ere Europakoak: ohikoenak, klasikoenak, ezagunenak.

Bihar, zapatua, pilotalekuko gimnasia gelan, 17:30etik 20:30era. Argibidetarako: Patxi, 680 76 5970.

# Deiak

ARETXABALETA
**> Aratusteetako argazki zaharrak jaso nahi dituzte**

Otsailaren 22an ospatuko den Aratuste-domekari begira proiektutxo bat darabil esku artean artxiboak, eta hori aurrera ateratzeko ezinbestekoa du argazkiak biltzea. Herritarrek etxean gordeta dituztenak pilatu gurako lituzkete. Argazki kamera digitalarekin ateratakoak eta paperean daudenak, guztiak jasoko dituzte.

Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan utzi behar dituzte argazkiok herritarrek.

# Ikastaroak

ARETXABALETA
**> Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza Libre topaketak antolatu ditu. Isabel Alzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era, kuartel zaharreko dantza lokalean, bigarren solairuan.

Urtarrilaren 22an eta otsailaren 19an izango dira lehenbiziko saioak. Izen ematea: 669058033 edo berenaiara@yahoo.es.

ARRASATE
**> Bi ikastaro Ekin Emakumeak elkartearen eskutik**

Eskulan ikastaroa Mila Akizuk emango du, urtarrilaren 15etik martxoaren 18ra, martitzenero 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.

Orratz lanen ikastaroa ere izango da martxoaren 13ra bitartean, egunero 15:00etatik 17:30era.

Bi ikastarotarako izenematea zabalik dago oraindik elkartean bertan edo 943 79 83 70 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak**

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak. Pintura eskolak udazkenean hasi zituzten, baina oraindik lekua daukate, eta eskulanetan ere bai.

Izena emateko Arkupe kultura etxera deitu behar dute interesatuek, 943 08 10 01 telefonora.

ARRASATE
**> Emakume Txokoak antolatutako ikastaroak**

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: pilates (hastapena), yoga (hastapena), autoestimua eta hazkuntza, barreterapia, dantza garaikidea, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eta euskara.

Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

ARRASATE
**> Emakumeei zuzendutako paleta ikastaroa Arrasaten**

Emakume Pilotari programaren barruan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Arrasateko Udalarekin batera, 18 urtetik gorako emakumeendako paleta ikastaroa jarriko du martxan urtarriletik ekainera.

Izenematea urtarrilaren 26ra arte zabalik, Musakolako kiroldegian edo 676 05 52 54 telefono zenbakian.

ARRASATE
**> Pilates hastapen ikastaroa astelehenetik aurrera**

Urtarrilaren 19tik 31ra bitartean izango dira eskolak. Oraindik ere plazak geratzen dira.

Argibideak Musakolako kiroldegian, 943 77 16 77 telefonoan.

ARRASATE
**> Narrugintza eta irratigintza Txatxilipurdirekin**

Datozen bi asteetan Ergineko gaztetxokoan irrati

PROPOSAMENA

BERGARA
## > San Anton auzoko jaiak asteburuan

Beste hainbat lekutan bezala San Anton eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Bergaran. 10:00etan eliztarren eskaintza San Antoneko ermitan; 11:00etan meza; 13:00etan txikiteoa auzotik eta 16:00etan mus txapelketa Zubiberrin.

Domekan, meza 11:00etan (Umore Onako abesbatzarekin); 12:00etan krosa; ondoren herri kirolak eta dantza; 13:00etan umeendako jolasak eta 14:00etan sari banaketa.

San Anton auzoan, Bergaran.



tailerra egongo da. Gazteek mikroen aurrean jarri eta irratsaio bat egiteko aukera izango dute. Beraiek nahi duten musika jarri, beraiek nahi dituzten gaiak jorratu... Bestalde San Andreseko gaztetxokoan narrua lantzeko aukera izango dute bertaratzen diren gazteek. Karterak, diruzorroak… eta bestelakoak landuko dituzte.

Argibidea gehiagorako deitu Txatxilipurdira, 943 79 54 46 telefonora.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak Labur-Laburrak film labur lehiaketa antolatu du, eta emakumeenganako biolentzia da gaia. Lan guztiak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke, eta gutun-azal batean, lanaren eta egilearen gaineko datuak idatzi beharko dira. Gehienezko iraupenak 5 minutukoa izan behar du.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte dago zabalik.

ANTZUOLA

**> Trikitixa Egunerako logotipo lehiaketa deitu dute**

2009ko Trikitixa Egunerako logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu dute antolatzaileek. Edozeinek parte har dezake. Derrigorrez testu beharreko esaldia hauxe da: *Deba Goieneko Trikitixa Eguna 2009, apirilak 25, Antzuola*. Norberak nahi beste lan egin ditzake, euskarri digitalean eta paperean, gutun-azal eta goitizen sistemaren bidez. Antzuolako Udal Kultura Batzordera bidali behar dira lanok. 200 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago Udaleko Kultura batzordean, 943 76 62 46 telefonoan.

ARETXABALETA

**> Kartel lehiaketa Aratusteak iragartzeko**

Aratusteak iragarriko dituen kartela hautatu gura du Kultura Sailak. Honako baldintza hauek bete beharko dira: neurria 50x70 zentimetrokoa izango da, eta ordenagailuan eginez gero, DIN-A3an aurkez daiteke. Eta derrigorrez testu hau izan behar du: *Aratusteak Aretxabaleta 2009*. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Lanak urtarrilaren 23ra bitartean jasoko dituzte Arkupe kultura etxean.

ESKORIATZA

**> II. Film Laburren eta Dokumentalen jaialdia**

MUko ikasleei zuzendutako lehiaketa. Lanak aurkezteko epea otsailaren 2an bukatuko da. *www.huhezinema.com*

ARRASATE

**> Martxoaren 8rako kartel lehiaketa**

Arauak eta informazioa Emakume Txokoan (943 79 41 39) edo *www.arrasate-mondragon.org* helbidean. Epea: otsailaren 16ra arte zabalik.

# Zinema



## El intercambio
****

**Zuzendariak:** Clint Eastwood.
**Aktoreak:** Angelina Jolie, John Malkovich, Colm Feore.

*El intercambio*-ren hasieran, ikusi behar dugun istorioa benetan gertatutako istorioa dela esaten zaigu. Egia esateko, benetan gertatutako istorio bat ala asmatutako izatea berdin egiten zait, garrantzitsuena kontatzen zaiguna sinesgarria izatea da. Kasu honetan, *El intercambio*-ko istorioa nahiko harrigarria bada ere, Eastwoodek horretara hurbiltzeko moduagatik, bertan agertzen diren pertsonaiak eta gertakizunak sinesgarriak izatea lortzen du. Poliki-poliki semea desagertzen zaion ama bat ezagutuko dugu, eta nola hortik hilabete batzuetara poliziak beste mutiko bat bueltatzen dion desagertutako semea dela esanez. Hortik aurrera emakume horren norgehiagoka jarraituko dugu eta beste azpi-istorio sortuko dira: poliziaren ustelkeria, hiltzailearen istorioa, haurrek jasandako tratuak, emakumeak izango dituen laguntzak poliziaren jokoa desestali nahian... Gertakizun indibidual batetik hasita, garai horretako gizarteari begirada orokor bat ematen zaio; itxuren azpitik dagoen alde ezkutua.

Eastwoodek ia bi ordu eta erdi erabiltzen du, zehaztasunez, alderdi guztiak erakusteko. Dotoreziaz, ia efektu kolperik gabe (beno, zoroetxean, elektroshockekin intrigako eszena bat egitea beste film mota batekoa dirudi), girotze eder batekin eta aktore guztien aukeraketa egokiarekin (bai protagonista eta bai labur agertzen diren pertsonaiak ondo daude), egiazkoa bihurtzen dute ona eta txarren arteko izan zitekeen azaleko istorioa. Eastwoodek istorioaren kapa guztiak azaltzen ditu, eta momentu bakoitzaren indar dramatikoa jasotzen du. Istorio ilun eta tragiko bat kontatzen digu zuzendariak eta, aldi berean, pertsonaia baten kemena sisteman dagoen alde ustelari aurre egitean Frank Capra handiaren filmen izpiruta ere badago...

**Antonio Zabala**

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Crepúsculo**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

**Mimzy, mas allá de la imaginación**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Aleksandra**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### BERGARA
**ZABALOTEGI**

**Indiana Jones y el templo de la calavera de cristal**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Wall-E**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú**
Domeka: 18:00.

### ARETXABALETA
**ARKUPE**

**Quemar después de leer**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:30.

**Astérix en los Juegos Olímpicos**
Domeka: 17:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Gomorra**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Australia**
17:30, 20:30.

**Resistencia**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**Quarantine**
17:30, 22:30.

**Rocknrolla**
20:00.

**Il divo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cuestión de honor**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

**Bolt**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Cuando ella me encontró**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:45, 20:40, 22:35.

**Madagascar 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Siete almas**
17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Bienvenidos al norte**
17:30, 20:00, 22:30.

**La ola**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:30.

**El truco del manco**
17:30, 20:00, 22:30.

**Una familia con clase**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:30.

**El intercambio**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:30.

**Noches de tormenta**
20:00, 22:30.

**La clase**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Siete almas**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Guerra de novias**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**La semilla del mal**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 19:50, 21:50, 23:50.

**La clase**
16:25 (zapatuan eta domekan), 19:10, 21:40, 00:20.

**Australia**
17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 21:30, 23:30.

**El intercambio**
19:00, 21:45, 00:25.

**Bienvenidos al norte**
17:40, 19:40, 21:40, 23:40.

**Crepúsculo**
20:15, 22:30, 00:45.

**Madagascar 2**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45.

**Cuestión de honor**
19:30, 22:00, 00:30.

**El lince perdido**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.

**La ola**
20:15, 22:15, 00:15.

**El valiente Desperaux**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:00.

**Bolt**
15:50 (zapatuan eta domekan), 18:00.

**Ultimatum a la tierra**
20:10, 22:20, 00:30.

**Ratoncito Pérez 2**
15:40 (zapatuan eta domekan).

**City of Ember**
15:55 (zapatuan eta domekan), 17:55.

**Quarantine**
20:05, 22:05, 00:05.

**Di que sí**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10.

**Disaster movie**
16:45, 18:45, 20:35, 22:35, 00:25.

**007 Quantum of Solace**
22:10, 00:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**City of Ember**
17:15.

**El intercambio**
19:30, 22:20.

**Australia**
16:00, 19:15, 22:35.

**Crepúsculo**
17:00, 19:30.

**Bolt**
16:05, 18:10.

**Quarantine**
20:20, 22:30, 00:45.

**Di que sí**
16:30.

**Mi nombre es Harvey Milk**
19:45, 22:20, 01:00.

**Resistencia**
16:30, 19:15, 22:00, 00:45.

**Guerra de novias**
16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Siete almas**
17:00, 20:00, 22:35, 01:00.

**La semilla del mal**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

**El truco del manco**
16:15, 18:20, 20:25, 22:25, 00:30.

**Madagascar 2**
16:10.

**Cuestion de honor**
19:30, 22:10.

**Una familia con clase**
16:00, 18:10.

**Cuando ella me encontró**
20:20, 22:30.



**Quemar después de leer ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Joel Coen, Ethan Coen. Aktoreak: George Clooney, Frances McDormand, John Malkovich, Tilda Swinton, Brad Pitt.
Coen anaien azken komedia. CIAn lanean ibilitako Osborne Cox kaleratu egin dute eta gauzak erabat nahastu zaizkio dokumentu ustez garrantzitsu bat galtzerakoan. Emaztearekin duen harremana ere okertu egingo zaio ustekabean...

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Transsiberian** **
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008.
Zuzendaria: Brad Anderson.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Roy desagertu egiten da.

**Sólo quiero caminar** ***
Espainia-Mexiko, 2008.
Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.
Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurreta egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzelan dago. Bitartean, mexikar trafikatzaile batzuk Espainiara iritsi dira, eta Ana kontratatzen dute.

**Bella**
AEB-Mexiko, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gómez Monteverde.
Nazioarteko futboleko izar baten eta New Yorken bizi den zerbitzari eder baten bizitzek bat egingo dute espero ez duten modu baten.

**Noches de tormenta** **
AEB-Australia, 2007. Zuzendaria: George C. Wolfe.
Adrienne, banandu berri den emakumea, kostako herrixka batera doa. Han, krisian dagoen mediku bat ezagutuko du.

**Los girasoles ciegos** ***
Espainia, 2008.
Zuzendaria: José Luis Cuerda.
Aktoreak: Maribel Verdú, Javier Cámara.
Ourense, 1940. Elenaren senarra, Ricardo, ezkutuan bizi da, jazarpen ideologikoarengatik. Salvador abadea frontetik bueltan dator, eta Elena ezagutuko du haren semearen bitartez. Alarguntzat jota, emakumearekin obsesionatuko da.

**The women** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Diane English.
Mary Haines-ek, itxuraz, bizitza perfektua du: etxe eder bat, 12 urteko alaba pinpirina, Wall Street-en arrakasta duen senarra... Gainera, moda diseinatzailea da.

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Benetako gertakizun baten oinarritutako filmak 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Zinemaldian kritika onak jaso zituen Fesseren filmak.

**nire aukera**



Fran Iturbe
Gitarra jolea

## Bide Ertzean-ekin gaur Tolosan

Estatu Batuetan bizi da Fran Iturbe bergararra eta gaur Bide Ertzean taldeak Tolosan emango duen kontzerturako etorri da espresuki Kaliforniatik.

Hain zuzen ere, azken hamar urteotako ibilbidea laburbilduko duen DVDa grabatuko dute Bide Ertzean taldeko kideek Leidor aretoan (sarrerak agortuta daude: "Sold out", Franen hitzetan). Tolosarren bost diskoetan hartu du parte gitarrista beteranoak. Bisita laburra egin digu Iturbek oraingoan; bihar, zapatua, goizeko lehen orduan itzuliko da AEBetara. Hala ere, ez du galdu familiarekin eta lagunekin egoteko aukera.

**Nolakoa izango da gaurko kontzertua?**
Taldearen kantu ezagunei gainbegiratua egingo diegu, hamar urteotan egindako ibilbidea nolabait ospatu. Dokumentala grabatuko dugu eta kantuez gain lagunen eta bestelako jendearen iritziak tartekatuko dira.

**Etxean, lagunen aurrean egin nahi izan duzue grabazioa.**
Bai, taldekideak tolosarrak dira eta erraztasun handiak eman dizkigute entseguak egitekoeta. Ez nuen Leidor berritua ezagutzen, eta oso ondo dago.

**Zein izan da Bide Ertzean-en ekarpen nagusia?**
Ez dakit. Egindakoa hor dago. Pop estiloaren ildotik pop akustikoa eta elektrikoa landu ditugu eta lortu dugu jarraitzaile askotxo izatea.

**Dokumental musikaletatik zure faboritoak?**
Wilcorena, *I am trying to break your heart* , eta Dylanena: *No direction home*.

**Gabonak AEBetan. Santa Clausen oparirik bai?**
Ez naiz oso zalea... baina arropa pixka bat, bai.

**Zein proiekturekin orain?**
Chanarekin asko jo dugu azkenaldian eta diskoa prestatzeari ekingo diogu orain.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-01-16

# Hiru 'condor' debagoiendar

**LEHIAKETA** Astelehenean hasi ziren ematen 'El Conquistador del fin del mundo' saioaren bosgarren edizioa

**TALDEA** Condor taldean daude Maite Iturraran, Eneko Mugurutza eta Ahinara Zubizarreta ibarreko ordezkariak

**GOGORRA** Hotzak eta goseak gogortu egin dute egonaldia eta indar falta izan da oztopoa probetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

*El conquistador del fin del mundo* telebista saioaren bosgarren edizioa hasi da ETB2n. Lehiakideen artean daude hiru debagoiendar: Maite Iturraran arrasatearra, Bergarako Eneko Mugurutza eta Ahinara Zubizarreta eskoriatzarra.

Saioa aurrez grabatua egonik, Argentinan bizi izandakoa oso esperientzia polita izan dela esan digute, baina goseak eta hotzak egon dira. "Gosea baino gehiago hotza pasa dut. Gainera, arropak bustita ibili gara", esan digu Maitek. Enekoren ustez, gosea izan da gogorragoa: "Denbora luzea geneukan libre eta jatekoari buruz berba asko egiten genuen".

**TALDE GIRO POLITA**

Hirurei egokitu zaie talde bera: Condor. "Nahiko talde polita izan da hasieratik eta ondo moldatu gara. Aurrez ez genuen elkar ezagutzen debagoiendarrok, baina badauzkagu lagunak batera, eta gertutasun horrek nolabait elkartu gaitu saioan ere", esan digu Ahinarak. Taldean oro har ondo moldatu badira ere, saioan barrena ikusiko dugu *pikerik*...

Taldean, hala ere, hobe ondo konpontzea, elkarrekin askotariko probak egin behar izan baitituzte. "Probarik gogorrenak uretakoak izan dira. Ura oso hotza dago eta igerian ez naiz oso abila", dio Maitek. Enekoren esanetan: "Jan barik indarra falta zitzaigun probei aurre egiteko".

Lehen saioa Enekok eta Ahinarak lagunekin ikusi zuten eta Maitek etxekoekin. Ahinarak "natural" ikusi zuen bere burua; Enekok "arraro"; eta Maiteren esanetan, "telebistan moztu egin behar dutenez, han bizi izandakotik oso ezberdina da ikusitakoa".

Noraino iristen diren jakiteko saioa ikusi beharko dugu astelehen gauetan. Maiteri aurrerago iritsi izana gustatuko litzaioke; Eneko ia amaierara arte ikusiko ei dugu eta Ahinarak amari baino ez dio esan emaitza.

Hiru *condor*-ak, eta hirurak gogorrak. Munduko azken lurmuturra konkistatzeko bidean.




**'CONDORRAK'** Hiru debagoiendarrak Condor taldean egon dira. Ahinara, behean erdian; Eneko eta Maite, goian eskuman. ETB

## ahobero

### "Fama ipurdiko mina bezala da"

**Daniel Craig** > Aktorea

James Bond-en papera jokatzen duen aktoreari eramangaitza zaio fama. Haren iritziz ipurdiko mina bezala bada, beste askorendako, ipurdian ostikoa jasotzea bezala da pentsatze hutsa zenbat kobratzen duen kameraren aurrean ipurdia zein beste edozein gorputz atal erakusten duen bakoitzeko. Ipurdiko mina beste askok izango du eserita lan eta lan ordu mordoa pasa ostean, eta ez da famatua izango, ez.

## iturri onetik

### Asobal mailako eskubaloi partidua jokatuko da Oñatin urtarrilaren 31n

Asobal ligan diharduten J.D. Arrate eta Leongo Ademar taldeek lagun arteko eskubaloi partidua jokatuko dute urtarrilaren 31n, zapatuan. Zubikoa kiroldegian izango da 18:30ean Aloña Mendiko eskubaloi sailak antolatutako norgehiagoka. Egun horretan bertan Jordi Rivera Leongo entrenatzaileak eskubaloiaren gaineko hitzaldia egingo du Oñatiko Unibertsitatean goizean.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Gasa eta Gaza

Optimista izateko joera dut, besteak beste uste dudalako pesimista izanda aurrera egiteko indar handia behar dela, nik dudana baino handiagoa. Baina, optimista izanda ere, une batzuetan kosta egiten da aldarte onari eustea, tristurarik beltzenean erori gabe.

Errusiako gasa eta palestinarren Gaza elkartu direneko hau da horietako bat. Azterketa sakonen beharrik gabe, lazgarria egiten zait ikustea bi handimandion inpunitatea, nola burutik behera kaka egiten dioten nazioarte kokoloari behar beste indar duten bi estatu makarra hauek. Ezin dut jasan Putinen larderia, ezta judutarren krudelkeria mugagabea. Baina etsigarriagoak zaizkit Mendebalde hipokritaren ahulezia eta zurikeria. Horiek galarazten didate mundu hobearen itxaropena.

## ai, ene!



### Lorontzi inteligentea, gurpil eta guzti

Lorontziak modu automatikoan bilatzen du landareak bizirik irauteko behar duen eguzki argia. Neguan eguzkirik aurkituko ote?

http://escenarios.ideario.es

